



Oñatiko txantxikua aztergai

Aranzadik ikertuko du hura | 8



Txantxikua. | JON GARIN

Arrasateko ziklo-kroserako prestaketa lanetan | 29



Kuadrillen Eguna antolatu dute Aretxabaletan, lehen aldiz | 21



Indarkeria matxista gaitzetsi dute eskualdeko herri guztietan | 'Herriak' saila

Aldarrikapena eta jaia Euskararen Egunerako

Debagoiengan ekimen ugari dabilta prestatzen | 'Herriak' saila

SINADURAK

- Loreak amamarentzat | 7 ANARTZ AGIRRE
- 7 | Zebra-bideak, zertarako? MIREIA BIKUÑA
- Azala eta mamia | 9 OSCAR RODRIGUEZ
- 19 | Berdintasunaren printzipioa MIEL GURIDI
- Xixilitarrak | 20 INAXIO GARRO
- 25 | Inkoherentziarekin balantzaka ATZOL ITURBE
- Ezustean | 48 AINTZANE OIARBIDE



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketak
- Monika Madinabeitia, diasporaren gaian

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

HONDAKINEN BILKETA SISTEMARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

Domekan argituko da herritarren nahia

Hondakinen bilketa sistemak aukeratzeko herri galdeketa egingo dituzte Bergaran eta Eskoriatzan



BERGARA

Bi aukera jarri zaizkie bergararrei mahai gainean, eta 12.344 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Aldez aurretik 419 herritarrek eman dute botoa. | 14

ESKORIATZA

Hiru aukera jarri zaizkie eskoriatzarrei mahai gainean, eta 3.289 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Aldez aurretik 88 herritarrek eman dute botoa. | 22

www.durangokoazoka.eus

50.

DA!

abenduaren 4tik 8ra

ANTOLATZAILEA

BABESLE NAGUSIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK

Ibai Salazar | Bertan Igogailuak kooperatibako ingeniaria

"Zuzeneko arretari garrantzia ematen diogu"

Bertan Igogailuak enpresa aparailu zahar eta berrietan espezializatuta dago; gertuko zerbitzuaren aldeko apustua egiten du, eta, horretarako, bezeroari askatasun osoa ematen dio.

Zertan oinarritzen da Bertan Igogailuak enpresa?

Duela zazpi urte inguru, igogailuen mantentze-lanen sektorea zabaldu egin zen, eta, ordutik hona, aldaketa asko egon dira sektorean. Hasiera baten eta liberalizazioaren aurretik sortu ziren muntaia enpresa gehienak desagertu edo multinazional baten barruan sartu dira. Gipuzkoan, Irun inguruan dagoen enpresa txiki batez gain, Gipuzkoa oso-rainoko zerbitzu independente bat ematera heldu gara, enpresa txiki moduan, eta hala jarraitzen dugu.

Zer eskaintzen duzue?

Aparailu zahar eta berrietan espezializatutako enpresa gara. Aparailu modernoek ez dute lan askorik ematen; izan ere, plaka edo edozein elementu aldatzeko eta aurkitzeko ez da arazorik izaten. Gainera, gure instalazioetan biltegi propioa daukagu, eta behar ditugun elementuak bertan bilduta izateak asko laguntzen digu. Aparailu zaharrekin lan egiteko, ordea, derrigorrezkoa izaten da inguruko enpresekin harremana izatea. Edozein momentutan beharra izanez gero, materiala eskatu, utzi edo partekatzeko. Kolaborazio barik ezinezkoa izango litzateke duela 30 urte jarritako igogailu mota guztien piezak izatea. Hori bai, guk pieza gehienak ditugu, eta modelo berri bat mantenuan hartzen dugun momentuan, beste enpresa batzuetatik gure biltegirara ekartzen ditugu pieza horiek guztiak, edo, behintzat, lokalizatuta izaten ditugu. Garrantzitsuena da igogailu bat geldi inoiz ez edukitzea, eta are garrantzitsuagoa segurtasuna %100 bermatzea.

Eskaintzak azalduta, zer-nolako enpresa zarete?

"Teknikariei benetako garrantzia ematen diegu"

"Enpresekin elkarlana beharrezkoa da"



Ibai Salazar eta Koldo Manterola Bertan Igogailuak enpresako jabeak, Garaian duten bulegoaren aurrean.

Euskal Herri mailan enpresa asko egon dira kooperatiba moduan jaio direnak, eta, filosofia aldaketa baten ondorioz, talde handi izaten amaitu dute denek. Kasu guztietan, gainera, langileek ez dute aukerarik izan horren aurrean ezer esateko eta gutxi batzuen artean pertsona askoren bizitza erabaki da. Gu, ordea, kooperatiba bezala hasi ginen, eta hala jarraitzen dugu. Era horretan, langile guztiok garrantzi berbera dugu, eta hori nahi dugu, berdintasuna. Orokorrean, sektore honetan, igogailuen mantentze-lana egiten duten teknikariek ez dute erabakitze aukera askorik izaten, eta goitik datozen aginduak betetzen dituzte. Gurean, ordea, teknikariei benetako garrantzia ematen diegu; izan ere, beraiek dira benetan dakitenak bezero baten igogailua zelan dagoen eta zer den egin beharrekoa. Ezin da bulego batek jakin igogailu baten egoera zein den edo bezeroa nola dagoen. Guk, horren aurrean, gertutasuna eskaintzen dugu. Gure kooperatibak gauzak argi dauzka eta idatzita ditugu estatutuak. Guztiok garrantzi bera dugu enpresan, soldata berak ditugu, eta enpresa, beti kooperatiba

independente bezala jarraitzeko obligazioa dugu.

Kooperatiba izateaz gain, zerk bereizten zaituzte beste enprestatik?

Zuzeneko arreta eta askatasuna eskaintzen ditugu. Gure edozein bezerok gurekin duen kontratua etetea gura badu, 30 egun lehenago abisatuz, ez dauka arazorik. Modu horretan, bezeroak beti dauka aukera gurekin ongi ez badago beste enpresa batzuekin saiatzeko. Enpresa txiki batek ematen duen arreta zuzenekoa eta azkarra da, ez baitaukate

burokrazian finkatutako elementutan denbora galtzen ibili beharrik. Tranpa gabeko kontratuak izaten dira, benetako 24 orduko zerbitzua ematen dutena, eta kompetentziatik ezberdintzen gaituen kontratu mota batekin. Horretarako, *Bertan+* izeneko zerbitzua eskaintzen dugu.

Enpresa handitzen ari zarete, ezta? Donostialdean bulego bat izanda, eta Debagoienean, Arrasaten, beste bat izateak aukerak handitzen ditu. Gasteizetik gertutasuna ere badugu, eta horrek hedatzen laguntzen digu. Guretzat,

garrantzitsua da leku finko bat izatea, eta, poliki-poliki, instalazio handiagoak eduki nahi ditugu, beharbada, beste enpresa batzuekin elkarlanean.

Gertuko zerbitzuaren aldeko apustua egiten duzue?

Gauzak argi ditu Bertan kooperatibak, urte askotako esperientziarekin sektoreak dituen gauza txarrak ongi identifikatuak dituelako. Bezero askok mesfidantza dute sektore honetako enpresa askorekiko, eta hau ekiditeko era bakarra bezeroari askatasuna ematea da, baina benetako askatasuna. Horren alde egiten dugu, eta, ahal dugun, heinean bezeroari laguntzen diegu.

Prezioak finkatuta dituzue?

Gipuzkoan ez daude prezioak finkatuta, eta enpresa bakoitzak gauza ezberdinak kobratzen ditu. Guk, ordea, gure *Bertan+* zerbitzua 100 euro inguruan finkatua daukagu. Badakigu urte pare baten inguruko herrialdeetan dabilen multinazionalak etorriko direla eta 80 euro inguru kobratuko dutela; horregatik, gure bezeroei ganorazko prezio bat eman nahi diegu, etorkizunera begira gurekin gustura egonda, enpresa hauen eta gure artean dauden ezberdintasunak zeintzuk diren ongi jakin dezaten.

'BERTAN+' ZERBITZUA ESKAINTZEN DA

- ▶ Erreskate eta ohar guztiek 24 orduko erantzuna dute.
- ▶ Eskaintzaren barruan, pieza guztiak barne.
- ▶ Telefono-linea zerbitzuaren barruan sartzen da; eta ez daukatenei, telefono instalazioa egiten zaie.
- ▶ Igogailuak erabiltzen duen potentzian finkatuz, efizientzia energetikorako azterketa egiten da, ahal den energia gutxien erabiltzeko.
- ▶ Euskarazko zerbitzua enpresako atal guztietan ematen dugu. Ez da marketin hutsa, enpresak duen zutabe garrantzitsuena da guretzat euskara.
- ▶ Kontratu librea eskaintzen dugu, edozein momentutan kalte-ordain gabe eten daitekeena. Horrela, bezeroari askatasuna ematen diegu.
- ▶ Industriaren ikuskapena doan.

Herritarrek esango dute ze sistema erabili beharko den

- ▶ Bergaran aurretiazko 419 boto jaso dituzte dagoeneko
- ▶ Eskoriatzan ere bermatu dute aurretiazko boto eskubidea; 88 jaso dituzte

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Bergaran eta Eskoriatzan 15.633 herritar daude deituta domekan botoa ematera joan daitezten; Bergaran 12.344 herritarrek eta Eskoriatzan 3.289 herritarrek izango dute horretarako eskubidea.

Guztiak aukeran izango dute-na da nork bere udalerrietako hondakinak batzeko zein sistema ezarri beharko litzatekeen erabakitzea.

Eta tokian tokiko alderdi politiko guztiek egin dute herri galdeketa parte hartzeko deia.

Bergaran bi kolore

Hori bai, desberdintasunak daude udalerrri batean zein bestean galderak egiteko orduan eta galderei erantzunak emateko mahai gainean jartzen diren aukeren artean.

Hain justu, Bergaran bi epigrafe eta bi kolore dituzten botoak izango dira hauteskunde lekue-tan. Galdera, honako hau: *Bergarako udalerrian zein kontsi-*

deratzen duzu hondakinak gaita biltzeko erarik egokiena? Zuri kolorea duen botoarekin erantzuna izango da Gaikako bilketa edukiontzi bide egitea nahi dutela eta laranja kolorea duen botoarekin, Gaikako bilketa ateko sistemarekin egitea nahi dutela.

Eskoriatzan hiru aukera

Eskoriatzan, berriz, honako hau da planteatzen duten galdera: *Hondakinak selektiboki biltzeko hiru sistema hauetatik zein nahi duzu Eskoriatzan erabiltzea?* Eta ohartxo baten bitartez, azaltzen dute bilketa selektiboa dela "hiri hondakin solidoak sortzen diren unetik bertatik bereiztea, hau da, hasiera-hasieratik edukiontzi ezberdinetan sailkatzea, gero birziklatu ahal izateko".

Kontuak kontu, horri erantzuteko hiru dira mahai gainean jarri dituzten aukerak: *Edukiontzi kolektiboak* –bosgarren edukiontzi sistema–; *Edukiontzi indibidualak* –atez ateko siste-

ma– edo *Edukiontzi kolektiboak eta indibidualak* –sistema mistoa–.

Bi galdeketa legez onartutako dira; bestela esanda, Espainiako Gobernuaren onspena dute. Beraz, edozein hauteskundetako prozedura jarraitu behar dute, eta hala egiten dabilta.

Hori horrela, gaur (egubakoitza) da kanpaina egiteko legezko azkeneko eguna, bihar hausnarketarako eguna izango da eta.

Domekara begira jarrita, berriz, 09:00etan zabalduko dituzte hauteskunde-eskolak, Bergaran zein Eskoriatzan, eta herritarrek 20:00ak arte izango dute botoa emateko aukera. Aurretiazko botoetarako eskubidea ere bermatu dute herri galdeketa deitzaileek: Bergaran 419 halako jaso dituzte eta Eskoriatzan, berriz, 88 boto.

Lau sistema

Debagoiengan (Aramaion izan ezik) gaur-gaurkoz hondakinak

Informazio praktiko eta orekatua

Franco hil ostean, eta indarrean dagoen Konstituzioaren aurretik, oso gutxitan galdetu zaie debagoiendarrei gai konkretuen gainean, botoa emateko aukera eskainiz, legearen bermekin eta erakundeek bultzatu eta babestuta: Espainiako Konstituzioaren gaineko erreferenduma, Gernikako Estatutuaren gainekoa, NATO erakundearen sartu edo ez erabakitzea eta, berriki, Europako Konstituzioa onartzekoa.

Hiri hondakinak batzeko sistema aukeratzeko herri galdeketa deitu dute orain, azaroaren 29rako, domekarako, Bergaran eta Eskoriatzan. Bergarako eta Eskoriatzako udalek antolatu dituzte herri galdeketa, nork bere herrian.

Hori guztia abiapuntu, irakurleei ahalik eta informazio osoena, praktikoa eta orekatua emateko helburuarekin, aurreko agintaldian Bergaran eta Eskoriatzan alkatetzan egon zen eta, ondorioz, bi herriotan indarrean dagoen hiri hondakinak batzeko sistema ipintzeko ardura izan zuen EH Bilduri, alde batetik, eta gaur egun bi herriotan alkatetzan egonda sistemak aldatzeko herri galdeketa deitu duen EAJri planteatu dizkiegu galdera berberak, sistemaren funtzionamenduan, kostuan edota emaitzetan oinarrituta. Zenbaki honetan, Bergarako eta Eskoriatzako orrietan, jasota daude erantzunak.

EAJri eta EH Bilduri ez ezik, Goienak espazioa eskaini die, era berean, herriotan udalbatza osatzen duten gainerako alderdiei –Bergaran, PSE-EEri eta Irabaziri; eta Eskoriatzan, Irabaziri eta Elizateei–, eta baita hiri hondakinaren gaineko talde edota plataformei ere –Bergara Zero Zabor, Eskoriatza Zero Zabor, Bergara Garbia eta Eskoriatza Garbia–.

Goienak landutako informazioaz gainera, oraingo astean bestelako eragileek sortutakoak –prentsurrekoak, gutunak...– etorri ahala jaso dira.

batzeko lau sistema daude indarrean: atez ateko purua Oñatin, Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan; mistoa, Bergaran; Arrasaten eta Elgetan txip bitar-

teko edukiontziak baliatzen dituzte eta Leintz Gatzagan gaita batzen dute guztia. Guztiak dira, hori bai, zelanbaiteko kontrollean oinarritutakoak.

BAZAR ARRASATE



1.000 m²
ZABALDU BERRIA!

Etor zaitez!



San Andres Auzoa, 10 Pab (DIA eta MECA parean) - ARRASATE - Ordutegia: 09:30 - 21:30

Zortzi lanposturen galeraz ohartarazi du Debarroko LAB sindikatuak

JOSU BILBAO | DEBAGOIENA

Debarroa eskualdeko LAB sindikatuak prentsaurrekoa egin zuen herenegun, eguaztena, Bergarako kultura etxean, domekan hondakin bilketa sistemen gainean egin behar diren herri galdeketen bueltan.

LABek esan zuen atez ateko sistemarekin eta sistema mistoarekin gehiago birziklatu eta gutxiago kutsatzeaz gain, lanpostuak sortzen direla. Salatu zuen hondakinen bilketaren atez ateko sistemak eta sistema mistoak Debagoiengan sortu dituzten 38 lanpostuetatik zortzi arriskuan egon daitezkeela galdeketa egingo duten herrialdeetan, 5. edukiontziaaren aukerak irabaziz gero.

Ezinegona

LABek begi onez ikusten du herritarrei galdeketa egitea, haien parte hartzea sustatzen duelako, baina galdeketa parte hartuko dutenei lanpostu horiek eta langileak kontuan hartzeko eskatu diete. Atez ateko sistema mistoko langileen artean ezinegona sortu dela esan du LABek, oraindik inork ez dielako lanpostua mantenduko duten bermerik eman. Hori dela eta, LAB sindikatuak egoera hori argitzeko eskatu dio Debagoieneko Mankomunitateari. Bestalde, LABen ustez, errauskailuaren aldeko apustua egitea zentzugabea da diru publikoaren xahuketa eta biztanleen osasunarentzat kaltegarriak direlako.



LABeko ordezkariak, prentsaurrekoan. | JOSU BILBAO

Urteko elikagai bilketarik handiena egiteko baliabideak gertu dituzte

UBANE MADERA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, eta zapatuan egingo da bilketa Gipuzkoako 72 establezimendutan, eta 1.400 boluntario ibiliko dira lanean. Espero dute Gipuzkoa osoan 575 tona elikagai jasotzea, urte osoarako janaria izan dezaten.

Bergarako Elikagaien Bankuak bere baitan hartzen duen esparruan -Debagoien, Debabarran, Urola eta Goierri aldean-, iaz, esaterako, 190.000 kilo jaki batu zituzten, eta aurten ere kopuru berori lortuz gero, pozik egongo direla aditzera eman du Bergarako Elikagaien Bankuko arduradun Jose Antonio Agirrebeñak.

Laguntza-bonuak

Jaso gura dituzten elikagaiei dagokienez, berriz, bilketa puntu guztietan, orri batean zehaztuko da zein jaki diren egokienak eramateko. Adibide batzuk jar-tzearen, esnea, gailetak, kakaoa eta umeendako pure-potetxoak jasoko dituzte, besteak beste.

Aurten, bestalde, laguntzeko beste modu bat ere emango dute aukeran; kasu horretan, Eroskiko establezimenduetan: bonu batzuk egongo dira. Bonu horiek ahalbidetuko dutena zera da: jeneroa (elikagaiak) orain eman beharrean, elikagai horiek bankuan dituzten beharren arabere-

ra hartzen joatea, urte osoan zehar.

Euro bat dohaintzan

Bestalde, laguntzaile berezi bat izaten du Elikagaien Bankuak bilketarako, eta aurten Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte izango da. Hainbat ekintza egiten ari dira; esaterako, eguneko pintxo-potean batzen den diruaren zati bat edo ordutegi zehatz batzuetan jasotako kafeetako dirua gasolina ordaintzeko erabiliko dute. Izan ere, Elikagaien Bankukoek asteburuko bilketarako furgoneta eta kamioi asko erabiliko dituzte, eta asmoa da gasolinarako 6.000 euro jasotzea. Debagoieneko ostalariak ere hasi dira laguntzeko ekintzak egiten, Bergarako Lasa eta Oñatiko Zelai Zabala jatetxeetan, adibidez. Zelai Zabaleko arduradun Alberto Elorzak dio etxeko plater bateko euro bat horretarako gordetzen ari direla.

Agirrebeñak aurrez eskerrak eman nahi izan dizkie bilketan lagunduko eta laguntzen diharduten guztiei. Horrekin batera, aprobetxatu du esateko orain jasotako guztia sailkatu eta bere tokian utzi behar dela; beti izan dutela laguntza, baina oraingoan ere ez daitezela ahaztu eta astelehenetik boluntarioak anima daitezela Bergarara laguntzera.

Urbanext-en proiektuarekiko babesa

U.M. | DEBAGOIENA

"Candyko langileek Urbanext proiektuari babesa emateko asmoa berresten dugu. Proiektu hau abiatzen ez bada, soilik Jaurlaritzaren babes ezagatik izango dela argi eta garbi salatu nahi dugu. Ez dugu ulertzen zer gertatu den, eta zergatik gertatu den azken egun haue-tan, baina guretzat esku beltz bat egon da proiektu hau zapuztu duena, eta esku beltz hori Eusko Jaurlaritzan dago, inolako zalantzarik gabe. Izan ere, eta hau argi utzi nahi dugu, Jaurlaritzak proiektuaren bideragarritasunari oniritzia eman zion bere garaian". Salaketa hori abiapuntu, atzo, eguena, Candyko langileek elkarretaratzea egiteko asmoa zuten Bergaran, iluntzean -edizioa ixterakoan, baina, egin barik zegoen-.

Hainbat galdera ere plazaratu gura izan dituzte Candyko langileek; adibidez, zergatik ez duten proiektua bideragarria ez dela erakusten duen txostenik egin edo zergatik Jaurlaritzak ez dien "bestelako proposamen edurik planteatu". Diote "bigarrenez" direla "biktima, Eusko Jaurlaritzaren biktima".







JAI ENOGASTRONOMIKO HANDIA
VITORIA-GASTEIZ

abenduak
4 • 5 • 6 • 7 • 8

Antolatzailea



Antolatzailearen sarrera

facebook.com/ardorabara

@ardorabara

ardorabara

Babesle ofizialak



Laguntzaile teknikoak



Babesle bereziak



Laguntzaileak



"Euskadi defendatzera" doaz jeltzaleak Madrilera

EAJko Gipuzkoako buruzagiak eta eskualdeko alkateak Bergaran elkartu ziren

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Bergarako EAJk, Batzoki Eguna-ren bueltan, batzokian bertan ekitaldi politikoan elkartu zituen, joan den domekan, eskualdeko, lurraldeko eta erkidegoko kargu publikoak, Espainiako Gorteetarako hautagaiak —tartean Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohia— eta afiliatuak. Debagoieneko lau alkate jeltzaleak izan ziren,

Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarrereko lehendakaria buru.

"Lanari eta estrategiari esker"

Azken horrek eta Espainiako Gorteetara EAJk Gipuzkoatik Kongresura eta Senatura aurkeztuko dituen zerrendaburuek, Maria Eugenia Iparragirrek (Senatura) eta Joseba Agirretxeak (Kongresura), hartu zuten hitza, Mikel

Lete Bergarako Uri Buru Batzarrereko ordezkariaren ostean. Bergarako batzokiko areto nagusia goraino bete zen. Hiru hizlariek azpimarratu zuten abenduaren 20ko hauteskundeetan eta Madril "erabakiak hartzen diren edozein tokitan" egotearen garrantzia. Eta horrekin batera, besteak beste, Joseba Egibarrek gogora ekarri zuen ikus-entzuleen aurrean dagoe-



Joseba Egibar berbetan, alkate eta buruzagi jeltzaleek lagunduta. | IMANOL SORIANO

la Debagoieneko "argazki berria" —han ziren Jose Ramon Zubizarreta, Maria Ubarretxena, Juanje Alberdi eta Unai Elkoro, hurrenez hurren, Eskoriatzako, Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako

alkateak—, eta maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan lurraldean eta eskualdean izandako emaitzak haiei esker, azken zortzi urteetako "lanari eta estrategiari esker" lortu direla gogoratu zuen.

"Aukera bikaina dugu gure erabakiaren jabe izateko"

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Debagoieneko EH Bildu ere Espainiako Gorteetarako hauteskundeetara begira ipini da, eta agerraldia egin zuen eguaztenean. Koalizioaren ustez, "abenduaren 20an asko dago erabakitzeke Euskal Herrian eta baita Debagoienean ere.

Espainiako Estatu "krisi politiko sakon baten murgilduta" dagoela diote eta gipuzkoarrek "aukera bikaina" dutela: "Gure erabakiaren jabe izateko eta gure herriari erabaki ahalmena emateko". Horretarako, "Gipuzkoan talde ezin hobea" aukeratu dutela diote eta "debagoiendarrak



Kongresurako eta Senaturako hautagaiak Arrasateko agerraldian. | J.B.

inoiz baino ordezkatuago" egongo direla, are gehiago, Kongresurako eta Senaturako zerrendetan Debagoieneko hiru lagun doazela kontuan izanda: Ander Rodriguez eta Amaia Larrañaga arrasatearrak eta Maialen Urtzelai oñatiarra.

Bilborako deia

Abenduaren 6an, Konstituzioa ospatzeko egunean, independentzia aldarrikatzeko Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin zieten herritarrei eguazteneko agerraldian.

EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA

Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren Aditu Tituluko gogoeta eta eztabaida-saioak egin ditu Mondragon Unibertsitateak. Hauxe da saioetako baten laburpena.

Ertzak batuz

JON BEREZIBAR | ARRASATE

#NazioKulturala (ere) auzitan. Identitatea beti *bestearen* aurka erakitzen dugula dio Lorea Agirrek: "Ukatzen dizutenaren gainean eraikitzen du gero **#hegemonia**-k zure iruditeri osoa". **#Bestea** ere auzitan. Kolonizatuak izan dira euskaldunak, indabituak, asimilatuak ala bentzutuak. **#Eztabaida**.

Menderakuntzaren pusketak Nazio kulturalaren inguruan —hiru euskal tradizio politikoetatik— dihardute Juan Jose Ibarretxek, Jesus Eigurenek eta Xabier Zubizarretak atal honetan. Garai leek idatzitako **#Historia**, **#kolonizazioa** zalantzan eta, areago, eztabaida bera dudana. Paulo Iztuetak dakar ikuspegi historikoa, euskaldunen **#erresistentzia**

kontakizuna 1.200 urtetik abiatuta. Hegemoniaren auzia. "Nazioa beti da politikoa, **#hautua** baita dio Lore Agirrek eta nor ote orduan **#subjektua**, ze "berdina al da **#herritarra** eta **#hiritarra**?", galdetzen du Paulo Iztuetak.

Enuntziario leku bila

Gatazkon ikara eta hotsetatik ez da libratu euskal **#SistemaLiterarioa** eta honen bilakaeraz dator hausnarrean Joseba Sarrionandia, idatziz bidalitako gogoean. **#Modernizazioa**-ren drama, **#emantzipazioak** eta erresistentzia ala **#normalizazioa**, giro **"#banderizo-an"**. Badute **#EnuntziarioaLekua** euskal idazleek? Eider Rodriguezek arrotzaren begiradaren alde egingo du, literatura beretzat hori dela azalduz. Ikurrez eta transmisioaz jardun-

go du azkenik Iratxe Retolatza filologoak, Gabriel Aresti adisikidetzaren sinbolo "harrizkoa"-ren arrakalak azaleratu guran. **#Gatazka**-ren transmisioaren beharra defendatuko du.

Hizkuntza bakar bat

Galdera pusketen eta pitzaduren aurrean azkenik batzen gaituenarekin etorriko da Kike Amonarriz: **#euskara**. Horretan, zubigile aurkeztuko da Mixel Etxekopar, sormena ukendu batzaile gisa defendatuz. Nola ekin? Baditu gidalerroak Imanol Epelde irakasleak. *Lau zetak* behar omen: **#zoriontasuna**, **#zorotasuna**, **#zentzua** eta **#zorrotasuna**.

HITZALDI OSOA IKUSTEKO:

Goiena telebista | Eguena, abenduak 3, 22:00.



Goitik hasita, ezkeretik eskuinera: Eider Rodriguez, Imanol Epelde, Iratxe Retolatza, Jesus Eiguren, Joseba Sarrionandia, Juan Jose Ibarretxe, Kike Amonarriz, Lorea Agirre, Mixel Etxekopar, Paulo Iztueta eta Xabier Zubizarreta. | GOIENA

Telebistako saioaren babeslea



LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAILTZETA PLANA
25.000 €-rainoko finantzaketa, abalik gabe



Finantzaketa honek Europar Batasunaren laguntza du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1296/2013 zenbakidun Araudian (EB), Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europar Batasunaren Programari ("EaSI") buruzkoan, jasotakoaren arabera ezarritako berme-tresnaren esparruan. Berme hau Europar Batasunak finantzatuta dago, Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Programaren ("EaSI") esparruan.



GUTUNAK

Euskaltzaindiari proposamen eta eskutitz irekia

Patxi Saez Beloki
(Soziolinguista)
Azpeitia

Andres Urrutia,
euskaltzainburu jaun
agurgarria:

Zuregana zuzentzen naiz, Andres, Euskararen Akademiaren aginte makilaren jabe zarelako eta Zuzendaritza Batzordearen buruzagitza duzulako.

Euskaltzale mordoxka bat gara euskararen berreskuratzeko ondorengo urte-hamarkadetan egin beharreko ziklo luzearen nondik norakoak kezkatuta gaudenak.

Oraintxe dugu une historiko egokia euskararentzat dinamika berri bat sortarazteko. Azken helburua euskararekin gaur egun dauden inertiak aldatzea litzateke, euskara gizartearen bigarren hizkuntza izatetik gizartearen hizkuntza nagusi bihurtzeko dinamika berria abian jartzea proposatu nahi dizut.

Proposatu nahi dizudan dinamika berriaren erdigunean Euskaltzaindia dago. Euskarari dagokionez, Euskaltzaindia da euskaldun guztion artean onarpenik zabalena duen erakundea.

Ondo baino hobeto dakizun bezala, Euskaltzaindia 1918an sortu zen eta Euskaltzaindiaren 50. urteurrenean, 1968an, egin zen euskara batu edo estandarizatu zuen Arantzazuko Biltzar Nagusia, eta harrezkerotik, azken 50 urteotan, Euskararen Corpus Plangintza egin du Euskaltzaindiak, batik bat.

Euskaltzaindia, aurki, 2018an, mendeurrena betetzear da. Euskararen aro berriari hastapena Euskaltzaindiak antolatuko lukeen Mendeurrenoko Batzar Nagusiak emango lioke,

oraingo honetan, Status Plangintza egiteko, alegia, ondorengo 25-30 urteko ziklo luzean jarraitu beharreko gizarte-dinamikak zehazteko eta nondik norakoak finkatzeko eta erabakitzeko. Mendeurrenoko Batzar Nagusi horretan erabakitzen den bide-orria guztiz akademikoa litzateke, guztiz teknikoa, 1968ko Batzar Nagusia Euskararen Batasunarena izan bazen, oraingo hau Euskararen Erabilerarena izango litzateke.

Euskarak beste mugarri bat jarri beharra dauka ziklo berria zabaltzeko. Mugarri hori Euskaltzaindiaren Mendeurrenoko Batzar Nagusi horrek jarriko luke. Euskararentzat, hil ala bizikoa da, euskal gizarte mugiarazteko eta etorkizunerako nondik norakoak finkatzeko, horrelako aukera bat ez galtzea, euskarak gizartearen zentralitatea eta lehentasuna lortu ahal izateko.

Hauxe eskatu nahi dizut, Andres: mesedez, eraman ezazu proposamen hau Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurara sakonetik aztertua izan dadin eta euskararen etorkizuna irabazteko bide berriak zabal daitezzen.

Euskarak aurrera egiteko, gaur-gaurkoz, lidergoa eta estrategien antolamendua behar ditu. Euskaltzaindia ur horietan zaildutako mariñela dugu. Lehen egin zuen eta orain ere egingo duela ez dugu zalantzarik.

Egungo sistemaren alde

Agurne Barruso eta Aiert Lizarralde

(Bergarako EH Bilduko eta Irabaziko bozeramaileak)
Bergara

Igandean erabakiko dugu bergararrok hondakinak biltzeko zein sistema nahi dugun.

Bergarako Irabazi eta EH

Bildu egungo sistema mantentzearen alde gaude. Horretarako ditugun arrazoiak honako hauek dira:

1) Emaiz oso onak ematen ditu. Bergaran 2013an %28 birziklatzen genuen. Gau egun %82.

2) Sistema aldatzeak inbertsio handiak dakartza. Ia 1.000.000 euro gastatu behar dira. Ez al dago eremu hoberik diru hori inbertitzeko?

3) Sistema edozein dela ere, etxean egin behar duguna berdin-berdina da. 5 frakzio sailkatu beharko ditugu. Aldaketa bakarra egutegirik eta ordutegirik ez izatea da.

4) Gertutasunak erosotasuna dakar. Edukiontzia egungo esekitokiak baino urrutiago izango ditugu. Kamioi handiak ezin baitira edozein tokitan sartu.

5) 177.884,47 euro aurreztuko omen ditugu bilketan, baina benetan ez dugu aurreztuko; diru hau baino gehiago gastatuko dugu errauskailua ordaintzen.

6) Eskualdean 8 lanpostu galtzea ekidingo genuke sistema mantenduz. Bilketan aurrezten den dirua bereziki soldatetan eta lanpostuetan aurreztuko da.

Igandean joan bozkatzera eta bozkatu egungo sistemaren alde!

Bildu eta Bergarako hondakin bilketarako kontsulta

Josu Leturia

(Bergara Garbia)
Bergara

Bergara Garbian uste genuen datuak jakin ondoren aldaketa bat ekarriko zuela Bilduren atez atekoaren aldeko diskurtso interesatuetan. Izan ere, diskurtso eta iritzi horiek

ez dute inolako oinarri teknikorik. Interes politikoak dituzten diskurtsoak dira, dagoeneko frakasatu dutenak, eta inork ere sinesten ez dituztenak. Baina, antza denez, Bergarako Bilduri ez zaio gustatzen errealitatearen aurrean men egitea. Badakite datuak praktikatik lortutakoak direla eta benetakoak, baina berdin zaie.

Azterketan ikusten denez, ez dago alde gaikako bilketaren portzentajeetan. Bosgarren edukiontziaarekin kostuak %27,68 txikiagoak dira atez atekoarenak baino; hau da, bosgarren edukiontzia jarriz gero, Bergarako herritarrek urteko 230.685 euro aurreratuko dugu.

Pentsa ezazue Bergaran 10 urtetan aurreztutakoarekin, hau da, 2.360.000 euroarekin, zenbat premia bete ahal izango liritekeen. Ez zaio inporta Bilduri diru-premia larriak dituztenek dirua aurreztu ahal izatea? Eta horri gehitu behar zaio hondakinak ateratzeko orduan erosoagoa dela, norberari komeni zaionean atera ditzake eta. Ez da gogoratzen Bildu mugikortasun murriztua duten pertsonen edo pertsona nagusiekin? Izan ere, horiei bosgarren edukiontzia erraztasun handiak eskaintzen dizkie, baina atez atekoak, ordea, zigortu egiten ditu.

Kamioi gutxiago erabiliko dira, eta, beraz, kutsadura gutxiago sortuko da. Atmosferaren kutsadurak ez dio Bilduri inolako kezkarik sortzen? Edo ez dute onartu behar, halaber, atez ateko bilketak kutsadura gehiago sortzen duela? Zertan dabilta, orduan, kontrakoa haizatzen? Zer ikusten du Bilduk atez atekoan, horrek huts egiten badu ekonomia-arloan, gizarte-arloan eta ingurumen-errespetuaren arloan?

Bergarako herriak eta Bergara Garbiak bere egunean bosgarren edukiontziaaren aldeko

apustua egin genuen, gaikako bilketa-sistemetik eraginkorra delako, eta denborak arrazoi eman digu datuen bidez.

Eta bergararrek helburua garbi dugu: igandean (azaroak 29) botoa eman bosgarren edukiontziaaren alde, eta baztertu, betiko, Bergaratik atez atekoa.

Kontsulta honetan asko dugu jokoan. Borrokan lau urte iraun ondoren, orain zure botoarekin erabakiko da. Zure botoa erabakigarria izango da.

Bosgarren edukiontziaaren alde, denok botatzera! Gaikako bilketa bai!

IRAKURLEARI

Azaroaren 29rako Bergaran eta Eskoriatzan antolatu diren hiri hondakin herri galdeketa direla-eta, Aintzane Oiarbide Goienako iritzi zutabegileari eskaini zitzaion hiri hondakin edo herri galdeketa gainean idatzi nahi bazuen, Debagoieneko orrietan idaztea, gaiaren gainean kontrako posizioa duen Goienako beste iritzi zutabegile batenarekin batera.

Izan ere, Aintzane Oiarbideri tokatzen zitzaion eskuetan duzun GOIENA papereko zenbaki honetan idaztea *Azken berba* iritzi zutabea. Eta, iritzi orekari eutsiz, herri galdeketa gaineko kanpaina sasoian egonda, Goienako Erredakzio Batzordeak egoki ikusi zuen kontrazaleko iritzi zutabearen gaiarekin horren lerrokatuta ez dagoen beste kolaboratzaile bati eskaintzea tartea eta Aintzane Oiarbideri barruko orrietan eskaintzea, aipatutako beste iritzi zutabegilearenarekin batera.

Aintzane Oiarbidek uko egin dio aukera horri, eta, hiri hondakin gainean idatzi beharrean, beste gai bati buruz idaztea aukeratu du *Azken berba* zutabearen, bere txanda betez.

Goienak ez du inor zentsuratu. Gaia eta momentua zein diren kontuan izanda, gaiaren gainean idazteko beste toki bat eskaini dio Aintzane Oiarbideri, betiere, orekaren izenean.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00



basquestay

www.basquestay.com

**Apartamentu baten jabe bazara,
alokatu eta diru iturri bilakatu**

**606 74 77 56
info@basquestay.com**

ZABALIK



ANARTZ AGIRRE
goiena.eus/komunitatea/

Loreak amamarentzat

Eta ez naiz ari gure seme-alaben zaintzan hainbeste laguntzen diguten amama edo amona guztiei buruz. Horiek loreak eta gehiago merezi baitituzte. Ez, zinemas ari naiz. Asier Altunaren *Amama-z* eta Oscarretarainoko bidea egin duen Garañoren eta Goenagaren *Loreak* pelikulaz. Ez naiz ni zinemagintzan aditua; horregatik, agian, buru-kolpe bat baino gehiago eman nuen *Loreak* ikustean besaulkian lo ez gelditzeko borrokan.

Gustatu beharren gustatu beharraz joan nintzen zinemara, eta txikitari miresten duzun kirolariren bat urte batzuk geroago bertatik bertara ezagutzeko parada izan eta geratzen zaizun aho zapore mikatzarekin bezalatsu gelditu nintzen: "Ez zen hainbesterako". Aho txikiarekin esan nuen ez zitzaidala gustatu eta batek baino gehiagok goitik behera begiratu zidan. "Zineaz putaideiarik ez daukazu", "*Loreak* ez bazaizu gustatu, ulertu ez duzulako da" eta antzera-koak esan ez, baina askok horixe pentsatu zuten nitaz.

Amama-k, berriz, lehen planotik besaulkira itsatsita utzi ninduen. Barre txikia ezpainetan nuela batzuetan, bihotza ahotik irten beharrean bestetan. Begiak erdi bustita, emozioz, amamaren begiradak sorginduta, Mursegoren txeloak barruak astintzen zizkidan bitartean. Gure baserriaren eta baserriarren errealtate gordin bezain ederra bikain islatzen du *Amama-k*, eta pelikulan agertzen diren hainbat pertsonaia bizitza errealean ezagutzen nituelako benetako irudipena izan nuen. Nire Oscarra eta loreak *Kixi*-rentzat, baina ni ez naiz zinemagintzan aditua...

Kontuak kontu, bi pelikulek erakutsi dute euskal zinemagintzaren benetako maila eta euskaraz egiteagatik ez direla inongo atekak ixten.

Atzerrian inongo konplexurik gabe ulertzen dituztela euskarazko pelikulak eta euskaldunok *Ocho apellidos vascos* baino zerbaite gehiago garelako. Loreak *Amama*-rentzat.

Atzerrian inongo konplexurik gabe ulertzen dituzte euskarazko filmak

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.eus

Zebra-bideak, zertarako?

Ez dut gogoan eguna, baina bai lekua eta ordua: Arrasateko Otxalora Lizentziaduna kalea, goizeko hamarretan. Ni autoan sartuta, erredakziora bidean. Poliki-poliki. Kale estua da eta autoak aparkatuta daude bi aldeetan. Tentuz gidatzen. Eta derrepente, adindun bikote bat kalea gurutzatzen. Bi autorek artean agertu ziren, eta, begiratu barik, kontrako espaloirako bidea hartu zuten. Baina nola liteke? 30 metro eskuinera Arrasate Musikalen parean dagoen zebra-bidea zuten, baina, handik pasa ordez, erdi-erditik gurutzatu zuten zirkulazio handia duen kalea. Izugarria. Okerrena da ez dela lehen aldia hori ikusten dudana. Zertarako daude zebra-bideak?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Sexu harremanak dituzten emakume gizen eta beltz zoriontsuak?

Onintza Iureta Azkune
<http://goo.gl/TdI9vA>

Gabourey Sibide aktore ezagun beltz eta gizona AEBetako serie batean gizon batekin sexu harremanetan agertu da. Sare sozialetan erruz iraindu dute sexu eszena grabatu izanagatik.

Sare sozialetan batek adierazi duenez halako pertsonen ez liekete aktore gisa lan gehiago eman behar. Gorroto hitzak ugariak izan dira. [...]

Sibide Gabourey aktoreak (inguru honetan *Precious* filmaren bidez egin zen ezaguna 2009an) ez du ulertzen nola gorrotatu daitekeen maitasuna, eta hauxe esan du 32 urteko aktoreak: "Sexya eta polita sentitu nintzen, eta uste dut lan ona egin nuela". Harro eta pozik dago grabatutako eszenagatik: "Nik, neurri handiko, azal iluneko emakumea, maitasun eszena

izan dut telebistako *prime time*-an. Asko gozatu dut grabaketan, nahiz eta urduri jarri naizen".

Ashleigh Shackelford aktibista feministak gauzak argi eta garbi esan ditu: "Grazia egiten dit emakume gizen eta beltzak sexu harremanak dituztelako edo maitatuak direlako iraintzen dituztenean, eta hau esaten dutenean 'emakume gizen eta beltzak, Lurreko gorrotatuena, zatarrenak eta gizatasunik gabeak, sexua, maitasuna eta zoriontasuna aurkitzeko gai badira zertan dira gauza horiek lortu ezin dituzten emakume argalak?'. Maitasuna, sexua eta zoriontasuna pertsona argalenzako baino ez balira bezala jokatzeko da, gizarteak onartzen dituen edertasun parametroetan sartzen diren pertsonentzako. Baina neska gizen eta beltzok gauza horiez guztiez gozatzeko merezi dugu, zuei zer iruditzen zaizuen guri ez digu axola. Sexu eta maitasun harremanak dauzkagu, eta nahi duguna egiten dugu".

Sexu eszenak baino zabalkunde gehiago izan du interneteko irainen oldeak. *Daily Mail* da gaia jorratu duen egunkarietako bat.

Galdera

Anjel Lertxundi
<http://goo.gl/U5xsKA>

Durangoko Azokaren hurbilak galdera betikoak dakartzak; neguak hotza bezalatsu. Paperezko liburuak etorkizuna du?, galdetu didate enargarren aldiz. Orain hogeitau urte, Internet oraindik fardelarekin zebilenean, liburuaren beraren etorkizuna zen kezka. Orain paperezkoarenak kezkatzen gaitu nonbait. Beti zerbaite deskalabrua iragartzen jardun behar triste! Hogeitau urteotan mundua erabat aldatu da, horixe egia. Internetek gabe, galduko ginatke, galduko litzateke mundua. Benetan ohartzen gara gizarte, kultura, gure ohiturak, mundua zenbat aldatu diren sarea gure etxe gehienetan sartu zenetik?

Paradigma kultural berri batean gaude, erabat irauli da guztia. Baina, hala ere, liburuak iraun egiten du bere formato tradizionalen. Eta paperezko liburuaren etorkizunaz galdetu didan kazetariari erantzun ordez, galdetu egin diot zergatik ez duen galdetzen paperezko liburuak zer misterio daukan bertan goxo egiteko paradigma berrian ere.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otxalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otxalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otxalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otxalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK



Jon Garin anfibioen laginen bila erreka baten. | ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

ONATI

Oñatiko anfibioak eta narrastiak aztergai

Aranzadik egingo du ikerketa, Udalak emandako beka bati esker, eta txantxikuak pisu berezia izango du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko hezeguneak ezagutzen ibili da azken egun hauetan Aranzadi Zientzia Elkarte Jon Garin. Mainer Iglesiasekin batera herriko anfibioei eta narrastiei buruzko ikerketa hasi du, eta herria eta inguruak ezagutzea izan da egindako lehen lana. Oñatiko Natur Zaleak elkarte kideak izan ditu gidari. Ikerketaren emaitzak elkarre horren laguntzarekin zabaltea da asmoa, elkarlanean.

Araotz

Ikerketa horrek hiru zati izango dituela azaldu du Jon Garinek: "Lehenbizikoa izango da inbentarioa egitea; hau da, Oñatin ze anfibio eta narrasti espezie dauden eta udalerrian zein den euren banaketa ezagutzea. Bigarren zatia lan zientifikoena izango da; animalia horien egoera ikertzea izango da xedea. Hirugarrena ikerketaren berri ematea izango da, emaitzaren dibulgazioa".

Inbentarioa eremu ez babestuetan oinarrituko da. Ikerketa egiteko lortutako bekak hori lehe-

nesten baitzuen. Aranzadirendako, gainera, interes berezia du puntu horrek. "Batetik, ikerketa gehienak eremu babestuetan egiten direlako. Bestetik, herrigunetik gertu dagoen bioaniztasunaren balioa ezagutarazteko aukera emango baitu. Naturaren ikuspegi gero eta ezezagunagoa duen gizarte batean bizi bara eta azterketa hauei esker konturatu ahal izango gara herri barruan ere balio handiko espezieak daudela", azaldu du Jon Garinek. "Oñatin dauden anfibioen eta narrastien egoera zein den jakiteko, ordea, herriko lau eremu aztertuko dituzte: urbanoa, erdi urbanoa, naturala eta erdi naturala. "Askotan, pentsatzen dugu babestutako eremuetan bioaniztasun handiagoa dagoela, baina anfibio eta narrasti espezie babestu batzuk herri barruko eremuetan edo bertatik gertu bizi daitezke, eta mota edo tipologia desberdineko ingurune horien arteko konparaketa egin gura dugu", dio Garinek. Konparaketa hori egiteko espezie adierazgarri bat behar zuten, eta espezie hori txantxikua

izaten ahaleginduko dira. Bi arrazoi hauengatik: Oñatiko ikurra delako eta ikerketarako lagungarri suerta litekeen berezitasun bat agertzen duelako; ia urte osoan zehar ugaltu daiteke eta errute berantiarrenei ez die denbora ematen metamorfosia gauzatzeko eta larba horiek negu osoa irauten dute putzu edo uraskatan. Hala, txantxikuaren konparaketak atal berezia izango du ikerketaren txostean.

Bestalde, aparteko jarraipena egingo diete Aranzadirendako interes berezia duten bi espezie hauei: suge berde-horia eta *Schreiber* muskerra. "Biak daude ornodun espezie mehatxatuen zerrendan EAEn, eta Oñatin, Araotzen zehazki, ikusi izan dituztela jakinda, arreta berezia eskainiko diegu", azaldu du Aranzadiko kideak.

Udaberrian


Ikerketarako laginak non lor daitezkeen begira ibili da Garin egun hauetan Oñatiko Natur Zaleak elkarte lagunekin batera. Ikerketa bera, baina, udaberrian hasi-

ARRETA BEREZIKO ESPEZIEAK



JON GARIN

TXANTXIKUA Oñatiko eremu babestuetan eta ez babestuetan bizi diren txantxiku arrunten osasun egoera ikertu eta konparatuko dute, euren erantzun immunologikoa aztertuta. Txantxikuak atal berezia izango du Aranzadiren ikerketan.



JAVIER ALVAREZ

SUGE BERDE-HORIA EAEn Irunen bakarrik bizi da suge mota hori, baina aipu zaharretan birritan aipatzen da Araotzen ere ikusi zutela. EAEn espezie ornodun mehatxatuen zerrendan dago. Araotzen miaketa berezia egingo dute animalia hori topatzeko.



OARSOALDEA HITZA.EUS

SCHREIBER MUSKERRA EAEn ornodun espezie mehatxatuen zerrendan dago. Araotzen ikusi izan dute, baina ikertu gura dute han ez ezik Oñatiko beste eremu batzuetan ere bizi den edo ez. Iberiar penintsulan bakarrik bizi den espeziea da.

ko dela adierazi du, orduan ugaltzen dira eta anfibioak eta narrastiak. "Txantxikuek duten berezitasun horri esker, udaberrian zuzenean joango gara orain ikusitako larben guneetara, eta beste espezieak aztertzeko adi ibiliko gara martxotik ekainera bitartean. Sasoi horretan ugaltzen dira eta errazagoa izango da ikustea", dio Garinek.

Bi urtean behin

Oñatiko Udaleko Ingurumen Sailak emandako beka bati esker hasi dira Aranzadiko bi lagun horiek ikerketa hori egiten. Orain arte,

ingurumenaren gaineko ekintzetarako diru laguntzak ematen zituen Udalak. Hauxe da eman duen lehenbizikoa. "12.000 eurokoa da eta bi urtean behin ematea da asmoa, ikerketa sakonagoa eta diru kopurua altuagoa izan dadin", azaldu du Landa eta Garapen Sailako udal teknikariak, Aitor Gerenabarrenak. Datorren urteko abenduan aurkeztu eta erakutsiko dituzte ikerketa horren emaitzak. Jendaurrean erakusteko modua ez dute oraindik zehaztu, baina eskuorriak atera eta ibilbideak egingo dituztela ziurra da. Hitzaldiak egitea ere ez dute baztertzen.

Jarrera matxista "guztien" aurka egitea, "ezinbesteko"

- ▶ Genero indarkeriaren "gaitza" esparru guztietatik osatu behar dela diote
- ▶ Emakume Txokoko lapurretak eta pintadak "irmoki" salatu ditu Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE


Indarkeria matxistaren "gaitza" izeberg batekin irudikatu dute aurten, eta, izebergaren puntan erailketak eta eraso fisikoak ageri badira ere, oharkabean pasatzen diren beste adierazpen sotil batzuen aurka egitea "ezinbestekoa" dela adierazi zuten eguazten iluntzean Herriko Plazan egindako elkarretaratze jendetsuan. "Oharkabean" pasatzen diren biolentzia horien artean kokatzen dituzte, besteak beste, umore, hizkuntza eta publizitate sexista, kontrolatzea, inbisibilizazioa, mikromatxismoak, umiliatzea, gutxietea, kontuan ez hartzea eta mespretxatzea.

2015ean Espainiako Estatuan Gobernuak kontabilizatuta duen erailketa kopuruarekin ez datoz bat eragile feministak: "Gobernuak biolentzia matxistatza dituzten bikote harremanean ematen diren kasuak bakarrik baina guk amak eta umeak ere biktimatza ditugu, besteak beste. Beraz, guk 80 biktimatza gora kontatu ditugu".



Eguazten iluntzean jende asko elkartu zen Herriko Plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

Beste kritika bat ere egin zioten Madrilgo Gobernuari, askoz gehiago egin dezakeela sinistuta. Itun orokor bat aldarrikatu zuten: "Gaitz honi esparru guztietatik erantzun behar zaio. Hezkuntza aipatzen da beti eta noski, eskolatan ere landu behar da gaia, baina erakundeetan, familietan, hedabideetan eta beste hainbat esparrutan egin behar zaio aurre".



Emakume Txokoko pintada bat. | G.A.

Udalaren konpromisoa

Udalak azaroaren 25ean kaleratu zuen adierazpen instituzionalean jasotzen diren konpromisoen artean daude, besteak beste, biolentzia matxistei aurre egiteko emergentziarako plan iraunkorra berritzearena: "Borroka feministarekin dugun konpromisoa berresten dugu, emakumeenganako eta gainerako senitartekoenganako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko tresna gisa".

Erasoa Emakume Txokoari

Azaroaren 19ko gauean eraso jasan zuen Emakume Txokoak. Erasotzaileak leiho bateko kristala apurtuta sartu ziren lokalean. Zenbait gailu ostean gain, zerbitzuaren aurkako pintadak ere egin zituzten hormetan eta arbelean, euskaraz zein gaztelaniaz. *Sois lo mejor de este asqueroso mundo pero tanto feminismo ya vale, No voy a decirlo mal folladas porque es lo típico pero vosotras solas con vuestro óvulo jamás pariréis* dira mezueta batzuk: "Egiten dugun lanarean gainean halako pintada matxistak jasotzea gogorra da", dio Emakume Txokoko Maite Barreñak.

Horrez gain, Udalak "irmoki" salatu du eraso eta kezka agertu du, "batez ere", agertu diren pintadengatik: "Susto ederra izan da, oso gertaera itsusia. Udaletik salaketa jarri dugu eta aste honean bertan pasako gara Ertzaintzatik behar diren dokumentuak sinatzera", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

NIRE USTEZ



OSCAR RODRIGUEZ

Azala eta mamia

Sare sozialetan arrakastatsua den Owen Jonesen teoriak ez dira berriak, inondik inora. Baina interesgarria da oso Britainia Handiko historialari gazte honek esaten eta idazten dituenak irakurtzea. Jonesek esaten du, azken hiru hamarkadetan pertsona bakoitzaren jarrera individualistari garrantzia ematen, hainbat sektore politiko, ekonomiko eta mediatikok lortu dutela gizartearen zati handi baten talde edota klase kontzientziarekin bukatzea. Eta kontzientzia horrekin bukatu denez, berdinen artean egiten dugu gerra, ezberdintasunari aurre egin ordez.

Hori dela eta, arazo baten aurrean, langile askok beste langileei begiratzen diegu erantzukizun bila; murrizketak egiten direnean, langileok elkarri "alferrak" deitzen diogu; iruzur-sozial kasu baten aurrean, sutan jartzen gara batez ere etorkina baldin bada protagonista, baina beste iruzur kasu batzuei ez diegu jaramonik egiten... Handiegiak dirudite! Owen Jonesen pentsamenduak ez dira berriak. Baina egungo testuinguru ekonomiko-sozialean, berria -eta onuragarria- litzateke azaleko kritikak egin baino gehiago, gertatzen ari den mamira joatea. Adibidez, pentsio sistema arriskuan badago, langileok ezin dezakegu laguntza sozialak kobratzen dituzten horietan arreta jarri; ez ditut ikusten euren yate pribatutik itsasora salto egiten, bainujantzi horiarekin igelarena egiten.

"Berdinen artean egiten dugu gerra, ezberdintasunari aurre egin ordez"

Askotariko ekintzak hiesaren aurkako eguna dela eta

Abenduaren 1ean da Hiesaren Aurkako Eguna eta aurten ere hainbat ekintza antolatuta dira: argazki lehiaketa abenduaren 10era arte, informazio-gunea abenduaren 1ean eta 3an Seber Altuben eta *Besarkadaterapia* tailerra abenduaren 2an Kulturaten. Argibide gehiagorako: www.sexologiazerbitzua.com.

Arratoien ugaritzearen aurkako "esku-hartze berezia" abiatu dute

J. B. | ARRASATE

Udalak arratoien aurkako "esku-hartze berezia" hasi zuen azaroaren 20an. Urrira bitartean herritarren 126 kexa jaso dituzte, eta horregatik abiatu dute ekintza plan berezia. Hilaren 20an hasi ziren eta gaur, hilak 27, eta abenduaren 11n eta 18an, 120 kilotik gora pozoi zabalduko dituzte auzoetako arratoi-zoko eta lurpeko kutxatiletan.

Udazken lehorra eta beroa

Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak (OZMA) batzordeko zinegotzi Oscar Garcíaren arabera, azkenaldian gora egin dute "nabarmen" arratoiengatik jasotako kexek: "Urtean herritarren 35 eta 45 kexa artean jasotzea izan da ohikoa, baina azken lau urteetan

120-140 ingurura areagotu da kexen kopurua". Garcíaren arabera, urtarrilean igarriko dira lau aste horietan egingo diren esku-hartze bereziaren ondorioak. Udazken sasoi lehor eta beroak izan ei du eragina arratoien ugaltzean. Baldintza klimatologiko horietan laburtu egiten da arratoien hazkuntza zikloa, normalean 40 eguneko den kumaldia, eta 28 egunera laburtu da.

Halaber, Polmetasa lantegiaren hondarretan fokua atzeman dute eta arreta berezia eskainiko zaio ingurutik heda litekeenari. Gainera, erabiliko den pozoiak istripurik eragin ez dezan, gunea bermatu eta sarbidea itxiko da. Aurrera begira, estolderiaren eta kutxatilen konponketak eta ordezkatzeko lanak ere egingo dira.

Bikote-haustura baten ostean familia osasuntsua lortzeko gomendioak abenduaren 2an Kulturaten

Udaleko Gizarte Zerbitzuek gurasoei zuzendutako *Banaketa ostean, erantzunkidetasunez familia osasuntsu baterantz* izeneko hitzaldia antolatuta dute abenduaren 2rako, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:00). Bikotearen haustura baten inguruan familiendako dauden baliabideen gaineko informazioa ematea eta erantzunkidetasunaren gainean hausnartzea ditu helburu eguazteneko hitzaldiak, eta Agipase elkarteak Julia Rodríguez psikologoa eta Oihana Arruti gizarte langilea izango dira hizlariak.



JOKIN BEREZIARTUA

Bueltan da Gabonetako argiteria

Abenduaren 4tik urtarrilaren 7ra led teknologiarako 50 argi apaingarri piztuko ditu Udalak alde zaharrean, herriari "Gabon giroa" emateko; auzoetarako Udalarenak diren argi apaingarriak erabiliko dira. 2007a ezker ez da halako argi kopururik jarri, eta Udal Gobernu berriak erabaki du ekimena berreskuratzea. 20.000 euro da aurrekontua.

'Black Friday' eguna ospatuko du gaur Ibai-Arte elkarteak, %15erainoko deskontuak eskainita

Ibai-Arte elkarteak eskaintza bereziekin jarraitzen du, tokiko merkataritza bultzatu eta bezero arrasatearrak fidelizatzen "eskaintza onenekin". *Black Friday* deritzon ekimena ospatuko dute gaur, hilak 27: "Gabonetako erosketei hasiera emateko jai handia izango da. Saltoki parte-hartzaileek bereizgarri bat izango dute eta %15erainoko deskontuak egingo dituzte produktu guztietan edo produktu zehatz batzuetan", diote. Ibai-Arteko 44 saltokik egin dute bat *Black Friday* egunarekin.



luz Biterin egin zen ekitaldi nagusia, *Zu ta Gar* izenekoa; sua eskuz esku pasa zuten euskara ahoz aho zabaltzeko. | IRATI GOITIA

Euskararen Egunerako egitarau zabala prestatu du euskalgintzak

Abenduaren 3an hezkuntza arloko eragile guztiek argazki erraldoiak aterako dituzte goizean eta kultura taldeen eskutik festa giroa izango da arratsaldean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko Euskalgintzak egitarau zabala antolatu du Euskararen Eguneraren harira, *Euskarak 365 egun: erabili, erabizi* lelopean. Aurtengo nobedadea da Leintz Eskola Kirolak bat egin duela ospakizunarekin. Bihar, hilak 28, Mojategira helduko da Euskararen Eguneko aldarrikapena: zozketak, musika eta euskal giroa izango dituzte goiz osoan zehar. Abenduaren 2an jarraituko du egitarauak: *Euskal Harriaren ABDak* izeneko film kolektiboa ikusteko aukera egongo da Kulturaten, 18:30ean –filmaren gaineko informazio gehiagorako ikus 12. orria.

Hezkuntza eta kultura taldeak

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, bi ekitaldi izango dira. 11:30ean, herriko hezkuntza zentro guztietako –Arizmendi, Arrasate Herri Eskola, Arrasate Institutua, AEK, Udal Euskaltegia, HHI (EPA) eta MGEP– ikasleak eta irakasleak Herriko Plazan, Iturripen eta San Isidron elkartuko dira argazki erraldoiak ateratzeko; horretarako Artgazki elkartearen laguntza izango dute.

Arratsaldean, 19:00etatik aurrera, herri osora zabalduko da gonbita herriko kultura taldeen bidez. Kalejira Seber Altubetik Herriko Plazara, soka dantza eta Altutik! bertso eskolako saioa izango dira. Amaizteko, Euskararen Eguneko manifestua irakurriko dute.

MARIA UBARRETXENA | ARRASATEKO ALKATEA

"Elebidunak diren zinegotzietan esfortzu bat eskatu diegu euskaraz egin dezaten"

Abenduaren 13ra bitartean dago martxan *Arrasateko Udalarekin ere euskaraz* kanpaina, euskalduna den horri harreman instituzionalean ere euskaraz egitera animatzeko.

Beharrezkoak dira halako kanpainak?

Bai. Euskararekiko jarrera ona izan arren ez dugu behar beste erabiltzen, errazegi jotzen dugu gaztelaniara. Gure hizkuntza gutxiengoan egonda, horrelako esfortzurik ez badugu egingen galtzen joango da. Euskaraz egin behar dugula gogora ekartzea ezinbestekoa dela deritzot.

Udalean euskaraz egiten duzue lan?

Eguneroko funtzionamenduan bai. Egia da agintaldi berrian badaudela bi zinegotzi euskaraz ez dakitenak eta horrek eragin du gaztelania aurreko agintaldian baino presentago egotea, bereziki osoko bilkuretan. Ardura puntua badugu gai horretan.

Nola egingo diozue aurre horri?

Bozaramaileen Batzordean etengabe irteten den gaia da. Aldaketa batzuk egongo dira; adibidez, mozioak gaztelaniaz ekarri arren euskarazko laburpen bat eskatu da idazkariak gero euskaraz irakur dezan, ebazpen guztiak euskaraz irakurriko dira eta elebidunak izan arren gaztelaniara jotzen duten zinegotzietan esfortzu bat eska-



tu zaie euskaraz egin dezaten. Batzordean behintzat onartu zen hori guztia, orokorrean kolaboraziorako presuntasuna badagoela uste dut.

2013an onartu zen azkenengo Udaleko euskararen erabilera plana. Betetzen ari zarete?

Euskara teknikariak dio euskara planaren datuak oso onak direla, datuok duela urte asko bizi zen egoerarekin konparatzen direlako. Aldaketa nabaria da eta hori horrela da atzetik lan handia egin delako. Edozelan ere, oraindik euskararen %100eko normalizaziorako iristeko lan handia dago egiteko, bidea luzea da oraindik. Horren kontziente gara eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu euskararen erabilera plana bete dadin.

'Zuhaitzak', proiektu bozkatuena Gorostizako parkea estaltzeko

J.B. | ARRASATE

Udalak herriko jolas parkeak estaltzea gura ditu umeez eguraldi txarrarekin ere non jolas-tu izan dezaten. Gorostizakoa izan da lehena eta prozesu parte-hartzaile baten bidez aukeratu da nola estaliko den; arrasatearrek sei ereduaren artean aukeratu behar izan dute estalki mota, Erguingo Herri Eskolan, BAZen zein Udalaren webgunean botoa emanda. 250 arrasatearrek eman dute botoa eta *Zuhaitzak* proiektua izan da bozkatuena, 130 botorekin.

Hortaz, Biark Studio enpresa arrasatearrek estaliko du Gorostizako parkea. Proiektua idazteko kostua 14.000 eurokoa

izan da eta exekuziorako 174.907 euro aurreikusten dira; azken kopuru hori behin-behinekoa da, kopuru zehatza proiektua idazterakoan jakingo da eta.

Partaidetzarekin "oso pozik"

Udala "oso pozik" dago erantzunarekin: "Parte-hartze prozesu ezberdinen bidez, arrasatearrek herri proiektu eta eginkizunetan erabakitze ahalmen handiago izatea ahalbideratu nahi dugu. Arrasatearrendako eta udalerrindako onuragarriak izango diren proiektuak herriarekin batera gauzatu nahi ditugu, elkarrekin, gure herria eraikitze", gaineratu du Maria Ubarretxena alkateak.

Abenduaren 11ra bitartean herriko auzo guztietan jostailuak batuko ditugu truke merkatura begira

Hasi gara Jostailu Truke Merkaturako jostailuak batzen. Abenduaren 11ra bitartean herriko auzo guztietatik pasako gara jostailuak batzeko eta abenduaren 12an Azoka plazan egingo dugu Jostailu Truke Merkaturako, 11:00etatik 13:00etara. Aurten, gainera, jostailuak sortzeko aukera ere egongo da bertan. Erosketarik egin gabe, jostailu ezberdina eta gustukoa izateko aukera paregabea eskaintzen dizuegu. Parte hartu!

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE



MIREIA BIKUNA

Ekin, lanean jarraitzeko asmoz

Elkartearen 20. urteurrena ospatzeko ekitaldian argi geratu zenez, lanean jarraitzeko asmoz daude Ekinokoak: "Elkarteak ez luke beste 20 urte iraun behar, horrek esan gurako lukeelako gizarte parekide baten bizi garela, emakumeen zein gizonen eskubideak bermatuta". Ekitaldian, elkartearen irudi berria erakutsi zuten, besteak beste.

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

zenbaki 
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.

• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.

• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Murua eta Egiguren, txapelaren bila domekan

Gipuzkoako txapelketako kadete mailako finala jokatuko dute etzi Añorgako bikotearen aurka

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Murua eta Egiguren pilotari arrasatearrek partidu garrantzitsua jokatuko dute domekan Uarkape pilotalekuan, kadete mailako Gipuzkoako bikote onenak izateko finala jokatuko dute eta Añorgako Orbegozoren eta Olidenen aurka. Pilota jaialdiari hasiera emateko Andoaingo Alberdik eta Azpeitiko Iriartek elkarren aurka jokatuko dute, 11:30ean, eta ondoren hasiko da final handia.

Joan den aste bukaerako finalerdietan Hernaniko bikotea hartu zuten mendean Egigurenek eta Muruak (22-10). Bi pilotari arrasatearrek oso ondo moldatu ziren elkarren artean, eta, atzean zein aurrean lana ederto eginda, arazo handirik barik lortu zuten garaipena.

Bengoa eta Iturriotz

Egiguren eta Murua ez dira izan Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkatu diren pilotari arrasatear bakarrak. Bengoa eta Iturriotz ere maila altua ari dira ematen, eta gazte mailako finala jokatuko dute abenduaren 17an, oraindik zehazteke dagoen lekuan.

Bestalde, Santamas txapelketari begira lanean dabil Arrasate Pilota Elkartea. Harrobia lantzeko txapelketa da urte amaieran ospatzen dena; hau da, herriko pilotarien arteko txapelketa da. Haurrak eta gaztetxoak izaten dira protagonista txapelketa horretan, eta aurrean herriko 50 bat pilotari elkarrekin espero dute antolatzaileek. Abenduaren 18an jokatu da, Uarkapen bertan.



Atxabalpeko alboko zelaia urtarrilerako egongo da gertu

Udalaren eta Eibarren arteko akordioari esker, Atxabalpeko alboko zelaian belarra jartzen ari dira. Eibarrek erabiliko duen bigarren zelaia izango da Atxabalpe albokoa eta 80.000 euroko inbertsioa egingo dute bertan. Gainera, zelai nagusiko erreka ondoko harmailak botatzen ari dira, ez duelako legea betetzen. Asmoa da lanak abenduan bukatzea eta urtarrilean Eibarrek bigarren zelai horretan ere entrenatu ahal izatea.

Neila Jebali

Luxury & Fashion dendako arduraduna

"Poltsiko guztiendako produktuak ditugu"

Lekuz aldatu dute Luxury & Fashion denda. Lokal handiago bat dute orain, 102 metro karratukoa, eta marka berriak ere sartu ditu Neila Jebali dendako arduradunak.

Nolako eskaintza daukazu dendan?

Askotariko produktuak ditut: arropak emakumezkoendako eta gizonzkoendako, bai ezkontzetarako eta baita sport bezala joateko ere; buruko apaingarriak; bitxiak; poltsak; zapatak... Denetarik daukat. Duela 12 urte zabaldu nuen denda Arrasateko Iturriotz kalean, bitxiak hasi nintzen orduan, eta pixkanaka-pixkanaka arropa eta produktu gehiago sartzen hasi nintzen, lokala txiki gelditzen hasi zitzaidan. Orain, espazio zabala daukat eta poltsiko guztiendako produktuak ditugu.

Zein marka dituzu dendan?



Gizonzkoendako interesgarria iruditzen zaidan marka bat sartu dut; prezioz oso ondo dago eta dotore edo sport joateko balio du: Religion da marka, Londreskoa.

Hainbat marka ditut: Italiako Morgana; Kataluniako Dictions; Espainiako Javier Simorra; Greziako Axel markak ere arropa eta zapata oso poltsikoak ditut, gainera, ez da

markako produktuak ere baditugu; Utoqia markako bitxiak ere badauzkagu eta Click Clack lepokoak ere bai. Etxe berri bat ere sartu dut orain, Londresko Religion. Beraz, marken aukera ugari daude.

Gizonzkoendako eskaintza ere handitu egin duzu, ezta?

Bai. Gizonzkoendako zapiak, poltsak eta Plata de Palo markako eskumuturrekoak bakarrik nituen lehen. Orain, lokal handiago batera etorrita, gizonzkoendako interesgarria iruditzen zaidan marka bat ere sartu dut; prezioz oso ondo dago eta dotore janzteko edo sport joateko balio du: Religion da marka, Londreskoa.

Pozik zaude lokal berrian?

Bai, oso pozik nago eta eskerrak eman nahi dizkiet nire aitagarrebari, amaginarrebari eta familia guztia-ri. Asko lagundu didate.

Bezeroei zerbait esan nahi diezu?

Etor daitezela dendara beldur barik, prezio askotako produktuak ditugu eta ni hemen egongo naiz bezeroei laguntzeko eta aholkatzeko. Bezeroak etxean bezala sentitzea nahi dut, beraz, sar daitezela konpromiso barik.



Egiguren pilota astintzen -Murua atzean-, finalerdian. | IMANOL SORIANO

Arratiaren aurka jokatu du Arrasate Rugby Taldeak

J.B. | ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeak Arratiako ZK RT taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, etxetik kanpo (16:00). Lidergoa sendotzeko aukera ederra izango dute Igor Isasiren mutilek; izan ere, Arratiako taldea azken bigarren sailkatua da eta orain arte Arrasatek erakutsi duen nagusitasuna ia erabatekoa izan da. Denboraldi amaiera aldera helduko dira partidu zailagoak.

Bestalde, joan den astean egin zen, Arrasate tabernan, bi aldeetatik jantz daitekeen ARTren kamisetaren zozketa. Sergio Frutos arrasatearrek irabazi zuen saria. Zorionak!

ZALDIBAR

EMAITZAK

Betrayer-Sonografos	1-3
Aldatz-Dribling	6-4
Lasagabaster-Elorra JMA	1-1
Monte Taberna-Olympiakojos FC	7-0
Abokajarro-Rayo Makabro	6-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Monte Taberna	6	2
2 Aldatz	6	2
3 Lasagabaster	4	2
4 Dribling	3	2
5 Abokajarro	3	2
6 Sonografos	3	2
7 Elorra JMA	1	1
8 Betrayer	0	2
9 Olympiakojos FC	0	1
10 Rayo Makabro	0	2

PARTIDUAK

AZAROK 28, ZAPATUA	
10:30	Olympiakojos FC - Elorra JMA / Sonografos
11:30	Aldatz - Sonografos / Elorra JMA
12:30	Lasagabaster - Monte Tab. / Aldatz

AZAROK 29, DOMEKA	
10:30	Dribling - Rayo Makabro / Olympiakojos FC
11:30	Abokajarro - Olympiakojos FC / Dribling
12:30	Betrayer - Elorra JMA / Abokajarro

LUXURY & FASHION
by Neila Jebali

Kontzeziño 2
Arrasate

★★★★

943 08 32 57 • 670 26 44 50
luxuryfashion@yahoo.es
www.luxuryandfashion.es

f t i



Aktoreak taula gainean, zapatuko emanaldian. | IMANOL SORIANO

Asteburu honetan izango dira zarzuelaren azken saioak

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Aurreko asteburuan estreinatu zuen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa *La alegría de la huerta* zarzuela.

Urduritasun handiko emanaldia izaten da lehena, baina ikusleak eta aktoreak oso gustura gelditu ziren estreinaldiarekin.

Koru eta dantzariekin asmatu egin dute, Tere Gonzalez zuzendariaren hitzetan. Gainera, dekoratuak bideo proiektzioen bitartez egin dituzte eta "oso efektu polita" egiten du.

Azkeneko saioak

Sarrerak ez ziren agortu, baina jende asko egon zen lehen bi saioe-

tan. Gonzalezek, hala ere, dio bigarren asteburuak arrakasta handiagoa izaten duela, ahoz ahokoari esker.

Hala ere, zailtasun batzuk egoten dira; izan ere, "ostiralean aktoreak lanetik datoz, nekatuta". Zapatuko azken saioa, ordea, politena izaten dela dio.

Sarrerak eskuragarri

Datorren urtean *Soto del parral* zarzuela prestatu nahi du zuzendariak.

Dena den, gaurko eta biharko saioak ikusi nahi izanez gero, sarrerak www.arrasate.eus-en edo antzokiko leihatilan erosi daitezke oraindik.

'Euskal Harriaren ABDak' emango dute Kulturaten

I.D. | ARRASATE

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatuta, abenduaren 2an, eguaztena, *Euskal Harriaren ABDak* filma eskainiko dute Kulturateko areto nagusian, arratsaldeko sei eta erdietan.

Zazpi probintzietako zinemagileek, nor bere aldetik lanean, ekoiztu dituzten 26 film laburrek osatzen dute filma. Euskal alfabetoko hizki bat egokitu zitzaion bakoitzari, eta, hortik abiatuta beldur, zientzia fikziozko edo fantasiako film labur bana banatu dute.

Besteak beste, teknologiak bahitutako etorkizunak eta denboran izoztutako Euskal Herria erakusten dituzte filmak. Fantasiako eta beldurrezko istorio ugari kontatzen dituzte, baina denak dira euskarazkoak, euskal elementuetan oinarritutakoak eta Euskal Herrian ekoiztutakoak.

Estreinaldia Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean egin zen eta aste bat geroago zazpi probintzietan erakutsi zuten. Orain, hainbat herritan ari dira ematen *Euskal Harriaren ABDak*; abenduaren 2an Arrasaten ikusi ahal izango da.

Artea eta kultura, mundua aldatzeko, 'Fair Saturday' egunean

I.D. | ARRASATE

Fair Saturday egunaren bueltan, Arizmendi eta Txantxiku ikastolek arte eta kultur jarduerekin osatutako ekitaldia egingo dute bihar, zapatua.

Egun hori mundua aldatzeko nazioarteko eguna da, eta artearen eta kulturaren bitartez bultzatu nahi da aldaketa hori. Euskal Herrian ere laguntzen da horretan; izan ere, *Fair Saturday* eguna ospatzen den bigarren urtea da hau. Hasi zenetik, azaroko azken larunbatean ospatu izan dira egun honetako ekitaldiak, eta bertan jasotako dirua gobernu kanpoko erakunde batentzat izan ohi da.

Garapen globala

Arizmendi Ikastola Mundukide erakundearekin arituko da

elkarlanean. Erakundearen lana hegoaldeko herrien garapena bultzatzea da, baina euren ikuspegia globalagoa da. *Fair Saturday* egunak bat egiten du Mundukidek dituen helburuekin.

Egitaraua

Bihar ospatuko da, Kulturaten, Arizmendi Ikastolak antolatutako jaialdia. 17:30ean hasiko da. Musikarekin dago lotuta egitarauaren zati handi bat; txalapartarien, trikitilarien eta piano-joleen saioak eskainiko dira. Horrez gain, ikastolako bertsolariak eta dantzariak eta abesbatzaren emanaldia ere egongo dira.

Sarrera doan da; edozelan ere, nahi duenak ekarpen ekonomikoak egin ditzake.

2016ko Aratusteetarako kartel lehiaketaren oinarriak ezagutzera eman dituzte

Abian da Aratusteetarako kartel lehiaketa eta Arrasateko Udalak aditzera eman ditu bete beharreko oinarriak. Entregatzen diren lanek originalak izan beharko dute eta formatuak nahitaez bertikala izan behar du. Teknika, aldiz, librea da, baina derrigorrez agertu beharko du *2016 Inauteriak Arrasate* testuak. Lanak abenduaren 18rako entregatu beharko dira, 19:00ak baino lehen, BAZen, eta irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Oinarri guztiak www.arrasate.eus web orrian kontsulta daitezke.

FINANTZAKETA: 

AZKENEKO ERAIKINA

ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak

943 31 68 68

www.sukia.com

2x
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak




Emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsi dute azaroaren 25ean

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Martxanterak talde feministak antolatuta, akelarrea egin zuten plazan eguaztenean, azaroak 25, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira. Bertan, indarkeria matxistarekin lotutako esaldi, topiko edo objektuak erretzeko ekitaldia egin zuten. Talde feministako Luciana Alfaro azaldu du ekintza sinboliko horren asmoa "sorginek izandako papera aldarrikatzea" izan dela, "emakume indartsu eta ahalduaren papera", hain justu. Talde bereko Ainhoa Narbaizak gaineratu du "egun honen bueltan elkarretaratze isilak egin izan dira; guk horri buelta eman nahi izan diogu, amorruta ateraz bai, baina kalejira giroan".

Egun berean, goizez, Ipintza institutuan elkarretaratzea egin zuten, eta atzo, eguna, Beldur Barik ekimeneko film laburren emanaldia izan zen Zabalotegi aretoan, Martxanterak-ek eta Udalak antolatuta.

2015eko datuak

Bergarako Udalak aditzera eman duenez, herrian emakumeenganako indarkeria kasuekin

lotutako 33 interbentzio egin dituzte gizarte zerbitzuek urte hasieratik azarora arte.

Horien baitan, zortzi kasu berri izan dira. Indarkeria pairatu dutenen %75ak indarkeria psikologikoa jasan du, %62,5ak fisikoa, eta %25ak sexu erasoak. Adinari dagokionez, %37,5ak 31 eta 40 urte artean ditu, %25ak 18 eta 30 artean; jatorriari begiraturaz, %62a Euskal Autonomia Erkidegokoa da, %12,5a Espainiako erkidego batekoa eta %25 da beste estatu batekoa.

Erasotzaileei dagokionez, biktimaren bikotekideak edota bikotekide ohiak izan dira kasuen %75ean. Horien artean, %50a Euskal Autonomia Erkidegokoa da jatorriz, %25 beste autonomia batekoa eta %25 beste estatu batekoa.

Indarkeria kasuren baten biktima izan direnei erasoak sortutako arazoei aurre egiteko, Udalaren eskutik laguntza psikologikoa jaso dute hamalau emakumek; horietatik bost, kasu berriak izan dira. Emakume batek alojamendu laguntza behar izan du, eta beste hamahiru laguni aholkularitza juridikoa eskaini diete.



Eguazteneko akelarrea. | JOSU BILBAO

NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Hortografia eta izkuntza kakanaztia

Klaru laga nahi dot desastre bat naizela hortografiarekin eta sekula ez dotela *feeling*-ik euki izkuntzekin. Orri, sumau nere izakera sinplifikatzailea eta entendidukoze zer kakanazte daukaten. Musika ingelesez entzuten dot, telebista eta liburu asko castellanos eta lan eta relazio-nau geienetan euskaraz... bakoi-tza bere arau eta hortografiakin... demasie. Wasapez be ederra jergia... en plan codifikeixon. Askotan veste izkuntzetako itz eta arauak nazten ditut, pero

dontworry, espero dot egunen baten, ilustreren batek h-ak, v-ak eta horrelakoak desageraraztea.

Ikerketek esaten dute 2 hizkuntza ikasten dituzten umeez emaitza hobeak dituztela beste gaietan ere, badirudi burmuina lantzen laguntzen duela. Hori jakinda, munduko filologo honek bilduko nituzke eta hizkuntza erraz bat asmatzeko esango nieke, sinplifikatua. Gero, eskoletan bakoitzaren ama-hizkuntza eta hizkuntza berri hori erakutsiko nuke. Horrela pertsona guztiak ulertuko ginatete. Gainera, ikasketak ordu batzuk libratuko ziren (ingeles eta Frantsesekoak adibidez), beste gai garrantzitsu batzuei eskaintzeko aukerarekin: gorputz hezkuntza, musika... bueno, musika ez, beste komunikazio mota bat da, hizkuntza propioarekin... fuck... ke lio... retiro todo lo dicho. PD: korrektorea estropeau jat.

HONDAKINEN BILKETA SISTEMARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

12.000 bergararretik gora daude deituta hondakin biletaren galdeketarako

Goizeko bederatzietatik iluntzeko zortziak arte botoa emateko aukera egongo da herriko bost tokitan

M. T. | BERGARA

Azaroaren 29an, etzi, hain zuzen, egingo dute hiri hondakin biletaren sistemari buruzko herri kontsulta Bergaran. Bertan, herritarrek erabakiko dute ea gaur egungo sistemarekin jarraitu nahi duten edo nahiago duten bosgarren edukiontzia sistemara aldatzea egitea. 12.344 herritarrek izango dute kontsulta horretan botoa emateko aukera.

Pasa den asteko egubakoitzean eta zapatuan, herri galdeketarako botoa aurretiaz emateko aukera zabaldu zuten, eta 419 bizilagunek botatu zuten.

Botatzeko aukera izango dute 1997ko azaroaren 29an edo lehenago jaiotako herritarrek edo Bergaran 2015eko urriaren lehen edo lehenagotik errolatuta daudenak. Nortasun agiria, pasaporte edo gidabaimen originala aurkeztu beharko da.

Ordutegia eta lekua

Domekan 09:00etan zabalduko dituzte botatzeko lekuen atea, eta 20:00ak arte izango da bertan botoa emateko aukera.

Lekuei dagokionez, hamar mahai izango dira, guztira,

herrian, bost tokitan banatuta: frontoian lau, Matxiategin bi, Martokoa bi eta bana Osintxun eta Labegaraietako Ibarra kalean.

Botoa emateko guneak ohiko hauteskunde politikoetarako erabiltzen diren berak izango dira: Matxiategikoa Boni Laskurain pasealekuko 15. zenbakian dagoen San Martin Herri Eskolaren eraikinean egongo da; Osintxukoa, Osintxu kaleko 14.ean; Martokoa, Martokoa kaleko 22.ean; eta Labegaraietako, berriz, Ibarra kaleko 8. zenbakian.

Mahai bakoitzean hiru pertsona izango dira, mahaiko presidentea eta bi bokal. Guztira, beraz, hogeita hamar pertsona arituko dira mahaian lanean;

batzuk udal langileak eta beste batzuk, berriz, herritarrek.

Galdera eta bi aukerak

Herri galdeketan honako galdera hau planteatuko dute: *Bergarako udalerrian, zein kontsideratzen duzu hondakinak gaika biltzeko erarik egokiena?*

Aukerak, berriz, bi: bata, boto-txartel laranjaduna, *Atez atekoa*, eta beherago, hizki txikiagoz, *Gaikako biletaren atez ateko sistemarekin egitea*. Beste aukera boto-txartel zurian idatzita dago, eta honako hau dio: *5. edukiontzia*, eta txikiz, *Gaikako biletaren edukiontzien bidez egitea*.

Lehen aukerak irabazten badu, gaur egungo biletaren sistemarekin jarraituko dute bergararrek: errefusa eta organikoa atez ateko sistemaren bidez jasoko dute, eta gainontzeko hondakinak –papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira–, berriz, edukiontzien bidez.

Eta bigarren aukera gailentzen bada, hiri hondakin guztiak edukiontzien bidez batuko dira. Hala, bost edukiontzi egongo dira, eta errefusarena eta organikoa-rena txartelarekin zabaldu beharko dira.

DATUA

419

HERRITAR

419 herritarrek eman dute aurretiazko botoa pasa den aste bukaeran udaletxean.

PEUGEOTEKO TAILER OFIZIALA BERGARAN

ESKAITZA BEREZIA PEUGEOTEKO BEZEROENDAKO



PEUGEOT ETORMOBIL




OLIOA ETA OLIOAREN FILTROA ALDATZEA

69€ + 30 euroko deskontu-bonua

(BEZA BARNE) (BIGARREN ERREBISIOAN TRUKATZEKO)

Eskaintza baliagarria abenduaren 31 arte. Bonuaren irautze-data: fakturaren datatik 13 hilabetera.



30€ko BALIOA DU

Fakturaren datatik 13 hilabete baino lehenago kontsumitzeke.

SALMENTA OSTEKO ZERBITZUAK

- Zerbitzu ofiziala integrala ordezkatuta dauden marka guztiendako.
- Mekanikari kualifikatuak prestakuntza espezializatu eta eguneratuarekin.
- Harrean eta bezeroen arretan ordutegi zabala partikularrendako eta enpresendako.
- Ordezkatze-autoen flota propioa daukagu.
- Auto-garbitoki automatikoa doan.
- Karrozeria-zerbitzuak.
- Multimarka zerbitzu azkarrak.
- Lehenagotik arreta profesionalendako eta enpresendako.
- Autoak jasotzea eta entregatzea.



OLABARRENA Z/G

20570 BERGARA

T.: 943 76 33 44

www.etormobil.com

Iritziak jaso ondoren, herritarrek dute hitza

- ▶ Zeresana duten alde guztien ikuspuntua jaso du GOIENAK
- ▶ 12.344 bergararrek dute domekan botoa emateko eskubidea

1. "Herritarren nahia errespetatuz, kontzientziatuz eta edukazioz ezarritakoa. Debagoienan mota desberdinetako sistemak ditugu, eta denak %5 gaikako bilketa mailan daude. Ez dago diferentzia nabarmenik sistemen eraginkortasunean. Pertsonok eragiten dugu sistemaren emaitzak onak izatea. Gaur egun, Arrasaten 5. edukiontzia-ekin emaitza onenariokoak lortzen ari dira".

2. "Edukiontzien bidez. 2011. urtean, edukiontziekin, Bergarak tasekin autofinantzatzen zuen hondakinen bilketa zerbitzua. Atez ateko sistemak 2012tik 2015era bitartean 1,3 milioi euroko defizita sortu du Udalean, nahiz eta tasak igo; hau da, Udalak subentzionatzen dihardu, 1,3 milioi eurotan, hondakinen bilketa. Ez da betetzen zaborren inguruko oinarritzko printzipioa, autofinantzazioa, sortzen duenak

ordaintzea. 5. edukiontzia-ekin, gutxienez 230.000 euro aurreztea espero dugu, eta 2016an, beharbada, gehiago. Gainera, atez ateko bilketa sistema duten herriek, beraiek ordainduko balute sistema horrek duen benetako kostua, gure zerbitzua are gehiago merkaturiko litzateke; izan ere, gaur egun, Debagoieneko herriak ari dira atez ateko sistema duten herriak finantzatzen".

3. "Garbi dago 5. edukiontzia-ekin hiri hondakinen bilketa egiteko pertsona gutxiago behar direla, baina 2016. urtean aurretiko diren 230.000 euroak komertzioan, kulturean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan... inbertituko ditugu, modu horretan lanpostu berriak sortuz beste arlo batzuetan. Atez ateko sistemaren aldekoek lanpostuekin argudiatzea bilketa sistemaren gaian, maltzurkeriaz jokatzeari iruditzen zaigu".



JUAN JESUS ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

4. "Sinplifikatzean, merkatu egiten da. Esate baterako, aurten, edukiontzi txikietan bakarrik, 50.000 euro ordaindu da. Edukiontzien bilketa kamioiekin bizkorrago egiten da; edukiontzien atek albotan egonik, jasotzea errazten du, trafiko arazo gutxiago sortuz eta ingurugirora karbono dioxido gutxiago isuriz.

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Azken urteotan horrenbeste gaiztotu den gaiari buruz duten iritzia emateko aukera dute domekan bergararrek. Aukeran jarri dizkiete hiri hondakinak batzeko bi sistema. Eta bien gainean ahalik eta informaziorik osoena, praktikoa eta orekatuena ematen ahalegindu da GOIENA datozen orri hauen bitartez. Horretarako, aurreko legealdian alkatetzan

egon zen eta, ondorioz, indarrean dagoen sistema ipintzeko ardura izan zuen EH Bilduri, alde batek, eta gaur egun agintean dagoen alkateari galdera berberak planteatu dizkiegu. Eta hitza izan dute, baita ere, Bergarako udalbatza osatzen duten Irabaziko zein PSE-EEko –azken hau Udala gobernuan ere badago– ordezkariak eta hiri hondakinen gaineko bestelako taldeek ere.

Jasotze egunak gaur egungo berdina izango lirateke, eta edukiontzia automatikoki garbituko lirateke".

5. "Gutxien zikintzen duena. Hondakinak edukiontzietan sartzerakoan ez dira kalean zintzilik gelditzen, euriaren, haizearen, animalien edo gaueko bandaloen menpe. Edukiontzi bidezko bilketa sistemarekin, kuboak ez dira egunetan zintzilikaturik geldituko".

6. "Herritarrendako, 5 edukiontzia da erosoena. Modu horretan, norberak aukeratu dezake noiz atera hondakinak, egunetan zehar etxean izan gabe. Udalak txipa ezarriko die edukiontziei, erabileraren jarraipen informatikoa egiteko, eta honek informazioa emango digu, herritarren heziketaren gaineko lanketa non eta nola egin behar den jakin ahal izateko".

7. "Helburuak izan behar dira, zabalentzari gabe. Edukiontzia-ekin jarri gero, hasierako helburua gaur egun ditugun emaitzak lortzea izango litzateke, eta, behin horiek lortuta, beti hobetuz joan behar dugula argi dago. Poliki-poliki, herritarren laguntzarekin herria eraikitzea guztion lana izan behar da.".

8. "Herritarrekin landuz egin beharko da, arazoa non dagoen aztertuz eta ekintza zuzentzaileak ezarrituz. Txipak emango digun informazioak –maiztasuna, ordutegia, hondakinen sailkapena...– arazoa non dagoen zehazten lagunduko digu. Ondoren, inguruko pertsonekin elkartu eta landu beharko da gaia, kontzientziatuz eta beharrezko heziketa emanez. Helburua posible da, herritar guztion parte hartzearekin. Horrela egiten dute Arrasaten eta emaitza oso onak lortzen ari dira; zergatik ez Bergaran?".

Bergarako Udala

azaroak **29** 09:00 - 20:00

herri kontsulta
Bergara eraikiz

AZAROAK
29
ORDUTEGIA 09:00 - 20:00

ZUREA DA ERABAKIA
PARTE HARTU!

Azken urteotako bilketa sistema aplikatu dutenei eta aldaketa proposatzen dutenei galderak

- 1.** Zein da sistematik eraginkorrena emaitzei begira?
- 2.** Eta merkeena?
- 3.** Baliabide pertsonaletan, zelan gauzatuko litzateke sistema?
- 4.** Eta baliabide materialetan?
- 5.** Zein da sistematik garbiena?
- 6.** Ze sistema da herritarrendako erosoena?
- 7.** Helburu jakinen bat ezarri behar zaio edozein sistemari?
- 8.** Eta helburu hori betetzen ez bada?

1. "Gaur egungo sistema. Hondakin bilketa selektiboaren ikuspegitik gaur egungo sistema edukiontzi bidezkoa baino askoz eraginkorragoa da. Bergaran, egun, %82ko birziklatze maila daukagu, eta Arrasaten, berriz, %77koa. Debagoieneko Mankomunitateko txostenak honela dio: orokorrean, sistema pertsonalitateak bereizketa tasa altuagoak ematen dituzte, kalitate hobea-ekin."

2. "Merkeagoa da edukiontzi bidezko sistema. Bergarako herriari 46.000 euro merkeago aterako zaio urtean. Diferentzia oso txikia da. Mankomunitateko txosten horrek dio Bergaran bilketa sistema aldatzeak 177.884,47 euro murriztuko dituela bilketa-kostuak; baina murrizketa hau ez du osorik Bergarak eramango, Mankomunitateko herri guztien artean banatzen baita. Bergararentzat, diferentzia 46.000 eurokoa

izango da. Guztiaren %25,85, hain zuzen ere.

Bestalde, jakin dudanez, hondakin tratamendua asko garestitu nahi dute. Beraz, herritarrontzat ez da merkeagoa izango, dezente garestiagoa baizik."

3. "Debagoieneko Mankomunitateak egindako txosten horretan bertan adierazten da 7,4 lan-jardun galduko direla hondakin bilketa sistema aldatuz gero. Sistema aldatzearekin 39 lanpostu sortu ziren Mankomunitatean; datu garrantzitsua, bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanda. Ia zortzi lanpostu galduko ditugu etxeko hondakinak ordutegi eta egutegi zehatz batean ez ateratzearen.

Sistemaz aldatuta, lortzen den aurrezpen bakarria lanpostuak suntsitzen lortzen da. Enplegua sortzea ez al da ba gure lehentasuna? Hona hemen, aukera paregabea".



AGURNE BARRUSO
EH BILDUKO ZINEGOTZIA

4. "Debagoieneko Mankomunitateko teknikariek osatutako txosten horretan jartzen du eskualdeko Mankomunitateak egin beharreko inbertsioa, denera, 948.328,69 eurokoa dela. Bergarako herriak, 245.142,96 euroko diru kopurua ordaindu beharko du inbertsio hauetatik. Guztiaren %25,85, bestela esanda.

Erosketak egin behar dira: kamioiak, edukiontziak. Bestalde, egun dauden inbertsioak desegin behar dira. Gainera, tarte batean alokairuan ere izan beharko ditugu kamioiak. Materialen salmentatik askoz diru gutxiago jasoko dugu, eta gaur egun dauden kamioiak saltzea aurreikusten da, baina langintza zaila da hori. Dirua alfer-alferrik botatzea da sistemaz aldatzea".

5. "Hondakinak askoz denbora gutxiagoan daude kalean orain. Ateratzen diren egun guztietan batzen dira. Edukiontzien sistemaren bidez, astean hiru egunetan bakarrik biltzen da organikoa. Beraz, hondakin horiek edukiontziaren egongo dira ontzen, gure kaleetan. Ez dago zalantzarik, egungoa garbiagoa da."

6. "Erosotasunak alde desberdinak ditu. Egutegi eta

ordutegi aldetik, edukiontziak erosoagoak dira. Baina hauek etxetik urrunago izango ditugu, ezin baitira herriko edozein tokitan jarri. Hondakinak etxe ondora ateratzea ere oso eroso da. Bakoitzak badu berea."

7. "Bergarako herritarrok den herri kontsultan hautatzen dugun sistema hautatzen dugula ere, gaur egungo bilketa selektiboarekin lortutako tasak mantendu beharko genituzke: %82 birziklatzea, hain zuzen. Atzera ezingo dugu ba egin!"

8. "Aurrez daukagu hori erabakitze aukera. Zertarako aldatu ondo funtzionatzen duen sistema bat, lanpostuak sortzen baditu, ia-ia kostu bera baldin baldin badauka eta birziklatze tasari dagokionez datu oso onak ematen baditu? Mantendu dezagun egungoa!"

IGANDEAN EMAN BOZKA,

EGUNGO SISTEMA MANTENTZEKO GURE AUKERA BAKARRA DA

BIRZIKLATZE TASA OSO ONAK %82

ETXEAN BANAKETA BERDINA BI SISTEMEKIN

INBERTSIO BERRIRIK GABE

EGUNGO 8 LANPOSTUAK MANTENDUKO DITUGULAKO

BOZKATU EGUNGO SISTEMA, BOZKATU LARANJA

Udalean ordezkartza duten gainerako alderdiei eta gaian zeresana izan duten bestelako plataformei galderak

Zein sistemaren aldeko botoa eskatzen duzue domekarako? Zergatik?



AIERT LIZARRALDE
IRABAZIKO ZINEGOTZIA

"Bergarako Irabazik domekan burutu behar den herri kontsultan atez ateko hondakinen sistema bilketaren alde emango du botoa. Bergarako Irabaziren ustez, EAJk bosgarren edukiontzia abantaila emateko asmoz diseinatu du kontsulta hau. Gaur egungo sistemari mistoa deitu beharrean, atez ateko sistema deitu dio, herritarrengan komeni zaion nahasmena sortuz. Bestetik, oposizioko alderdi, eragile eta herritarrok ez dugu aukerarik izan, ez kontsultaren ezta hiri hondakinen inguruan lotu beha-

rreko akordioak eztabaidatzeko. Arrasaten, 5. edukiontzia sistema daukate, eta, egiten gabiltzan jarraipenetan, errefusaren edukiontzian arazo larriak ikusten gabiltza. Errefusaren edukiontzia bete behar duen eginkizunaren orde, emergentziazko eginkizuna betetzen du; birziklatu nahi ez dutenei ez birziklatzeko aukera ematen die. Horregatik, Irabazi Bergararen ustez, oso garrantzitsua da errefusa eta hondakin organikoak zintzilarioen bitartez jasotzea. EAJk errauskailua errefusaren edu-

kiontziaekin elikatu nahi du. Horregatik esaten du errauskailua hasieran egin nahi zuena baino txikiagoa egingo duela. Irabazi Bergararentzat aipatzeak dira ere kolokan dauden lanpostuak eta sistemaz aldatzeak ekarriko duen milioi euro inguruko inbertsioa."

ordea, ez du ezta helbururik aipatu! Kontsultarako bi egun besterik falta ez direnean, Bergarako herritarrok oraindik ez dakigu %75eko gaikako bilketa bermatzeko konpromisoa hartzen duen ere...

%75a bermatuko balute, edukiontzia kontrolatuen sistema ez genuke gaizki ikusiko; hala ere, gure hautua atez atekoaren aldekoa da, emaitza hobeak ematen dituelako. Bai kopuru aldetik (%80tik gora), baita hondakinen kalitate aldetik ere. Tratamendu gastu gutxien eta diru sarrera gehien lortzen dituen hondakinen bilketa sistema da atez atekoa. Baina ekonomikoaz gain, abantaila gehiago ere baditu: gertutasunak ematen duen erosotasuna (atez ateko sistemarekin hondakinen batze puntuak bikoiztu egin dira herrian) edo garbitasuna, (gaur egun hondakinak ordu batzuk baino ez dira egoten kalean. Edukiontzietan, aldiz, momentu oro egongo lirarteke, urteko 365 egunetan, zikintasan eta usain arazoak sortuz). Guzti honengatik, Zero Zaborretik domekako kontsultan Bergarako herritarrek atez ateko sistemaren alde bozkatzera animatzen ditugu".

JOSU LETURIA
BERGARA GARBIA

"Bergara Garbia Herri Plataforma hasieratik azaldu da gaikako bilketa sistema edukiontzien bidez egitearen alde. Domekan gure botoa 5. edukiontzia aldekoa izango da, eta horretara animatzen ditugu gure alboan egon diren herritarrek ere. Gure ibilbidea laburbilduz, EH Bilduren agintaldian manifestazioak egin genituen, hainbat idatzi bidali genituen hedabideetara eta jendearen etxeetara, 4.691 sinadura bildu genituen eta plataformak antolatutako herri kontsultan guztira 4.771 boto jaso genituen. Bergara Garbiakook uste dugu herriak hitz egin duela. EH Bildu antolatutako hondakinen mahaian ere parte hartu genuen, iruzur galanta; izan ere, eztabaidan geunden bitartean atez ateko sistema inposatu ziguten. EH Bildu alderdiak inposaketa bakarrik ulertzen du; gainera, beraiek ere horrela aitortu ziguten negoziatio mahaian: 'Sistema inposatuz bakarrik lortuko dugu helburua'. Bere momentuan salatu genuen arren, aurrera jo zuten. Azkena, etxeetako postontzietako oharra, berriz ere manipulatu nahian dabilta; hauek ez dira Debagoieneko Mankomunitateko datuak. Azaroaren 29ko kontsultan Bergara Garbiak 5. edukiontzia aldeko botoa emango du, gaikako bilketa egiteko erarik egokiena, erosoa eta jasangarriena delako".



MARI CARMEN BARRENETXEA
PSE-EE-KO ZINEGOTZIA

"5. edukiontzia alde gaude PSE-EEen, sistema jasangarriagoa eta merkeagoa delako, eta erakutsita dagoelako atez atekoekin bezain beste birziklatu daitekeela, eta hori da gure helburu nagusia. Hondakinen negoziatio mahaia eratu zenetik hainbat alderdi eta sistema izan genituen mahai gainean: 5. edukiontzia eta atez atekoa. Hainbat hilabetetako negoziatioen ostean, negoziatio mahaia apurto eta atez atekoa inposatu zitzaigun, kontuan hartu barik gainontzeko alderdien iritzia, EH Bilduren programan atez atekoa zutelako jasota. Hala, hilabeteetako lana alferrik galdu zen, eta EH Bildukoek euren inposatu zuten azkenean. Hortik denbora gutxira, galdeketa egin zen herrian, herritarren nahia ikusteko asmoz, eta argi 5. edukiontzia atera zen garai. Galdu arren, EH Bildutik atez atekoa inposatu zuten Bergaran. PSE-EEK ez zuen beste herri galdeketa egiterik nahi, baina, Udalak deitu duenez, parte hartuko dugu jendearen nahiari erantzuteko. Oraingo hau behin betikoa da. Asko dago jokoan, herritarrek nekatu eta asperu egiten baitira, eta ondorioz, etxean geratu. Domeka honetan haien botua ematera animatzen ditugu Bergarako herritarrek. Oraingoa honetan, legez derrigortuta daude emaitza betetzera. Ez da tirania gehiago izango eta, behingoz, herriaren esana entzungo da. Hori da egin beharrekoa".

MIREIA LIZARRALDE
BERGARA ZERO ZABOR

"Herri galdeketa bat planteatzeko orduan, ezinbestekoa da herritarrei informazio gardena ematea eta aukera ezberdinen ezaugarri guztiak argi eta garbi azaltzea. Bergarako alkateak,

Aurtengo ikasturteari sekula baino ilusio handiagoarekin ekin diote Moises Azpiazu Dantza Taldean

Ibilbide luzea darama Moises Azpiazu dantza taldeak Bergaran. Dantza soltea irakasten dute, eta presentzia handia daukate herriko zein kanpoko ekitaldi askotan. Puntako dantzari asko pasatu dira bertatik, eta gaur egun ere maila handiko jendea dabil

Moises Azpiazu dantza taldea 1972-1973 ikasturtean sortu zen, Bergaran. Orduz geroztik, makina bat ekitalditan parte hartu izan dute; Bergarako auzoetan, Euskal Herriko herrialde ezberdinetan, eta abar.

Herritar ugari jardun dute Moises Azpiazu Dantza Taldean dantza ikasten. Berezi ki, dantza soltea irakasten dute, hau da, Fandango eta Arin-arin estilo ezberdinak lantzen dituzte. Hala ere,

azken urteotan dantza herrikoi ezberdinak ere irakatsi eta dantzatzen dituzte.

Gaur egun Maite Lazkano da dantza eskolako ardura-duna, eta irakasle lanetan ere aritzen da. Berarekin batera, momentu honetan beste hiru irakasle jarduten dute dantza eskolak ematen; konkretuki, Saioa Galarragak, Mariñe Diazek eta Amaia Oregik (argazkian ezkerretik eskumara).

Aurtengo ikasturteari sekula baino ilusio handiagoarekin ekin diote. Izan ere, ohiko ekitaldiez gain (urtero auzo ezberdinetara egiten dituzten irteerak) azken ikasturtean egin duten bezala, Aranzadi Ikastolako kurtso amaierako jaialdian parte hartzeko ilusio handiz daude, eta baita, nola ez, ikastola berak antolatutako duen Kilmetroko egunean euren dantza saioak egiteko ere.

Azken honetarako, hasi



“Erronka zaila daukagu aurten, baina ziur naiz honetarako jartzen ari garengogoa eta ilusioarekin, zerbait polita egitea lortuko dugula.”

berriak dira ohikoa ez den dantza mota berri bat talde nagusiarekin lantzen. Maite Lazkanok dioenez, "erronka zaila daukagu aurten, baina ziur naiz honetarako jartzen ari garengogoa eta ilusioarekin, zerbait polita egitea lortuko dugula".

Ez da ahaztu behar, Euskal Herri guztian ospatzen diren Fandango eta Arin-arin txapelketetan ere, beti izan

dituela Moises Azpiazu Dantza Taldeak punta-puntako dantzariak. Momentu hauetan, bertan jarduten duten Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok osatutako bikotea ere ez da gutxiagorako. Honen adibide gisa, denboraldian zehar izan dituzten emaitzak ditugu; parte hartu duten txapelketa guztietan lehenengo bi postuetan sailkatzea lortu dute.



"Txiki-txikitatik hasi ginen, guztiok batera dantzan, eta hemenxe jarraitzen dugu, bazterrek nahastu nahian, eskuak altxa, burua tente, irrifarra ezpainetan, pozik ibiltzen gara gu denok, alpargatekin hegarran"

MOISES AZPIAZU dantza taldea
BERGARA

Harremanetarako:
Maite Lazkano
Tel.: 680 55 83 57

HONDAKINEN BILKETA SISTEMARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

Botoa bosgarren edukiontzia alde ematea eskatu du EAJk

Bergararrek "inposizioak alde batera utzita" erabaki ahal izango dutela diote

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergarako EAJk herritarrei dei egin die parte har dezaten hiri hondakinen gainean domekan egingo den herri galdeketa, eta bosgarren edukiontzia alde ematea eskatu die. Era berean, azpimarratu dute Debagoieneko Mankomunitateak egindako ikerketaren arabera, edukiontzia sistemarekin, "urtean, 230.000 euro aurreztu" ahal izango dituztela eta sistema berria ezartzeko beharrezkoa den inbertsioa "zazpi hilabete eta erdian amortizatuko" dela.

Galdeketa bitartez, "inposizioak alde batera" utzita, bergararrek erabaki ahal izango dutela adierazi dute: "Hau guztia posible da EAJ dagoelako Udal Gobernuan", dio Mikel Letek.

Jeltzaleek beste hainbat datu eman dituzte, "edukiontzia sistemaren alde" egiten duten apustua indartzeko eta sistema hori "eraginkorragoa eta merkeagoa" dela egiaztatzeko. Azaldu dutenez, esaterako, Udalaren txostenak, azken lau urteetan, hondakinen bilketak "1.335.000 euroko defizita" sortu duela frogatzen du.



Bergarako EAJko ordezkariak. | JOSU BILBAO

EAJk dio bosgarren edukiontzia erabilia "emaitza berdina edo hobea" lor daitezkeela "frogatu" dela, eta Arrasateko sistema jarri dute eredu moduan. Bergarako jeltzaleen ustez, sistema hori "merkeagoa, garbiagoa eta pertsonendako erosoagoa" da.

Herritarren inplikazioa

EAJk dio sistemaren arrakasta bermatzeko "herritarren inplikazioa eta partaidetza ezinbestekoak" direla, baina, betiere, "inposizio barik". Hori dela eta,

informazio kanpainak egitea eta sentsibilizazio ekintzak gauzatzea beharrezkotzat jo du.

Era berean, Bergarako EAJk herritarrek animatu ditu, "orain arte bezala hiri hondakinak gaika batzen" segi dezaten.

EH Bilduri kritika

Bitoriano Gallastegik EH Bildu alderdiari kritika egin dio, haiek plazaratutako bilketari buruzko datuak "gaizki formulatuta" daudela esanez, "herri guztia nahasteko helburuarekin".

pide, eta honen baitan bi adibide jorratuko dituzte: Maz-Erreka eta Soraluze enpresak, hain zuzen.

Bestalde, Bergarako epaitegiko *Euskara emaileak* ekimenari buruz ere arituko dira. Arlo juridikoan diharduten profesionalen eta eragile euskaldunen arteko komunitatea garatzea du helburu ekimen horrek.

Hirugarren esperientzia Bergara Kirol Elkartearen izango da. Futbol sailean euskararen erabilera sustatzeko Udalarekin elkarlanean burutzen diharduten langintza azalduko dute klubeko kideek.

Bukatzeko, jorratuko duten laugarren puntua merkataritza izango da. Horren baitan, *idazlaguna* programaz arituko dira. Bergarako komertzioetan kartelak eta iragarkiak euskaraz eta zuzen idatzita egon daitezen, hainbat herritar boluntario den-dariei laguntzen ari dira.

Helburuak

Ekitaldi horren helburuak honako hauek dira: alde batetik, euskalgintzan dabilzan artean elkarren berri izatea eta arlo desberdinetan diharduten pertsonen arteko harremana sustatzea. Bestalde, euskararen inguruko esperientzia positiboei "merezitako aitortpena" eman nahi diete. Bukatzeko, antolatzaileek espero dute *Pintxo baten bueltan* ekimena ideia eta aukera berrien sorleku izatea.

'Pintxo baten bueltan' ekimena egingo dute Euskararen Egunean

Jardunek eta Udalak antolatuta, euskararen aldeko esperientziez arituko dira solasean

M.T. | BERGARA

Abenduaren 3an, eguaztenez, hain zuzen, Euskararen Eguna izango da. Horren harira, hainbat ekimen burutuko dira Bergaran.

Hasteko, bihar, zapatua, Gauargi taldearen DJ saioa izango da Seminarioko karpán, Amaia Txintxurretaren eta Asier Castoren eskutik. 17:00etan hasi eta 20:00ak arte izango da musikaz gozatu eta dantza egiteko aukera.

Saioaren hasieran, gainera, *flashmob* bat egingo dute Jardunen 25. urteurrena ospatzeko Aritz Alustizak egindako eta herriko hainbat musikariek grabatutako *Larre zaharretan* abestiarekin. Ekimen horretan parte hartu nahi dutenek Youtube atariko *Amaia Txintxurreta* kanalean izango dute dantza pausoak ikasteko aukera. Herriko ikastetxeetan ere zabaldu dute bideoa.

Herriko hainbat esperientzia

Abenduaren 3an, berriz, *Pintxo baten bueltan* ekimena egingo

dute udaletzeko osoko bilkuren aretoan, Jardun Euskara elkar-teak eta Udalak antolatuta.

19:00etan izango da, eta bertan, kafe-tertulia erara, Bergarako hainbat esparrutan bideratzen ari diren euskararen inguruko esperientziak ezagutzeko eta horiei buruz berba egingo dute. Bitartean, pintxo batzuk dastatzeko aukera izango dute bertaratutako herritarrek.

Hala, aretoan lau mahai izango dira, eta bakoitzean arlo batean dabilzan bi pertsona izango dira, mahaiaren bueltan bilduko diren herritarrei azalpenak ematen. Etorritako jendearekin lau talde egingo dira, eta horietako bakoitza hamabost minutuz egongo da mahai bakoitzean, eta ondoren, ondoko mahaira pasatuko dira. Modu horretan, ordubetean lau esperientzien berri izango dute. Hala azaldu du Jarduneko Nerea Mendizabalek.

Batetik, enpresetan garatutako euskara planak izango dituzte hiz-

ATEZ ATE

S I S T E M A R E N

10 ABANTAILA

DEBAGOIENA ZERO ZABOR

- ### 1. EKONOMIA

Atez atekoa da hondakin birziklagarrien salmentagatik diru gehien lortzen duen sistema, bereizitutako hondakinen kalitatea edukiontzia kontrolatuekin lortzen dena baino askoz hobea delako.
- ### 2. LANPOSTUAK

Atez atekoak lanpostu berriak sortu ditu Debagoiengan. Edukiontzia kontrolatuekin lanpostu horiek galdu egingo lirateke.
- ### 3. GARBITASUNA

Atez atekoarekin hondakinak ordu batzuk baino ez dira egoten kalean. Edukiontzia kontrolatuetan hondakinak momentu oro egongo lirateke kalean. Urteko 365 egunetan. Horrek dakarren zikintasan eta usain arazoekin.
- ### 4. EKOLOGIA

Atez ateko sistemarekin ziurtasuna daukagu hondakinak birziklatzera edo konpostatzera eramango direla. Edukiontzien sistemarekin pertsona batek gaizki egiteak edukiontzia osoa zabortegira bideratzea ekar lezake.
- ### 5. EROSOTASUNA

Atez ateko sistemarekin batze puntuak gure etxeetatik gertu daude, gehiago daudelako. Bergarako herrigunean, adibidez, atez atekoaren 136 batze puntu daude, eta edukiontziekin 71 puntu egongo lirateke. Honek, batze puntuak urrunago egotea ekarriko luke.
- ### 6. IRISGARRITASUNA

Atez atekoak, pertsona nagusien eta mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna bermatzen du. Edukiontzien irekiera zaila da bere taparen tamainu eta altueragatik, eta honek zaildu egiten du pertsona hauen irisgarritasuna.
- ### 7. HEZKUNTZA

Atez atekoak, hondakinak sailkatu eta ateratzea errazten die etxeko gaztetxoenei. Edukiontzia kontrolatuen tapen altueragatik, eta berauek zabaltzeko behar den txartelagatik, gaztetxoek inplikazioa zaildu egiten da.
- ### 8. KALEAK LIBRE

Atez atekoaren posteei leku gutxi okupatzen dute kalean edukiontziek okupatzen dutenarekin alderatuta. Oinezkoentzako edo aparkatzeko irabazi den leku hau, edukiontziekin galdu egingo litzateke.
- ### 9. MANTENU MERKEA

Atez atekoaren poste eta ontziek oso mantenimendu merkea suposatzen dute. Txip bidez kontrolatutako edukiontzia, aldiz, oso garestiak dira eta kamioira bolkatzearen ondorioz sarritan puskatzen dira.
- ### 10. IKASKUNTZA

Atez atekoarekin hondakinen bat gaizki sailkatuz gero, abisatu eta zuzentzeko aukera ematen dizute. Edukiontziekin ez dago neurri zuzentzailerik.

Guzti honengatik, **ATEZ ATE** da gure hautua



Aitor Olea organista. | GOIENA

Stoltz-Freres organoaren aldeko ikasturteko aurreneko kontzertua

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunek antolatuta, 2015-2016 ikasturteko aurreneko kontzertua eskainiko du Aitor Olea Juaristi organistak domekan, arratsaldeko zazpietan, Santa Marina elizan. Sarre-
rak 5 eurotan salduko dira, eta batutako dirua Stoltz-Freres organoa konpontzeko bideratuko da.

Aitor Olea Juaristik eskainiko duen kontzertuan, Bernard Schmid-en *Gagliarda*, Johann Sebastian Bach-en *Toccat*, *Adagio* eta *Fuga Do M BWV 564*, Alexandre Guilmant-en *Scherzo Op. 31*, Tomas Garbizuren *Sequentia Victimae Paschali Laudes* eta Simon Preston-en *Allelyas* lanekin gozatu ahal izango dute Santa

Marinara gerturatzen direnek. Aitor Olea San Pedro parrokiako organo-jotzaile titularra da, baita haren aldeko elkar-
tearen lehendakaria ere.

Kontzertu sorta

Olearen kontzertuarekin hasita, eta 2016ko uztailean bitartean, izen handiko organista, musikari eta abeslariak etorriko dira Bergarara kontzertuak eskaintzera, San Pedro parrokiako organoaren konponketarako dirua biltzeko asmoarekin.

Pasa den ikasturteko diru sarrerei dagokienez, guztira, 12.800 euroko sarrerak izan zituen elkarteak. Hala, diruaren erdia baino gehiago kontzertuetatik lortu zuten. Gastuak, bestalde, ia lau mila eurokoak izan ziren.

El Salvadoroko 44 familiarendako ura lortzeko proiektua aurrera atera dute

J.B. | BERGARA

Uraren garraioa eta ekosaneamendua helburu dituen proiektua aurrera eramane du Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordeak Chaguite kantoiko Chaguite erdialdea komunitatean, Tacuban, El Salvadorren. Erdialdeko Amerikako herrialdean aurrera eramane diren proiektu guztien burua Bergarako Mikel Andueza dominikarra izan da. Anduezak 1987a ezker darama El Salvadorren proiektuak bultzatzen.

El Salvadorren pobrezian bizi diren 44 familiarendako ura lortzea izan da proiektuaren funtsa. Osasuna eta higiena hobetzea eta emakumeen integrazioa komunitatearen bizitzan lortu dira

horrela, orain arte ura lortzeko distantzia luzeak egin behar zituzten eta. Bertako familiek eskulana jartzen dute proiektuak aurrera egin dezan, eta etorkizunean proiektua mantentzeko arduradun bilakatuko dira.

Proiektuak, gainera, komunitatea antolatzen laguntzen du, euren arazoei konponbideak emateko asmoarekin. Gaur egun, osasun baldintzak hobetzeko lan egiten ari dira, eta, horretarako, komunak eraiki dituzte.

Gipuzkoako Oskar Romero Batzordea 1987a ezker osasunarekin, hezkuntzarekin, elektrizitatearekin, elikatu gabeko haurren jasotzearekin... lan egiten ari da, 46 proiektutan.



El Salvadoroko Chaguite erdialdeko proiektua. | OSCAR ROMERO SOLIDARITZA

Xabi Lijo | Hankaluzer Trail taldeko ordezkaria

"Astebetean San Silvestre traileko izen-emate erdia bete dugu jada"

XABIER URZELAI | BERGARA

Abenduaren 31n egingo duten San Silvestre trail –Peugeot Etormobil Saria– lasterketako izen-ematea zabaldu zuten joan den egubakoitzean, eta handik lau egunera 150 lagunek emana zuten izena –guztira, 300 dortsalegongo dira–. Baina horrek ez ditu Hankaluzer taldekoak ezustean harrapatu.

Espero zenuten halako erantzunik?

Bueno, benetako sorpresa iaz hartu genuen: 200 dortsale jarri genituen, baina uste genuen 150 lagun baino gehiago ez zirela etorriko. Eta astebetean *hegan* egin zuten dortsale guztiek. Aurtent, handitu egin dugu kopurua.

Eta hor ere denak beteko dira.

Ikusiko dugu. Normala da hasierako egunetan olatu hori egotea, jendea ere kalean galdezka zebilen, eta igartzen genuen interesa. Orain, jendea joango da izena ematen, baina polikiago. **Helburuetako bat bete duzue, herri lasterketa moduan sortu zenuten, eta dagoeneko Bergarako askok eman dute izena.**

Bai, horrek harritu nau gehiago, orain arte bergarar mordo dagoela ikusteak. Gustatuko litzaidake parte-hartze osoaren



Xabi Lijo. | GOIENA

%40 edo %45 bergararrak izatea. Kopuru polita izango litzateke, baina, noski, inguruko guztiak ere ongi etorriak dira. **Beste helburu bat, emakumezkoak lasterketara animatzea.**

Hori da antolatzaileok daukagun beste helburuetako bat, eta, oraingoan, datuak ez dira oso onak, 150 lagun pasatxotik emakumezkoak 20 inguru dira eta. Gure sasoiko emakumezkoak ez dira horrenbeste ikusten, baina gazteak indartsu datoz, kirola egiteko gogoz. Ea animatzen diren, ez da eta proba gogorra.

Eneko Muguruzak jokatu du gaur Gipuzkoako finala Seguran

X.U. | BERGARA

Joan den asteko finalerdiak oso erraz gainditu ostean –22-2 Hernaniren kontra, eta sakez tanto mordo eginda–, Eneko Muguruzak bergararrak Gipuzkoako eskuz banako finala jokatu du gaur, egubakoitzean, Segurako pilotalekuan.

Reyes Azkoitiak ondo ikusten du bergararra, baina ez du Zegamako pilotari Intxausti ezagutzen: "Finalera iritsi bada, ondo jokatzen duen seinale. Baina, beste multzotik datorrenez, ez dugu ezagutzen. Egia da Zegamatik Segurara oso tarte txikia dagoela, eta zale gehiago izango dituela ondoan, baina Segurako frontoia ona da, alde horretatik ez



Muguruzak. | GOIENA

dago kexurik, eta Muguruzak berea jokatzen badu finala irabazteko aukerak izango ditu, zalantza barik".

Bergaran, ostera, alebin, kade eta gazte mailetako partiduak egingo dira jokoan, gaur, 19:30ean hasita.

Saskibaloit taldea, azken postutik irteteko lehenetsunarekin

Ligako lehenengo garaipenaren bila abiatuko dira Soralue Bergarako senior mailako mutilak Zarautzera (zapatua, 20:00etan). Zast taldea Bergarakoendako neurriko kontrarioa izan daiteke, zarauztarrek ere ez dituzte eta puntu asko batu –bi garaipen baino ez–.

Pulporen bisita izango dute eskubaloiko seniorrek etxean

Launa puntu batu dituzte Gipuzkoako lehenengo mailan lehian dabilen Bergarak eta Decotena Pulpok; horrenbestez, atzealdeko postuetatik gora egiteko kontrario zuzenak dira bi talde horiek. Hala, Orgazen mutilek zapatuan 18:00etan hartuko dute kostaldekoen bisita, Labegaraietan.

'Kultura da gakoa, Euskal Kasua' hitzaldia eguaztenean

Solasaldia egingo dute Bergarako osoko bilkuren aretoan abenduaren 2an, 19:00etan. Bertan izango dira Miren Azkarate –Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia–, Iñaki Gomez –*Loreak* filmaren ekoizlea– eta Antonio Herzog –Bergarako gizarte aktibista–.

Bergarako Bertsolari txapelketako lehen finalerdia, Arranon

Gaur, egubakoitzean, 23:00etan jokatuko da Bergarako Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo finalerdia, Arrano tabernan. Bertan, Bergarako lau bertsolari arituko dira nor baino nor gehiago: Enaitz, Oxan, Redondo eta Etxie.

Zabalotegiko Txiki Txokoa adindunek ere erabili ahal izango dute

Azaroaren 25etik aurrera Zabalotegiko Txiki Txokoa haur eta familiek erabiltzeaz gain auzoko edadetuek ere erabili ahal izango dutela adiztera eman du Bergarako Udalak. Txiki Txokoa bi gela ditu: bata haurrek erabiliko dute eta bestea adindunek.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Poteo Izarrak-Vodka Juniors	10-5
Komando Piperrak-Estrella Coja	3-6
Birgerias-SVC	7-2
Arrano Zabalik-Errefuxa	6-6
HIS-Sanpe United	5-5
River City-America	6-3

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	18	6
2 Errefuxa	16	6
3 River City	13	6
4 Komando Piperrak	12	6
5 America	7	5
6 Poteo Izarrak	7	5
7 Vodka Juniors	6	6
8 Birgerias	6	6
9 Sanpe United	5	6
10 HIS	4	6
11 Arrano Zabalik	4	6
12 SVC	3	6

PARTIDUAK

Azaroak 27, Egubakoitzean	
22:15	Poteo Izarrak-Sanpe U. / K. Piperrak
23:15	K. Piperrak-River City / Sanpe Un.
Azaroak 22, Domeka	
17:00	HIS-SVC / America
18:00	America-Errefuxa / SVC
19:00	Estrella C.-Arrano Zaba. / Errefuxa
20:00	Birgerias-Vodka Jun. / Arrano Za.

Hirugarren postuagatik borrokan

Asteburuko partidu erakargarriena, seguruenik, hirugarren postuagatik borrokatuko diren Riverren eta Komandoren artekoa izango da (gaur, 23:15ean).

Inauteriak prestatzen hasteko bilera egingo dute martitzenean

Otsailaren 6an ospatuko dira Oñatin 2016ko Inauteriak, eta, eguna antolatzen hasteko, lehen bilera egingo dute datorren astean. Bilera martitzenean izango da, abenduak 1, Oñatz dantza taldearen lokalean, Errekalden, 19:30ean. Oñatiko Inauterietako lantaldeak egin du deialdia eta egun horretan parte hartu gura duen edozein herritar dago gonbidatuta.

Talde argazkia aterako dute bihar iluntzean bibotedunek

Movember ekimenaren azken jaia egingo dute bihar, zapatua. 19:30erako egin dute hitzordua bibotedunek Ongi tabernan. Triki-poteoan ibiliko dira gero Kale Zaharrea, eta 20:30ean talde argazkia aterako dute Foruen plazan. Trikiti doinuen laguntzarekin jarraituko dute afalordura arte. Iturritxon afalduko dute 45 bat bibotedunek, 22:00etan.

Eltziako kideak nola antolatuko diren adosteko saioa bihar

Eltziaren kudeaketa faseko bigarren bilera irekia egingo dute bihar, zapatua. Eltzia nola kudeatu eztabaidatzeko saioa izango da eta galdera hauei erantzunon diete, besteak beste: *Nola antolatuko gara Eltzekideok? Zein egitura sortuko ditugu? Nolako izango da eta nola antolatuko dugu Udalarekin harremana?* Saioa 10:00etatik 13:30era izango da, Gurutze Gorriko gelan.

Juan Valls oñatiarrak diskoa aurkeztuko du domekan Pakon

Juan Valls musikari oñatiarrak grabatu berri duen diskoa aurkeztuko du asteburu honetan. *Life holds red lights on behind* da diskoaren izena, eta aurkezpena Pako tabernan domekan egingo duen zuzeneko kontzertuan egingo du, 19:30ean. Udako etenaldiaren ondoren, zuzeneko emanaldiak egiteko ohitura berreskuratuko dute Pako tabernan.

Arozena anaiek emanaldia egingo dute gaur Santa Anan

Txistua, gitarra klasikoa eta perkusioa uzartuko dituen emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Arozena anaiek Santa Anan, 19:30ean. Txantxiku Ikastolak antolatu du, Udazken Kulturala izeneko ekimenaren barruan. Bihar, 12:30ean, Herrixa Kantuan egingo da eta 19:30ean ikasleen emanaldia.



Udaletxeko harreraren daude salgai horrelako zapiak. | O.E.

Udalak eta ikastetxeek batera antolatu dute Euskararen Eguna

Abenduaren 3an 'Euskaraz bizi nahi dut' zapiak eskegitzeko dei egin du Udaleko Euskara Sailak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurtengo Euskararen Eguna ere Hezkuntza Mahaia antolatu du Oñatin, hau da, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak eta herriko hiru ikastetxeek eta guraso elkarrekin. Jolasak, kantuak, tailerrak, antzerki-solasaldia, afari tertulia eta dantza izango dira herrian abenduaren 3an. Herritar guztiei zuzendutako ekintzak izango dira.

Elkarrekin

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik laugarrenera bitarteko ikasleak izango dira egunaz gozatzeko hasiko diren lehenengoak. 09:30ean hasita elkarrekin jolasean arituko dira adin tarte horretako herriko ikasleak, euskaraz, kiroldegian. 11:30ean, *Euskaraz bizi nahi dut* kantua abestuko eta dantzatuko dute guztiek elkarrekin.

12:00etan, Batxilergoko ikasleek Eneko Sagardoi eta Mikel Martinez aktoreen *Zergatik Jamil?* antzez-lana ikusiko dute Santa Anan. Ondoren, aktoreekin berba egiteko aukera izango dute. 16:45etik aurrera haurrenako tailerrak eta herri kirolak izango dira kontzejuean Bertakotze programa eta Txaloka ludotekako hezitzaileekin eta umeekin. Aurpegiak margotuko dituzte eta euskararen aldeko leloak dituzten txapak eta herri kirolak izango dira.

Txartelak eta zapiak

18:00etatik aurrera euskal kantuak abestuko dituzte familia giroan kontzejuean, Jose de Azpiazu musika eskolako trikitilariak lagun-duta. Guraso elkarrekin txokolata banatuko dute doan eta ikasleek euskararen aldeko mezua duten bizkotxo zatiak salduko dituzte euro baten. Lortutako dirua ikas bidaiarako izango da. Afari-tertua ere izango da. Aurten, gainera, Euskararen Egunean bertan egingo dute, abenduaren 3an. Pago Uso elkarrean izango da eta EHUKo irakasle Pello Jauregi etorrigo da, euskararen erabileran eragina duten mekanismoez berba egitera. Txartelak Txokolateixian daude salgai. Bestalde, Udalak dei egin du abenduaren 3an *Euskaraz bizi nahi dut* zapiak eskegitzeko leiho eta balkoietan, eta zapiak jarriko ditu salgai astelehenetik aurrera, hiru eurotan, udaletxeko harreran. Kultura etxean, *Nondik gatoz eta nora goaz* erakusketa zabalduko dute astelehenetik egubakoitzera.

Benito Lertxundi | Musikaria

"Oñati Euskal Herriko herri kuttunenetako bat da niretako"

O.E. | OÑATI

Bihar, zapatua, emanaldia eskainiko du Benito Lertxundik Zubikoa kiroldegian, 22:30ean, Musikegunak egitasmoaren barruan. Aurre-salmenta agortuta dago eta 80 sarrera bakarrik jarriko dituzte leihatilan.

Sarrera gehienak saldu daude. Jendea zu entzuteko gogoz dago. Asko, gainera, azkar saldu ziren, eta hori pozgarria da, bai. Egoera horrek laguntzen du emanaldia aurrez bisualizatzen.

Nolako izango da kontzertua?

Ordu eta erdi edo bi ordu inguru iraungo du, eta, joko ditugun abestiei dagokienez, batzuk izango dira berriak eta beste batzuk azken diskokoak. Orain arte kontzertuetan kantatu ez ditugun bi pieza joko ditugu, adibidez. Azken laneko abestiak ere joko ditugu, bospasei guztira.

Dagoeneko herriko bihurtu den kanturik sartu duzue emanaldian? Betiko kantuak, alegia?

Kontu horrekin badut holako harreman berezi bat. Batzuetan maldan gora egiten zait bizitza osoan kantatutako abestiak errepikatzea. Berrien gogoia, nahia, izaten dut.

Gustatzen zait betiko abesti horiek aldi baterako aparkatzea,



Benito Lertxundi. | ELKAR.EUS

aurrerrago eta noizbehinka berriz hartzeko. Badakit, ordea, entzuleak abesti horiek noiz joko zain egoten direla. Betiko pieza horiek entzun gura izaten dituzte, eta betebeharrak moral bat sentitzen dut horrelakoetan. Kontzientea naiz zuzeneko kontzertuek hori eskatzen dutela, hori ere badela bihar bezalako emanaldi bat, entzuleek hori gura dutelako, eta jotzen ditut, bai.

Zer moduzko plaza da Oñati?

Jarraitzaile leial asko ditut Oñatin. Behin baino gehiagotan egon naiz eta Euskal Herriko herri kuttunenetako bat da niretako, Iruñea, Tolosa, Bermeo edo Lekeitio, adibidez, diren moduan. Espe-

rirentziak esaten dit Oñati herri ona dela niretako.

Orion oñatiar askorekin egin izan dut topo eta sarri galdetu didate ea Oñatira noiz noan. Biharko kontzerturako sarrera salmenta ikusita konturatzen naiz ez zidatela txantxetan galdetzen, benetan gura zutela ni Oñatira joatea.

Zenbat lagun izango dituzu ondoan oholatza gainean?

Guztira, hamar lagun egongo gara. Ez denak batera; hasieran, behintzat. Instrumentu ezberdinak joango dira sartzen, eta, behin sartuta oholatza gainean geldituko dira, ez dira jaitziko. Ahotsetan neska gazte batek abestuko du Olatz Zugastirekin batera. Uste dut eskergarria dela instrumentu ezberdinak entzutea, jantzia gelditzen da emanaldia.

NIRE USTEZ

MIEL GURIDI



Berdintasunaren printzipioa

A skotan, berdintasunaren inguruan aritzen garenean izen bera izanagatik kontzeptu desberdinak nahastu egiten ditugulakoan nago. Gauza bat da egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea eta beste bat da berdintasunaren printzipioaren arabera tratatzea. Generoaren edo hizkuntzaren ikuspegitik ari bagara, berdintasunaren printzipioak beste neurri bat hartzen du. Aipatu berri ditudan egoera bi horietan garbi dago parekatzen ditugunak ez daudela egoera berean. Gauzak aldatzen badoaz ere, oraindik gizonek eta emakumeek ez dituzte aukera berdinak. Hizkuntzaren aldetik ere gauza bera esan dezakegu: gaztelania eta euskara ez daude maila berean. Hizkuntzen kasuan egoera diglosikoa bizi dugu, bi hizkuntza ditugu baina bata askoz ere indartsuagoa bestea baino, eta hori garbi ikusten dugu hizkuntza bakoitzean egin ahal ditugun gauzak konparatzen hasten garenean. Esate baterako, hizkuntza batean eta bestean eskura ditugun komunikabideak, literatura, medikuak, zerbitzuak... zerrenda etengabea izango litzateke, aldea ikaragarria da.

Egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea ez da berdintasuna. Berdintasunak zera esan nahi du: aukera berdinak izateko aukera ematea, ekitatea jorratzea. Horregatik da hain beharrezkoa tokian tokiko hizkuntzen aldeko babes-neurriak eta maila soziala garatzeko neurriak hartzea.

Berdintasunaren printzipioaren arabera presentzia handiagoa, nabarmenagoa eta neurri laguntzaileak beharko lituzke egoera apalagoan dagoen hizkuntzak, gure kasuan euskarak, egunen batean beste hizkuntza batzuek eskaintzen dituzten aukera berdinak eskaini ahal izateko.

ZELAMIA

LIKIDAZIOA

70

DESKONTUAK %

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak

Euskadi Etorbidea 3 • Oñati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 08

Familia giroko mendi bueltak, abenduan hasita

Guraso Foroak antolatu ditu 4 eta 12 urte arteko seme-alabak dituztenendako

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Familia giroko mendi irteerak egingo dituzte abenduan hasi eta ekaina bitartean. Guraso Foroak antolatu ditu eta Murruxiko mendizale elkarteak izan du lagun. 4 eta 12 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako dira irteerok eta abenduaren 19an egingo dute lehenengoa.

Harremanak estutzea helburu

Ondo pasatzea, naturarengana gerturatzea eta inguruak ezagutzeko dira ekimenaren helburuetako batzuk: "Inguruetako bideak, bidexkak eta menditxoak ezagutuko ditugu; horiek berreskuratu, erabili eta izenik ez duten mendiei izenak jarriko dizkiegu. Eta hala, hemendik urte batzuk barru gure umeez inguruko mendietan bakarrik ibiltzen jakingo dute", dio Oier Etxebarriak, Murruxikoko kideak.

Ekimenak, baina, beste helburu bat ere badu: herriko ikastetxeetako familien arteko harremanak sendotzea: "Ikastetxe bakoitzeko guraso elkarte bakoitzak bere irteerak egin izan ditu. Baina guztiok gara aretxabale-



Guraso Foroak kideak eta neska-mutikoak irteerak aurkezten. | MIRARI ALTUBE

tarrak; horregatik, harremanak estutzeko ekimenak bultzatuko ditu Udalak", jakinarazi du Aitor Gabilondok, Hezkuntza zinegotziak. Hain zuzen, Guraso Foroan, udal ordezkariekin batera, daude herriko hiru ikastetxeetako gurasoen ordezkariak, hau da, Kurtzebarri eskolakoak eta institutukoak, Arizmendi Ikastolakoak eta Pausoka haur eskolakoak; baita Kuku Miku elkarte-kideak ere.

Zapatu goizetan

Lehenengo irteera abenduaren 19an izango da eta Apotzaga eta Gellao auzoetara joango dira. Urtarrilaren 16an, Muruko barrenak ezagutuko dituzte; otsailaren 13an, Muru mendia; martxoaren 5ean, Areantzako elurzuloa; apirilaren 9an, Kurtzetxiki; maiatzaren 7an, Aitzulo; eta ekainaren 4an Asentzio. Plazan elkartzeko dira, 10:00etan, irteerarako, eta 13:00etarako bueltan izango dira.

Autobusak jarri gura dituzte Durangoko Azokara joateko

M.A. | ARETXABALETA

Durangoko Azokara Aretxabaleatik bertatik autobusean joan gura dutenek abenduaren 5ean, zapatuan, izango dute aukera.

Udalak bi autobus jarri gura ditu: bata izango da 09:30ean irten Aretxabaleatik eta 13:30ean itzultzeko Durangotik; eta bestea, 10:00etan irten eta 22:00etan itzultzeko. Horretarako, izena aurrez eman behar da Arkupe kultura etxean eta prezioa da 4 euro batarendako zein besta-rendako. Izena emateko azken eguna datorren eguaztena da, abenduaren 2a.



Herritarrek, Herriko Plazan elkartuta. | M.A.

Bat eginda 'Emakumeenganako indarkeriarik, ez!' aldarrikatzeko

Autodefentsa feminista saioa abenduaren 12an

M.A. | ARETXABALETA

Herritarrek eta udal ordezkariak elkarrekin eskatu zuten, eguaztenean, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez dadila izan, ez Aretxabaletan, ez beste inon. Eguraldi narrasarekin kikildu barik, Herriko Plazan elkartu ziren, isiltasunean, azken urtean izandako erasoak eta hilketak gogoan.

Ondoren, gogoetarako tartea hartu zuten askok, musika eta bertsoak lagun hartuta, *Ez gara Palestinaz ari* musika ikuskitzulari esker.

Biolentzia sexistari aurre

Abenduaren 12an, ostera, emakumeendako autodefentsa feminista saioa egingo dute, Udaleko Berdintasun Sailak deituta. Egun osoko saioa izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, Ibarra kiroldegian. Antolatzaileek emakumeak gonbidatu dituzte: "Egunero jasaten ditugun eraso sexisten aurrean erantzun bat emateko edo biolentzia sexistaren inguruan hausnartu eta horri aurre egiteko tresnak eskuratu nahi badituzu, hementxe duzu aukera!".

NIRE USTEZ

INAXIO GARRO



Xixilitarrak

Joan den igandean, hilak 22, musikari zaindaria den Santa Zezilia eguna ospatu zen. Horren lekuko, hainbat musika-emanaldi eskaini ziren Debagoienean bertan. Izan ere, ukaezina musikak han eta hemen mundu guztiarengana heltzeko unibertsaltasuna duela. Norberak du musika estiloa eta generoa aukeratzeko askatasuna, adinaren, etxetik jasotakoaren, herriaren eta beste hamaika faktorearen arabera. Haurtzarotik daukagu lehen harremana musikarekin, batez ere kantuarren bitartez, sehaskatik hasita.

Letrak eta hitzak elkarri josiz, kantuan jarduten dugu, azkarrago, polikiago, altuago edo baxuago. Beste hainbatetan, ordea, hitzen ordezkariak er-

biltzen ditugu, bata bestearen ondoan jarritik, doinu edo melodia bat sortuz. Horretarako daude, besteak beste, gitarra, pianoa, biolina, trikitixa edo txistua. Horietatik, hainbat musika-tresna kanpotik ekarri eta gurean daude errotuta naturaltasunez, eta beste batzuk, ordea, euskal tradizioari daude aspaldi lotuak. Horien artean, oso geurea den txistua azpimarratu nahi dut. Azken urteotan txistuak bilakaera izan du Euskal Herrian barrena, eta hainbat esparrutan beste musika-tresnekin batera oholtzak partekatuz: abesbatzak, orkestrak...

Txistuak beste esparru horiek irabazi dituen bezalaxe, hurrengo erronka litzateke herrietan gaztetxoak txistura erakarri eta datozen belaunaldietarako harrobia sortzea. Horretarako, ez litzateke urrats makala izango gure eskoletako musikako klaseetan, euskal curriculumarekin sortzeko ahaleginak egiten ari garen garaian, txistuaren presentziaren inguruan hausnarketa egitea. Bien bitartean, xixilitarrok aurrera goaz. Bazatuz gurekin?

Toberaren epaia ez betetzeagatik Kurtzebarriko gurutzea ostu dute

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleako kaleetan agertutako karteak honako hau diote: *Nor izan da lapurreta larri honen erruduna?* Eta irudian Kurtzebarri mendia gurutze barik ageri da -bideoa jarri dute Youtuben-. Iaz abenduan egindako toberaren epaia ez betetzeagatik eskoriatzarren mendekua da. "Ez dozue bete zeuen epaia eta ikeragarria izango da garbaixa", diote.

Bosgarren tobera, Eskoriatzan

Eskoriatzarrek aretxabaletarrek salatutako zintuzten iaz, Bagarak bultzatutako laugarren toberan.

Aretxabaletarrek nagusikeriaz jokatzeko historikoki eta eskoriatzarrek gutxiestea izan zen salaketa. Baita irabazi ere. Irabazi bai, baina epairik ez dute bete aretxabaletarrek: Araba ibilbidea beharrezan Eskoriatza ibilbidea izendatzea herriko kale nagusienetako bat; eta San Pedro egunean Eskoriatzako bandera jartzea Kurtzebarriko gurutzean.

Hala, bosgarren tobera gortzen hasi dira. Oraingoan ere Aretxabaleta eta Eskoriatza izango dira aurrez aurre, eta abenduaren 28an egingo dute Eskoriatzako kiroldegian.



IDOIA ELEXPURU

Telebista Jone Meaberendako

Harraskatu eta irabazi txartelen bitartez opariak banatu eta banatu dabil Aretxarte azken bi asteotan, eta Jone Meaberendako aretxabaletarrek jasotako txartelak opari nagusienetako bat izan du: telebista. Oraindik opari mordo da daudela gordeta txartelatan gogorazi dute Aretxartekoek; besteak beste, argazki kamerak, bidaiak eta erlojuak.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Kuadrillen Eguna bihar, gazteen arteko harremanak estutzeko

Gazte Ekimenak antolatu du eta jolasak, bazkaria eta kontzertuak dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kuadrillen Eguna egingo dute bihar, lehenengoz, Gazte Ekimenak antolatuta. Gazteen arteko harremanak estutzea, eta helburua ondo pasatzea izanik, jolasak eta musika izango dituzte lagun.

Egun osoko jaia

Kuadrillen arteko jolasekin hasiko dute jaieguna, 11:00etan, eta 14:00etan bazkaltzeko elkartuko dira Mitarte plazako lokalean (Urkulu). 18:30ean bukatuko dituzte jolasak eta argazki erraldoia

aterako dute orduan. 20:00etan, ostera, kontzertuak hasiko dira; D-Skarga eta Delirium taldeek girotuko dute ilunkera, eta jaieguna bukatuko da. Gainera, taberna egongo da Mitarte kaleko lokalean, baita *photocall*-a ere.



IMANOL SORIANO

IDOIA SANCHEZ | GAZTE EKIMENEN KIDEA

"Adin tarterik zehaztu barik gazte sentitzen den edozein izango da ongietorria jaira!"

Urrian hasi ziren eguna antolatzen hainbat asmorekin. **Zein helbururekin antolatu duzue eguna?**

Urriaren erdian gazte batzuk elkartu ginen eta Aretxabaleteko gazteen arteko harremanak estutzeko egun bat antolatzea erabaki genuen. Helburua da ahalik eta gazte gehien elkartu, gure artean ezagutu eta guztion gustukoa izango den egun polit bat pasatzea, ahal den eta anitzena izango dena.

Aurretik batzar baterako deialdia egin zenieten kuadrillei, ezta?

Beharrezkotzat jo genuen ahalik eta kuadrilla gehien elkartzea egun hori antolatzeko. Hala, guztion gustuak ezagutzeko aukera izan dugu, gure artean ezagutzen hasi gara eta egitaraua aurrera atera ahal izan dugu. Hamalau bat lagun agertu ginen orduan.

Aurreko urteetan Gazte Eguna antolatu izan duzue. Horrekin zerikusirik badauka?

Ospatu izan dugu egun berezi bat data honetan, baina aurten guztion artean antolatzen saiatu gara, guztion

gustukoa izateko. Nahiko eztabaida izan genuen izenaren gainean, baina ikusi genuen Gazte Eguna edukia zezakeela zelanbaiteko muga, posible zela gazte guztieki zuzenean burua izen horrekin identifikatuta. Horregatik, beste izen bat eman gura izan genion eta beste ikuspuntu batetik begiratu, zelanbait kuadrilla kontzeptua hartu orokorrean. Izan ere, denok daukagu gure taldetxoak, eta denok elkartzeko aitzaki bat sortu dugu gure artean ezagutu eta harremanak estutzeko.

Zein urte arteko gazteak elkartuko zarete?

Deialdia Aretxabaleteko gazte guztiei zabaldua dago, eta ongietorriak izango dira guztiak, adin tarterik zehaztu barik. Gazte sentitzen den edozein izango da ongietorria!

Zenbat lagun elkartuko zarete bazkaltzeko?

Zehatz jakitea zaila da, baina aurreko urteotan ehun bat elkartu izan gara, eta aurten ere hala izango delakoan gaude.

Eta aurrera begira urtero ospatzeko asmoarekin?

Ondobada eguna eta horretarako gogoz bagaude lehenengo Kuadrilla Eguna bigarrena ere edukiko du, denon artean sortu eta ospatuko duguna.

Mintzodromoa egingo dute euskaltegian abenduaren 3an

M.A. | ARETXABALETA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoarekin mintzodromoa izango dute Leintz Udala euskaltegian abenduaren 3an, 09:30ean hasita. Euskaltegiko ikasle guztiak elkartuko dira han, eta kanpokoendako ere zabalik izango dituztela atek jakinarazi du Karmele Agirregabiriak, euskaltegiko zuzendariak: "Kafe baten bueltan elkartu eta kontu kontari jardungo dugu gai baten gainean. Eta euskaltegiko kideekin batera Euskararen Eguna ospatu gura dituzten herritarrek pozik hartuko ditugu".

Ekitaldia nagusia 18:30ean

Loramendi elkarteak ere ospatuko du Euskararen Nazioarteko Eguna datorren egunean. 17:00etan hasi eta 18:30ak arte umeei eta gaztetxoek tailerrak izango dituzte Herriko Plazan. Ekitaldi nagusia 18:30ean hasiko da: "Umeei eta gazteek lurrean irudikatuko duten leloa kandlekin inguratuko dute eta mezu bat irakurriko da", jakinarazi du Irati Urkiak, Loramendiko dinamizatzaileak.

Txokolate beroa lagun giroan hartuta bukatuko dute euskararen bueltan antolatutako ospakizuna.



ODILO VAZQUEZ

Alex Elortondo Donostiako erakustaldian

Erakustaldi dotoreak eskaini zituzten joan den zapatuan, Donostian, Europako hainbat herrialdeetatik etorritako karatekek. Adimen urritasuna duten karate kirolarien seigarren nazioarteko txapelketa egin zuten, eta han izan zen, beste urte batez, Aretxabalete kirol elkarteak Alex Elortondo. Odei Vazquez kidea eta Odilo Vazquez entrenatzailea lagun zituela joan zen eta oso gustura jardun zuen.

UDAKo karatekek abenduaren 12an dute hurrengo txapelketa. Infantilek, kimuek eta benjaminen Gabonetako Saria jokatuko dute.

Buzkantzak eskainiko dituzte UDAKoek gaur Pagaldaixenean

Buzkantzak eskainiko dizkiete herritarrei Aretxabalete kirol elkarteak kideek gaur, azaroak 27, udazkeneko egubakoitz hotza goxatzeko. Azken urteotan legez Durana kalean dagoen Pagaldaixena lokalean elkartuko dira eta 18:30ak geroztik geratu izango dituzte bai jatekoa, bai edatekoa.

Beitilarringoitia eta Beola martitzenean udaletxe zaharrean

EH Bilduko kide Marian Beitilarringoitia eta Ainhoa Beola izango dira martitzenean, abenduak 1, udaletxe zaharrean, 19:00etan. *Zure hautagaiei galdezka* izenarekin abenduaren 20ko hauteskundeetan Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu den Beitilarringoitiak herritarren zalantzak argituko ditu.

"Oso pozik" omenaldiarekin

Joan den domekan, Santa Zezilia egunez, omendu zuten parrokiako kideek Jose Luis Arratibel, 50 urte bete dituelako sakristau lanetan. Meza nagusia bukatu ostean, herriko abadeekin eta Aretxabalete Abesbatzako kideekin bazkaldu zuen: "Ez dut abesten, ez naiz musikaria, baina 50 urteotan Santa Zezilia ospatu dut mahaiaren bueltan, abesbatzarekin batera", zioen, pozik.

Irakur puntua egiteko marrazki lehiaketara aurkezteko azken eguna gaur da, egubakoitza

Udal Liburutegiak marrazki lehiaketa deitu du 12 eta 16 urte artekoendako. Irakur puntuaren irudia egiteko da lehiaketa, eta gaur bukatuko da epea. Irabazleak 150 euro jasoko ditu.

Marrazkiak honako tamaina hau izango du: 20 zentimetroko altuera eta 5,5 zentimetroko zabalera. Gaia eta teknika, ostera, libreak dira. Baina marrazkiak inon argitaratu gabea izan behar du. Lanak entregatzerakoan bi kartazal eraman behar du: liburutegira, anonimosuna gordetzeko. Kartazal batean marrazkia egongo da tolestu gabe eta bestean egilearen datuak izen-abizenak eta telefono zenbakia. Eta bietan, kanpoaldean, ezizen edo lelo berbera jarri behar da.

Abenduaren 22an eta 23an kiroldegian jarriko duten parkerako begiraleak behar ditu Udalak

Gabonetako parkea jarriko du Udalak abenduaren 22an eta 23an Ibarra kiroldegian. 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei jolas ugari izango dituzte han. Zaintzaile lanak egin eta sarrerak saltzeko begiraleak behar dituzte. Baldintza izango da 18 urte bete izatea, eta kontuan hartuko dituzte honako hauek: begirale titulua izatea (5 puntu); irakasle ikasketak, psikologia edo pedagogia izatea (3 puntu); Gabonetako parkean begirale ibili izana (2 puntu); udaleku irekietan egon izana (1 puntu); udaleku itxietan egon izana (1 puntu); eta EGA titulua izatea (1 puntu).

Curriculumak udaletxean utzi behar dira edo gazteria@aretxabaleta.eus helbidera bidali. Azken eguna da abenduaren 9a.



KURTZEBARRI ESKOLA

Giza balioak lantzen eskolan

Haurrek dituzten hamar eskubideak landu ditugu Kurtzabarri eskolan eta kaxa bakoitzean eskubide bat ageri da. Ikasleak eskubideez mintzatu dira, baita gustura ibili ere, eta emakumeen indarkeriaren aurkako egunean ekintza bereziak egin ditugu. Gure eskolan giza balioei garrantzi handia ematen diegu eta landu beharrekoa dela ikusten dugu.

Iritzi guztien gainera, herriak du erabakia

- ▶ Zeresana duten alde guztien ikuspuntua jaso du GOIENAK
- ▶ 3.289 eskoriatzarrek izango dute botoa emateko eskubidea

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Etzi, domeka, egingo den kontsultari lotutako gaiak sentsibilizazio ugari urratzen dituela jakitun, eta irakurleei ahalik eta informazio osoena, praktikoa eta orekatuena emateko helburuarekin, aurreko agintaldian Eskoriatzan alkatetzan egon zen eta, ondorioz, indarrean dagoen hiri hondakinak batzeko sistema ipintzeko ardura izan zuen EH Bilduri eta gaur

egun sistemok aldatzeko herri galdeketa deitu duen EAJri galdera berberak planteatu dizkio GOIENAK, sistemaren funtzionamenduan, kostuan edo emaitzetan oinarrituta. Eta haiekin batera, euren iritzia emateko aukera izan dute, baita ere, Eskoriatzan udalbatza osatzen duten Irabaziko zein Elizateetako ordezkariak eta hiri hondakinaren gaineko bestelako taldeek ere.

Azken urteotako bilketa sistema aplikatu dutenei eta aldaketa proposatzen dutenei galderak

1. Zein da sistemarik eraginkorrena emaitzei begiratuta?

2. Eta merkeena?

3. Baliabide pertsonaletan zela gauzatzen da sistema hori?

4. Eta baliabide materialetan?

5. Zein da sistemarik garbiena?

6. Zein sistema da herritarrendako erosoena?

7. Helburu jakinen bat ezarri behar zaio edozein sistemari?

8. Eta helburu hori betetzen ez bada, zer?

1. "Bosgarren ontziaren sistema, 1. dudarik gabe. Diru aldetik, askoz merkeagoa da eta gaikako bilketa tasa handiak lortzen dira. Gainera, borondatezkoa denez, ez da *zabor turismoa* sortzen. Kamioi gutxiago erabiltzen dira eta bilketa azkarragoa da. Beraz, gutxiago kutsatzen du".

2. "Euskadiko Kontuen Epaitegiak aitortu zuen bezala, atez ateko sistema bilketa kostuak bikoiztu egin ditu".

5. "Gure kaleak besterik ez dugu 5. begiratu behar. Atez ateko sistema zikina da: poltsak lurretik, animaliak apurtuta edota haizeak eramanda. Hainbat zabor nahastuta...".

7. "Bosgarren ontzi sistema erabiltzen duten hainbat herri frogatu dute jadanik bilketa tasa altuak lortzen ari direla. Hori esanda, helburua hiritarrek jarri

behar dute borondatez, ez alderdi politiko batek inposatuz".

8. "Gure gizartea heldua da, ez dituzte alderdi politikoen argibideak jarraitu behar. Askatasunez eta borondatez, edozein helburu lortu daitekeelakoan gaude".

Oharra

3., 4. eta 6. galderak ez dituzte erantzun Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak. Azaldu du erantzun dituen galderekin informazio nahikoa eman duela beraien ikuspuntua adierazteko.



JOSERRA ZUBIZARRETA | ESKORIATZAKO ALKATEA

1. "Atez atekoa. Atez ateko bilketa selektiboarekin kantitatea eta kalitatea bermatuta daude. Mankomunitatearen datuak ditugu: ontzi arinengatik Ekoenbestetik jasotzen diren hobariak azken lau urteetan bikoiztu egin dira. Guztira, 500.000 euro gehiago. Organikoaren kalitatea ere hobea da. Aldiz, edukiontzi marroian nahikoa da batek gaizki egitea, guztia zabortegira bideratu behar izateko".

2. "Bilketaren kostuari soilik erreparatzen badiogu, txip bidez kontrolatutako edukiontzien sistema da merkeagoa. Baina bilketa sistema baten bideragarritasun ekonomikoa aztertzeke orduan aspektu guztiei begiratu behar zaie; hau da, gastuak eta sarrerak. Eta atez atekoarekin diru sarrera gehiago lortzen dira, birziklatzera bideratutako hondakinak kalitatearen arabera ordaintzen direlako, eta atez atekoarekin batutako

hondakinek kalitate eta purutasun hobea dutelako. Egundarrendan dauden sistemekin 2014tik 2015era estali beharreko kostua jaitsi da 800.000 euro".

3. "Atez ateko sistemak lanpostuak sortu ditu eta kontrolatutako edukiontzien sistema ezartzeak 7,5 lanposturen galera suposa lezake".

4. "Egungo sistemak baliabide materialak aldeztu aurretik ezarriatu. Sistema aldatzeak inbertsio eta gastu berriak egitea suposatuko luke. Mantentze aldetik ere askoz garestiagoa da txip bidez kontrolatutako edukiontzien mantentzea atez atekoarena baino".

5. "Atez atekoa. Sistema ondo 5. betetzen bada, gure hondakinak, asko jota, lau zapabost ordu egiten du kalean. Ilunkeran atara eta gauean jasotzen da. Beste sistemak ahalbidetzen du edukiontzietan egunero egon daitekeela hondakina bertan bilduta, urteko 365 egunetan. Honek usainak eta garbitasun falta eragiten ditu; higiena, azken finean, asko



AITOR ZUBIZARRETA
EH BILDUKO ZINEGOTZIA

zigortzen du. Gainera, edukiontziak garbitu behar dira eta gehienetan ezin izaten da, beti poltsak egoten direlako...".

6. "Bilketa guneen gertutasunari garrantzia ematen badiogu, oro har, atez atekoa izango da erosoena, etxetik hurbilago izango baitugu. Kontrolatutako edukiontzien sistemarekin bilgune puntuak Eskoriatzaren kasuan 51tik 29ra jaisten dira, honek dakarren urruntasunarekin. Beste aldagai bat izan daiteke edu-

kiontzien tapak jasotzeak suposa dezakeen esfortzua eta txartelaren bidez zabaldu behar izatea. Honek mugikortasun murriztua duten pertsonen, gaztetxoen edo pertsona nagusienei zuzenean eragiten die. Atez ateko sistema, pertsona hauentzako, adibidez, askoz erosoagoa da eta beraien autonomia bermatzen du".

7. "Eskoriatzako bilketa selektiboa %80 inguruan dago. Egingandako jauzia handia da, eta hori ezin da baztertu. Udalean % 70eko helburua onartuta dago. Hori gaintitu ondoren aukeratzen den sistema aukeratzen dela hortik gora jo beharko dugu".

8. "Kontrolatutako edukiontzien sistema ezarri eta helburua betetzen ez bada, neurri zuzentzaileak hartu beharko dira. Aretxabaletan lortutako akordioaren antzeko erabakia hartu beharko du Udalak. Hala ere, gaur egun dugun atez ateko sistemarekin helburua betetzen dugu, eta gure erroka emaitza hau hobetzen jarraitzea izan behar da. Ezin dugu atzerapausorik eman".



Udalean ordezkaritza duten gainerako alderdiei eta gaian zeresana izan duten bestelako plataformei galderak

Zein sistemaren aldeko botoa eskatzen duzue domekarako? Zergatik?



RAFA BERNAL
IRABAZI ESKORIATZAKO ZINEGOTZIA

"Irabazi Eskoriatzak ez du bilketa sistema bat edo bestea babesten. Gaur egun dauden birziklatze tasak mantentzea da bakarrik kezkatzen gaituen gaia -%75etik gora-, eta gure Udaleko jasangarritasunaren alde lanean jarraitzea da nahi duguna. Harro egon beharko genuke gaur egun Eskoriatzako birziklatze tasa Europako altuenetako dela jakinda -%75 baino handiagoa-. Hau posible izan da, guztion konpromiso eta ardurarengatik. Izan ere, sistemak funtzionatu dezan posible egiten dutenak pertsonak dira.

Zoritxarrez, bilketa sistema eztabaida gai bat izan da, eta gatazka politikoak oraindik jarraitzen du. Horregatik, denon parte-hartzearekin egoera hau gainditu beharra daukagu. Irabazi Eskoriatza alderditik sinisten dugu erabaki onena birziklatze tasa gutxien suposatzen duen sistema izango dela, eta herriak demokratikoki erabakitako aukera dela onena".



IÑAKI KEREXETA
ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA

"Eskoriatzako Elizateen Elkartetik domeka honetako herri galdeketa parte hartzera deitu nahi ditugu elizateetako bizilagunak. Izan ere, elizateetako auzo-alkateekin hitz egin da, auzokideei abisatu zaie galdeketa horretan irteten den sistema -atez atekoa, bosgarren edukiontzia edo sistema mistoa- herri osoan, elizateetan barne, ezarriko dela. Eta, horrenbestez, elizateetako biztanleen esku jartzen dugu sistema aukeraketa, etorkizunean izan daitezkeen ondorioak kontuan hartuta. Hain zuzen ere, bakoitzak bere balorazioa egin beharko du horren gainean, eta, hala, nahi duen erabakia hartu.

Errealitate ezberdinak daude, eta, hori dela eta, guk ez dugu sistema baten aldeko edo bestearekiko kanpainarik egin. Bada, esandakoa laburbilduz, bakoitzak erabaki dezala atez atekoaren, bosgarren edukiontzia edo sistema mistoaren alde egin".



LORE DIAZ
ESKORIATZA ZERO ZABOR

"Galdeketa bat planteatzen denean, ezinbestekoa da herritarrei informazio gardena ematea. Eskoriatzako alkateak, ordea, ez du ezta helbururik aipatu! Bi egun falta direnean, oraindik ez dakigu %75eko gaikako bilketa bermatzeko konpromisoa hartzen duen ere...

%75 bermatzeko balute, edukiontzia kontrolatuen sistema ez genuke gaizki ikusiko; hala ere, gure hautua atez atekoa da, emaitza onenak ematen dituelako. Bai kopuru aldetik -%80tik gora-, baita hondakin kalitate aldetik ere. Honi esker, atez atekoa da tratamendu gastu gutxien eta diru sarre- gehien lortzen dituenena. Baina ekonomikoaz gain, abantaila gehiago ditu: gertutasunak ematen duen erosotasuna -atez atekoaz batze puntuak bikoiztu egin dira- edo garbitasuna, adibidez -hondakinak ordu batzuk baino ez dira egoten kalean; edukiontzietan, aldiz, momentu oro egongo lirake, zikintasan eta usain arazoak sortuz-. Horregatik guztiagatik, eskoriatzarrak atez ateko sistemaren alde bozkatzera animatzen ditugu".



RAFA SALIDO
ESKORIATZA GARBIA

"Eskoriatza Garbia plataformak guztiz konbentziturata bosgarren edukiontzia alde bozkatuko du domekako herri galdeketa. Zentzuzko aukera bakarra da, sistema merkeena, garbiena, higienikoa, erosoena eta estetikoa. Azken urteotan, herri batek eskatu duen aukera da, eta herri batek aukeratzen duen funtzionatzen duela uste dugu, eta ez inposatzen duen sistema batek.

Eskoriatzarrak eta batutako 1.495 sinadurak ezin direla oker egon uste dugu. Eskoriatza bosgarren edukiontzia adibide onena izan behar dela uste dugu, hondakin bilketa selektibo onena lortuko dugulakoan. Herritarrok lan egin nahi dugu, politikariek zifrak eta argudioak eztabaidatzen dituzten bitartean. Izan ere, agintariek herritarrengan konfiantza izan behar dute, eta guk frogatuko diegu beraiek ematen ez diguten eredu bat garela. Bosgarren edukiontzia da alternatiba bakarra".

EREDU GARA! JARRAI DEZAGUN BIDEA

A. 5. EDUKIONTZI SISTEMA + ERRAUSKAILUA

B. EDUKIONTZI INDIBIDUALAK (ATEZ ATEKO SISTEMA)

C. SISTEMA MISTOA

ehbildu

HONDAKINEN BILKETA SISTEMARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

Ohiko hauteskunde modu berbera erabiliko da herri galdeketan

Hiru aukera egongo dira; bosgarren edukiontzia, atez atekoa eta sistema mistoa

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA
Azaroaren 29an, domekan, egingo da hondakinen bilketa sistemaren gaineko herri galdeketa Eskoriatzan. Kultura etxean lau mahai jarriko dira, hauteskundeetako bi sekzioak eta lau mahaiak mantenduta. Botoa 09:00etatik 20:00etara bitartean eman beharko da, eta emaitza egunean bertan jakinaraziko da.

Hau izango da galdera: *Hondakinen selektiboki biltzeko hiru sistema hauetatik, zein nahi duzu Eskoriatzan erabiltzea?* Eta hiru erantzun hauen artean aukeratu beharko da: *Edukiontzia kolektiboak* -5. edukiontzia sistema-, *Edukiontzia indibidualak* -atez ateko sistema- eta *Edukiontzia kolektiboak eta indibidualak* -sistema mistoa-. X batekin markatu beharko da hiru aukeretako bat, eta aukeratutako sistema udalerrira osoan ezarriko da, bai erdigunean eta baita Eskoriatzako auzo eta elizate guztietan ere.

Botoa emateko, orri bakoitzean erantzun bakarra jarri ahal izango da, eta herritarrek botatzeko eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, Udalak beraien esku jarriko ditu boto-txartelak eta gutun-azal ofizialak. Eredu ofizialetan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira.

Botatzeko eskubidea daukate 1997ko azaroaren 29an edo

lehenago jaiotakoek, eta Eskoriatzan erroldatuta egon beharko dute 2015eko irailaren 22a aurretik. Hain zuzen ere, 3.289 eskoriatzarrek daukate botoa emateko eskubidea, azken orduan egindako aldaketen arabera.

Aurretiazko botoak

Botoa aurretik emateko hiru egun ezarri ziren: azaroaren 20a, 23a eta 24a. Hala, hiru egun horietan egon da aukera botoa aurretik emateko, eta, guztira, 88 pertsonak eman dute aurretiazko botoa.

Boluntarioak aukeratuta

Hiru lagunek osatuko dute kultura etxean egongo diren lau mahaietako mahai bakoitza: mahaiburu bat -Udaleko langilea izango da- eta bi mahaikide -herritar boluntarioak izango dira-. Guztira, bederatzi boluntario aurkeztu dira, eta, zortzi behar zirenez, bat ordezko geratuko da.

DATUA

88

PERTSONA

Azaroaren 29a baino lehen, aurretiazko botoa 88 pertsonak eman dute.

Zuhaitz Gurrutzagaren 'Futbolisto baten konfidentziak' bakarriketa izango da zapatuan

Zuhaitz Gurrutzagak, Realean, Rayo Vallecanon eta Real Unionen aritutako futbolariak, agertokietara egin du jauzi. Hainbeste urtean politikoki zuzena izan ostean, bere kirol ibilbidean izandako bizipenak kontatzeko, zeharo lotsagabe. Entrenatzailer egazunez, taldekideez eta adiskideez, maitasunaz, desamodioez, egindako bidaiez, garaipenik gozoz edota porrotik gazienez arituko da ordu eta laurdeneko saioan. Zaldibar antzokian izango da Gurrutzagaren *Futbolisto baten konfidentziak* bakarriketa bihar, zapatua, 22:30ean. Sarrerak lau euro balio du eta Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean eros daitezke.

Mugikortasun planeko lehen fasea jendaurrean

Zirkulazioan aldaketak egiteko proposamena egin du Udalak, hiri-berritze bileretan jasotako ekarpenekin

MANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako hiri-berritze plana lantzeko bi bilera ireki egin zituen Udalak eskoriatzarrekin batera, eta ekarpen ugari jaso zituzten. Eskoriatza herritar guztien artean hobetzeko asmoarekin, Udaleko gobernu talde berriak egindako ekimen hori hauteskunde programan hartutako konpromiso baten parte da, eta hiri-berritze planaren proiekturako herritarrekin egindako bileren balorazio positiboa egin zuen Udalak.

Hala, bilera horietan batutako ideia nagusiekin, Udalak proposamen bat jarri du mahai gainean eta mugikortasun plana abian jarri gura du. Lehen faseari dagozkion aldaketak gaurtik aurrera jendaurrean egongo dira interesdunek aztertu eta egoki irizitako alegazioak egin ditzaten. Proposatutako aldaketa horiek hiru eremutan egingo dira: erdiko kalean, Dorletatik Sorautzera bitartean eta Olazar atzealdean, kanposantuaren azpian.

Jose Arana kalea, plaza aurreko errepidea, gaur egun noranzko bakarreko bidea da, eta aurreantzean bi noranzkoko errepidea izatea proposatzen da, lehen zegoen moduan jarrita eta Arbiñosteko bidea saihestuta.

Dorletatik Sorautzera bitarteko tartean, berriz, gaur egun Dorletatik Sorautzera dagoen bide zatiaren noranzkoa aldatzea proposatzen da, eta noranzko berria Sorautzetik Dorletara bitartekoa izatea. Hala, Bolibar auzora joateko, esaterako, herri osoari buelta eman beharrik ez da izango.

Olazar atzealdean, kanposantutik azpian, aldiz, Olazarko 10, 11



Jose Arana kalea gaur egun dagoen moduan, noranzko bakarrekin. | GOIENA



Jose Arana kalea, lehen zegoen moduan, bi noranzkotan. | GOIENA

eta 12. zenbakidun etxean atzealdeko norabidea aldatu eta goranzkoa jartzea proposatzen da. Modu horretara, bide edo garaje horietatik irteten direnek bi noranzkotara joateko aukera izango dute, Sorautzetik Dorletara edo Olazartik behera.

Mugikortasun planaren lehen fase horren informazio panelak bost lekutan ipiniko dira ikusgai: kiroldegian, liburutegian, kultura etxean, udaletxean eta Goiko kalean, Kokots tabernan -Goiko

kalean udal eraikinik ez dagoenez, bertako bizilagunei ere informazioa eskura jartzearen, tabernari baimena eskatu dio Udalak-.

Herritarren iritzia

Informazio panelekin batera, iradokizunak jasotzeko postontziak ere egongo dira, eta herritarrek bertan eman ahal izango dute iritzia. Dena den, ekarpenak posta elektronikoz egiteko aukera ere badago: hiri-berritzeplana@eskoriatza.eus. helbidera idatzita.

Hondakinen gaia izan dute hizpide galde-eskeen tartean

Azarako ohiko osoko bilkuran, oposizioak informazioa eskatu dio Udal Gobernuari

I.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzan ohiko osoko bilkura egin zuten martitzenean; azkar joan zen, eta aurreko ezohiko osoko bilkura baino giro lasaiagoan. Mahai gainean jarritako gai guztiak aho batez onartu zituzten, eta, galde-eskeen tartean, oposizioak eta aretoan batutako bi herritarrek

hondakinen gaineko herri galdeketa buruzko informazioa eskatu zioten Udal Gobernuari.

Oposizioak azaldu zuen informazioa falta dela eta herriak ez dakiela zer bozkatu behar duen; eta Udal Gobernuaren erantzuna izan zen kontsultaren gaia behin eta berriz kontrastatu eta azaldu

dutela, lana batzordeetan dagoela eta ez osoko bilkuretan, eta domekatik aurrera ere batzordeetan egin beharko dutela lan, "galdeketa irteten dena ondo lantzeko".

Sorturen irakurketa

Eskoriatzako Sortuk osoko bilkuren gainean adierazi du "udalbatzan galdera dezente" planteatu direla eta "erantzun gutxi" eman dituztela, "garbi gelditu den bakarra bosgarren edukiontzia txip gabea" izango dela adierazita.

Alkateak, berriz, horri erantzunez zera adierazi du: "Benetan maltzurra izan behar da horrelako balorazioak egiteko. Goierna telebistako irudiak ikustea besterik ez dago horrela ez dela jabetzeko. Ez dakit zer den lortu nahi dutena, baina, askotan esan dugun moduan, herria izango da gauzak bere lekuan ipiniko dituen".

KARTING BERRIA

GASTEIZEN



AZAROAREN 29AN
INAUGURAZIO-EKITALDI ITZELA!

**DRIFTING ERAKUSTALDIA BMW M3 BY
BMW POWER**

DJ BIDEZKO ANIMAZIOA
DRIFTING KART INDOOR IKUSTEKO
BISITA GIDATUAK

CAR CROSS ERAKUSTALDIA
Jarduerak egun osoan



Informazio gehiago nahi izanez gero: bigkarting.com



Karmele Korta: "Berdintasuna eta prebentzioa lantzea da helburua"

- ▶ Defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatu du Bideberri mankomunitateak urtarrilerako Antzuolan
- ▶ Etxeko balkoietan jartzeko puntu lila daukan izara salgai dago bi euroren truke udaletxean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bideberri mankomunitateko Gizarte Zerbitzuko teknikaria da Karmele Korta. Elgetak, Leintz Gatzagak eta Antzuolak osatzen dute Bideberri mankomunitatea 2007az geroztik. Kortak dio Deba-goieneko hiru herri txikietan hainbat programa abian jartzeko eta aurrera eramateko beharra ikusita sortu zela Bideberri: "Berdintasunaren gaiari forma eman eta bultzada ematea izan da helburu nagusienetako bat, prebentzioari lehentasuna ematen diogu-eta herri txikietan ere".

'Berdin bidean' plana

"Duela urte batzuk Gipuzkoako Diputazioak *Berdin bidean* plana jarri zuen abian, herri txikiei laguntzeko eta berdintasuna sustatzeko herritarren artean. Herri handietan badaude teknikariak lanean dihardutenak. Baina herri txikiei babes eta laguntza emateko beharrezkoa izan da ekimen hau. Honi esker, hainbat ekintza egitea posible izan da", argitu du Gizarte Zerbitzuko teknikariak.



Eguaztenean egindako elkarretaratzean herritar ugari batu zen udaletxeko aterpean. | OIER PEÑAGARIKANO

Autodefentsa pertsonala

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira (azaroak 25), autodefentsa ikastaroa antolatu du Bideberri. Antzuolan urtarrilean egingo da eta izena emateko epea

abenduan zabalduko da. Gainera, aurtun nobedade gisa puntu lila daraman izara kaleratu dute. Hala, etxeko balkoian jarri nahi duen herritarrak udaletxean bi euroren truke eskuratu ahal izango du izara.

Elkarretaratze jendetsua

Azaroaren 25ean herritar ugari *Emakumeen kontrako indarkeriarik ez!* leloa aldarrikatu zuten plazan. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean kontzientzia hartzeko deia darra egin zuten.



Olaran etxean astero batzen dira eskulanak egiteko. | MAITE TXINTXURRETA

Gaztetxoan eta helduen sormena lantzeko eskulanak Olaranen

Antzuolako gaztetxoak eta helduak batzen dira astero askotariko arte lanak egiteko asmoz

M.A. | ANTZUOLA

Eduarne Uribesalgo arrasatearrak urteak daramatza eskulan ikastaroak eskaintzen Antzuolan. Helduendako eskulan ikastaroekin hasi bazen ere, herriko haurren beharrei erantzuna eman guran gaztetxoendako taldea sortu zuen. Margotze lanak egiten dituzte, gehienbat; objektu zahar asko ere berritzen dituzte ikasleek ondoren berreraileteko.

"Gaztetxoak gusturen margoitzen ibiltzen dira. Ez dago adinik, ondo pasatzeko gogoia ekarri behar

da soilik. Eskulanak egitean, gainontzeko arazoekin ahaztu egiten dira ikasleak".

Erantzun bikaina izaten dute ikastaroek. Ondorioz, txiki geratu zaiela gela dio: "Txandaka antolatu behar ditugu taldeak. Antzuola oso aktiboa da eta antolatzen diren ekintzetara asko animatzen dira". Gabonak ere ate joka daudenez, apaingarriak eta opariak egingo dituztela asteotan dio: "Material birziklagarria erabiliko dugu Gabonetako eskulanak egiteko; kortxoak, adibidez".



NAGORE ETA GARAZI IKASLEAK

"Oso gustura etortzen gara eskulanean ikastarora. Orain, koadroak egiten ari gara. Izan ere, margotzea da gehien gustatzen zaiguna. Gabonetako apaingarriak egiten ere laster hasiko gara, gainera. Primeran pasatzen dugu elkarrekin; orain, gainera, gazteendako taldea ere badago!".



AMAIA ETA ESTITXU IKASLEAK

"Gustura, ilusioz gabiltza eskulanean; ni hasiberria naiz, baina Estitxuk gutxienez hamar bat urte daramatza Edurnekin eskulanak egiten. Orain, egurrekin lan ezberdinak egiten gabiltza biok. Estitxu, baina, irakasleak ikasi berri duen teknika probatzen ari da".

Euskararen Eguna ospatzeko hitzaldia eta erakusketa

Abenduaren 3an ospatuko da Euskararen Eguna. Horren baitan, Kultura Sailak eta Udal Liburutegiak hitzaldi bat eta erakusketa bat antolatu dituzte. Gaur, egubakoitzea, Uemak prestatutako *Euskararen arnaguneak* erakusketa ikusteko aukera izango da Olaranen (azaroaren 27tik 29ra 18:30etik 20:30era bitartean). Eta abenduaren 3an, *Euskera Iruña-Veleian* hitzaldia eskainiko du Juan Martin Elempuru hizlariak, 18:00etan hasita, Olaran etxean.

Arrola taldearekin tramita daiteke federatu txartela

2016ko federatu txartelen tramitazioarekin hasi da Arrola taldea. Federatuta egotea derri-gorrezkoa ez bada ere, diote gomendagarria dela mendian sarri ibiltzen direnendako. "Istripu kasuan, aterpetxea lortzerakoan, zenbait deskontu eta abantaila izan nahi badira, federatzea gomendatzen dugu", diote. Interesa duenak federatzeko aukera izango du abenduaren 3an 18:30etik 19:30era bitartean Olaranera joanda.

NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE



Inkoherentziarekin balantzaka

Sarri eztabaidatzen dugu. Baina zein da eztabaiden helburua? Ateratzen al diegu etekinik? Zein izaten den auskalo, baina eztabaida ororen helburuak arrazoizko ondorioak ateratzea izan behar luke. Eztabaida batek, ondorio baliagarriak izango badu, parte hartzaileek gaia ahalik eta ikuspegi objektiboetik aztertzea eskatzen du.

Hau da, eztabaidatzera koan alboratu behar dira eztabaida horretan ondorioztatutakoek bakoitzari sor diezazkioketen kontraesanak. Pertsonak gara eta beti izango dugu ikuspuntu subjektibo bat, baina jarrera kontua da.

Eztabaida dezagun objektiboki, une batez gure bizimodutik abstraitzeko saiakera zintzoa eginez, eta behin eztabaidan ondorio arrazionalak aterata azter dezala bakoitzak ondorio horiek ze inkoherentzia sortzen dizkionten, horietako zeintzuk onartzeko prest dagoen eta zeintzuk ez, eta ze ahalegin eskatzen dion gainditzeak.

Soilik honela eztabaidatuta ezarri ahalko ditugu gizarte justu baten oinarri ideologikoak.

A, bi kontu. Bata: inkoherentziarekin bizitzen jakin behar bada ere, hau ez da inkoherentziarekin lasai bizitzearen aldeko apologia bat. Bestea: eztabaida orotan beharrezkoa izango da eztabaida kideek helburu gaiztorik ez izatea. Helburu gaiztoak dituenari, arrazoitze gutxi eta behartze asko.

OHARRAK

GAZTAINA ERRE JANA

Azaroaren 29an, domekan, gaztaina erre dastaketa egingo da Herriko Plazan, 19:00etan.

MARRAZKI LEHIAKETA

Gabonak ate joka daudela eta, Xinkonak Gabonetako marrazki lehiaketa abian jarri du. Ez dago izena eman beharrik aurrez. Parte hartu gura duenak marrazki original bat eramane beharko du Xinkonara abenduaren 4a baino lehen.

TXISTULARIEN DIANA

Domekan, azaroak 29, herriko txistulari taldearen diana izango da, 10:00etan hasita. Herriko kaleetan barrena ibiliko dira, eguraldiak lagunduz gero.

Indarkeria matxistaren aurka agertu dira herritarrak, beste behin

Nazioarteko egunaren harira murala margotu zuten zapatu goizean; herriko sarreran dago ikusgai

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Indarkeria matxista inoiz, inori, inon pankartaren atzean 50 bat herritar elkartu ziren eguaztean. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira egindako agerraldia izan zen.

Agerraldiaren amaieran manifestua irakurri zuen Mertxe Elortzak. Azaroaren 25eko ekitaldiak antolatatu dituen lantaldeak idatzitako manifestua izan zen.

Sei kupel margotu zituzten

Aste bukaeran egin zituzten lehenengo ekitaldiak. Zapatu goizean kupelak margotu zituzten herriko sei taldek: Alaiak erretiratuen elkarteak, Txirritolak, Itur Zuri Emakume Elkarteak, Bertso Eskolak, Gazte Asanbladak eta gazte lokalak. Kupel horiek auzoetan jarriko dituzte; horrez gain, beste bi kupel margotuko dituzte Oletan eta eskolan.

Maialen Aldai gazteak murala margotu zuen zapatuan. Ibarra auzoan jarri dute murala, biribilgunearen ondoan. Horrez gain, okindegi parean kartel bat jarri dute indarkeria matxistaren ondorioz hil diren emakumeak gogora ekartzeko. Kartel hori hainbat hilabetez egongo da ikusgai.

Ikus-entzunezkoak

Gazte lokalean film laburren emanaldia eta solasaldia egin zuten arrakastaz barikuan. Zapatuan, aldiz, Maitane Arnaizek gidatuta solasaldia egin zuten *50 sombras de Grey* filmaren gainean.



Eguazteneko agerraldia udaletxeko arkupeetan egin zuten. | CRISTINA ETXENAUZIA



Indarkeria matxista salatzen, murala margotu dute. | ARANTZAZU EZKIBEL



MIRARI ALTUBE

Hitanoa ikasten ibili dira 13 lagun

Txirritolak antolatuta, martitzen eta eguaztenean ibili ziren Aramaioko hitanoa ikasten. Txipi Ormaetxea izan zen gidaria, eta saio teoriko eta praktikoak egin zituzten. Orokorrean, eta baita Aramaioren ere, galtzen dabil hitanoa erabiltzeko ohitura. Horrelako ikastaroekin bultzada eman nahi zaio.



Xabi Igoa oholza gainean bertsoan. | GOIENA

Gazteak plazara igoko dira gaur, Sastiñan

Bertso saioa egingo dute, Arabako Bertsozale Elkarteak antolatuta: 19:00etan izango da

A.E. | ARAMAIO

Bertsolaritza sasoitsu dago Aramaioren; horren erakusle da bertso eskolak esku artean dituen ekitaldiak. Gaur iluntzean, Arabako Bertsozale Elkarteak antolatuta, bertso saioa eskainiko dute Maddalen Arrausik, Xabi Igoak, Iñaki Lertxundik eta Jon Sanchezek. Saioa Sastiñan izango da, 19:00etan. Gai jartzailea Nieves del Alamo izango da. Helburua da gazteei plazara igotzeko aukera eskaintzea.

Bertsotruk egitasmoa

Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak antolatuta, Bertsotruk egitasmoa abian jarri berri dute. 26 bertso eskolak eman dute izena ekimenean parte hartzeko; tartean, Aramaiokoak. Bertso eskolen arte-

ko harremanak sustatzea da asmoa. Hala, 26 eskolak bederatzi multzotan banatu dituzte: Aramaioren multzoan daude Hernani eta Zumarraga-Urretxu.

Eskola bakoitzak bere multzoko beste biak hartuko ditu etxean, eta beste bi herriek antolatutako ekitaldietara joan beharko du. 2015eko azarotik 2016ko maiatzera bitartean izango da ekimena. Aramaiok bi ekitaldi antolatuko ditu –desafio bat Hernaniren aurka eta beste desafio Urretxu-Zumarragaren aurka-. Xabi Igoak azaldu du hurrengo hilabeteetan konpromiso asko dituztela: horregatik, seguruenek, apirila inguruan egingo dituztela saioak. Emanaldiak izan daitezke: saioa formalak, bertso-afariak, bertso-antzerkia...

Aloña azpian dagoen Urzulo kobari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko dute kultura etxean

Orixol Mendi Elkarteak antolatuta, lur azpiko mundua ezagutzeko aukera egongo da. Aloña Mendi Espeleologia elkarteak egindako *Urzulo* filma eskainiko dute, kultura etxean, 18:30ean. Filmeko zuzendari Xanti Ugarte eta dokumentalean parte hartu duen Martin Arriolabengoa espeleologoa emanaldian egongo dira ikusleen galderak erantzuteko.

Ibarran dagoen biribilgunea itxi egingo dute astelehenean eta trafikoa goitik bideratuko dute

Santakurtz Abadearen plazatxoaren egoera txarrean dago; galtzadaren harri asko apurtuta daude. Hala, konponketa lanak egingo dituzte hurrengo astean. Astelehenean biribilgunea itxi egingo dute –zehazki, Nardeaga kalerako irteera itxiko dute-. Hala, trafikoa Pedro Ignazio Barrutia kaletik bideratuko dute –baita autobus zerbitzua ere-. Udaletik eskatu dute autoak ondo apartkatzea; Ertzaintza ibiliko da gaizki aparkatutakoak multak jartzen.

Laboral Kutxako kutzazain automatikoak ez du zerbitzurik eskainiko gaurtik martitzenera arte

Laboral Kutxako bulegoan hainbat lan egin behar dituzte; hori horrela, gaur goizetik martitzenera arte –abenduak 1– kutzazain automatikoa zerbitzuz kanpo egongo da. Beste kutzazain batean dirua ateratzeagatik komisio ordaindu behar izanez gero, Aramaioko Laboral Kutxaren bulegotik pasatzeko abisua eman dute. Telebanka, *on line* Banka eta Laboral Kutxako kutzazain sarearen bidez egin daitezke gainerako eragiketak.

Bertsoak eta argazki lehiaketa azken domeka girotzeko

Kameralariek lau gai eta 45 minutu izango dituzte irudi onenak aurkezteko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Pintxo lehiaketako hirugarren eta azken domeka dute Elgetan. Honako honetan, Manex Agirre eta Xabier Igoa bertsolariak girotuko dute eguerdiko txikiteoa. Tabernaz taberna ariko dira bertsoan, 13:00etan hasita.

Aurretik, argazki lehiaketa izango da jokoan. Udalak antolatu du eta herritar guztiei dago zabalik. Interesatuak 11:45etik aurrera plazan egongo den mahaian eman beharko dute izena, eta antolatzaileek 12:00etan jakinaraziko dute zeintzuk diren lehiaketarako aukeratu dituzten lau gaiak. Argazkilariek 45 minutuko epea izango dute gai bakoitzeko argazki bana aurkezteko. Argazki kamera digital bat jasoko du argazki sorta onena aurkezteko duenak. Epaimahaiaren erabakia hurrengo astean zehar emango dute aditzera.



Argazkia ateratzen aurreko argazki lehiaketa baterako. | L.Z.

Pintxo lehiaketa amaitzean

Elgetako ostalariek lehiaketara aurkeztutako pintxoak eskaintzen jarraituko dute. Euro bateko prezioan nor bere pintxo onena eskainiko du. Bezeroei dagokie 2015eko Herritarren Saria erabakitzea. Horretarako, botoa eman behar dute, eta parte hartzeak saria izan dezake. Udalak datorren aste hasieran emango du Herritarren Sariaren eta tabernaz taberna egindako zozketen emaitzen berri.

Udal Gobernuaren ondorio nagusiak abenduaren 10ean

L.Z. | ELGETA

Hogei bat lagun elkartu ziren eguaztenean *Denon artian denon herrixa* ekimeneko bigarren herri batzarrean. Herri-tarek egindako proposamenen artean garrantzitsuenak zeintzuk diren definitu zuten eta egitekoa den parte hartze ordenantzaren oinarriak landu zituzten. Udal Gobernuak abenduaren 10ean egingo du prozesu horretatik ateratako ondorio nagusien jendaurreko aurkezpena. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan.



L.Z.

Indarkeria matxistari ez!

Azaroaren 25ean, indarkeria matxista egoerak amaitzeko eskatu dute Elgetan ere. Egoera ikusarazteko eta salatzeke ahaleginean bat egin dute autodefentsa feminista tailer batek, udalbatzak aho batez onartutako adierazpen instituzionalak, zapata gorriekin plazan egindako arte instalazio batek eta eguazten iluntzeko elkarretaratze isilak —irudian—.

LEINTZ GATZAGA

Antzerkiak filmatuko dituzte ludotekako neska mutikoen

Talo tailerraren arrakasta ikusita, Gabonetan ere ekintza berezia egin gura dute

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

San Milixan artisau azokan herriko haur helduenek talo tailerra jarri zuten, eta, horrek izandako arrakasta ikusita, Gabonetarako beste ekintza berezi bat prestatu gura izan du Gurel Guraso Elkarteak: ludotekako haurrei galdetu ostean, antzerkiak egin, horiek grabatu eta muntatuko dituzte.

Bi egun desberdinetan —zehaztuko dituzte egunak— egingo dute hori guztia; izan ere, Gabonetan

"egun solte" asko daude eta horrela, ez da dena egun batean pila-tuko.

Aurten ludotekak bi begirale baditu ere, Gabonetako ekintza berezietarako Orotz-Beteluko Amaia Elizagoien laguntza izango dute: bertsolaria eta ipuin-kontalaria da eta irakasle ikasketak egiten dabil Huhezin.

Trikitilariekin kantuan

Bestalde, abenduaren 24ko urteetako ohiturari jarraituz, base-

rriz baserri joango dira herri-tarrak Gabon kantak abesten, baina, iaz trikiti-eskola eratu zuten herrian, lehendabizikoz trikitilarien laguntza izango dute aurten. Oraindik plana finkatzeko dago, baina urterokoari eutsiko diote: autobus txiki baten eta autoen laguntzarekin herriko auzoetatik joango dira kantuan eta herrian amaituko dute. Ostean, guztiek bazkaria egingo dute Toki Eder elkartean.



Lur, Xabat, Ainhize, Goreti eta Ayane, ludotekan. | GARAZI OROBENGOA

PILOTA TXAPELKETA

AURREKO ASTE BUKAERAKO EMAITZAK

Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Josu Mañarikua-Berñat Arabaolaza	16-18
Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal / Etor Garate-Eneko Maguregi	06-18
Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar	07-18
Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxina / Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe	18-16

GAUR, AZAROAK 27, 19:30EAN

Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre / Alberto Telleria-Angel Ibarluzea	
Asier Unzetabarrenetxea-Iker Zabaleta / Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe	
Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal	
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxina	
Epaileak: Andoni Elorza, Oskar Sarasua, Haritz Gallastegi eta Oskar Askasibar	

Aurten ere kontzertua, antzerki saioa, bingoa eta luntxa izango ditugu Gabonen aurretik

Bergarako Alai taldea kafe antzokian entzuteko aukera izango dugu abenduaren 2an, 18:00etan. Antzerkia Oñatiko Ikusi Makusi taldearen eskutik etorri da. *Hospital o manicomio* antzezlanaren egingo dute abenduaren 4an, 17:30ean. Urteroko bingo saioa abenduaren 9an egingo dugu, 17:00etan. Eta Gabonetako luntxa abenduaren 11n, 18:00etan.

KOMUNITATEA GOIENA
XALBADOR ELKARTEA | ELGETA

Izendatuta daude abenduaren 20ko hauteskunde orokorretarako hauteskunde mahaiko kideak zozketa

Udalak egin du hauteskunde mahaian egotera deituak diren herritarren izendatzeko zozketa. Sergio Bouzasi egokitu zaio mahaiko presidente kargua; lehen bokala Arantxa Askasibar da eta bigarren bokala Idoia Urgoitia. Ordezkoak dira, hurrenez hurren, Mikel Elkoro eta Esteban Asensio, Txomin de Vega eta Gaizka Bolinaga, eta Sandra Gonzalez eta Juan Maria Aranzeta.

'Erabili erabizi' lelopean, eguenean, Euskararen Eguna aldarrikatuko dute herriko hainbat eragilek

Badator Euskararen Nazioarteko Eguna eta egitarau zabala gertatu dute herriko hainbat eragilek elkarlanean. Goizean ekintza bereziak egingo dituzte eskolan, eta 16:15etik aurrera mosaiko erraldoia, txokolate-jana, musika... izango dira plazan —eguraldi txarra bada, frontoian—. Iluntzean, euskararen argia piztuko dute. Herritarrek parte hartzea gonbidatu dituzte.

OHARRAK

AZKEN BARIKUA

Gaur, 20:00etan, presoen eskubideen aldeko bilkura plazan.

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, Espaloitik abiatuta. Deitu: 943 79 64 63.

IKUSKIZUNA UMEENDAKO

Espaloian, bihar, 18:00etan, *Aladino* musikala. Sarrerak salgai.

HERRIXA DANTZAN

Domekan, 19:00etan, Espaloian, Patxi Monteroren gidaritzapean.

ZIKLO-KROSA

Zigor Urain | Arrasateko lasterketako antolatzailea

"Seguru gaude zirkuitu txukuna geratuko dela"

Laster hasiko dituzte Markuleten egingo duten probarako prestaketa lanak

XABIER URZELAI | ARRASATE

Abendu bi asteburutan Deba-goinean batuko dira Euskadiko Txapelketa jokatzeko dabilen ziklista guztiak: hilaren 13an Arrasateko ziklo-krosa egingo dute eta hilaren 20an Oñatikoa. Aste barruan Markuleten izan da GOIENA, antolatzaileekin zirkuitua nondik nora egingo duten ikuskatzen.

Markuleteko inguruek ematen dute zirkuitu polit bat egiteko?

Bai; zirkuitu txukuna geratuko da, Aramaio erreka ondoko zelaiak aprobeztatuta txukun geratuko da. Hasieran zalantzak genituen, beste leku batzuk ere begira ibili ginen, baina uste dut asmatu egingo dugula. Daukan gauza ona da herrian bertan dagoela, jendea paseatzen etor daiteke herrigunetik, eta aparkatzeko arazorik ere ez da egongo. Horrekin batera, helmugako zuzenean txosna jartzeko asmoa daukagu, goizetik eguerdira arte datozen zer edan izan dezaten. 10:00etan hasiko dira gaztetxoena, eta 14:00ak arte ikuskizuna egongo da. Gainera, ziklo-krosa poliki-poliki hazten dabilen kirol modalitatea da.

Ze ezaugarri izango ditu Arrasateko zirkuituak?

Bi alde ezberdinduko nituzke: horietako bat azkarragoa izango da, lauagoa; eta zirkuituaren beste alde, errekararen ondoan dagoena, teknikoagoa izango da, malda gehiago izango dituena. Orain arte zati txiki bat baino ez dugu garbitu, sasiak garbitzeko makinarekin, eta tramu horretan ziklistek bizikletak bizkarrera jaso beharko dituzte; jendeak horrelakoak ere ikusi



Zigor Urain eta Andoni Azkarate, aste barruan, Markuleten. | X.U.

"Peiak sartzen hasiko gara laster, eta zoruko belarra mozten"

gura izaten ditu. Orain momentuan belarra dago denean, baina ikusiko dugu zirkuitu lokatz sortzen den.

Lan handia geratzen zaizue.

Bai; zirkuituan apenas egin dugu ezer. Peiak jartzen hasiko gara laster, eta zoruko belarra mozten. Eta belarra mozten hasten garen momentuan ikusiko dugu zoru ze egoeratan dagoen, hau da, harri asko ote dagoen; eta harri horiek kendu egin beharko ditugu. Beste zona batean badakigu behiak egon ohi direla, eta zoru zuloz beteta egongo

da, seguru. Orain momentuan ez dago lokatzik, inor ez delako hemen ibili, baina sortuko da, eta lurra egonkortzeko bizikleta gainean buelta batzuk eman beharko ditugu.

Zenbat lagun ibiliko zarete lasterketa antolatzeko lanetan?

Lan batzuk zirkuituan bertan egin beharrekoak dira, baina ziklo-kros bat antolatzeko beste lan asko dago. Guztira, 30 lagun inguru-edo batuko gara.

Dagoeneko ziklo-kros denboraldi erdi egin duzue, baina, orain arte, lokatz gutxi izan duzue.

Bai; oraingo asteburuan bi lasterketa izango ditugu [Berrizen zapatuan, eta Lezaman domekan], eta orain arte izan ez duguna asteburu bakarrean tokatuko zaigu [Barre]. Gezurra badirudi ere, orain arte ez dugu batere lokatzik izan, baina amaitu da hori...



Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena sariekina. | ARRASATE ATLETIKO



ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena, Gipuzkoako atleta onenen artean

X.U. | ARRASATE

Urteak dira Arrasatek ez duela kalerik egiten, Gipuzkoako federazioak antolatzen duen atletismo galan urtero nabarmendu izan da etxeko ordezkariaren bat –edo hainbat–, eta, oraingoan, Malen Ruiz de Azuaren eta Istar Dapenaren lana saritu dute, 2014-2015 denboraldian egin duten lan onagatik.

Hala, joan den egubakoitzean Donostian batu ziren atleta gipuzkoar nabarmenenak, federazioak antolatzen duen galan.

Europako txapelketan

Malen Ruiz de Azua Gipuzkoako atleta onena izendatu zuten, denboraldian zehar lortutako podium guztiengatik, tartean, Espainiako txapelketan zilarra eskuratuta. Bestalde, Arrasatekoa Europako 21 urtez azpiko txapelketan egon da, Tallinen (Estonia).

Dapenari, ostera, brontzezko ezkurra eman zioten pertikaz saltoan Gipuzkoako junior mailako errekorra ontzeagatik (4,95 metro).

ATLETISMOA

Euskararen Egunaren harira herri krosa egingo dute Aramaion

A.E. | ARAMAIO

Euskararen Egunaren harira herri lasterketa antolatuko dute biharko, zapatua, Aramaion (12:00). *Aramaixon euskeraz bizi gure dot* lelopean, antolatzaileek hiru ibilbide prestatu dituzte, eta korrikalariak lau mailatan banatuta egongo dira.

Lehenengoa 270 metrokoa izango da, 6 urtera arteko umeei zuzendutakoa; bigarrena, 725 metrokoa, 6-12 urte bitarteko umeei zuzendutakoa; hirugarren ibilbidea, 2,2 kilometrokoa: 12-16 urte bitartekoek itzuli bat egin beharko dute eta 16 urtetik gorakoek bi itzuli –4,4 kilometro–.

Amaieran, luntxa eta *photocall*-a egongo da. Eta bihar goizean bertan izena eman ahal izango da, lasterketa hasi baino apur bat lehenago.



Korrikalari bat. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Tourreko zuzendariarekin batzartu da Murias taldeko Jon Odriozola

Taldea euskaldun bat Tourrera itzultzeko aukerez egin dute berba, Parisen

X.U. | OÑATI

Epe motzean helburu apalagoak baditu ere, jakinekoea da Jon Odriozolaren ametsetako bat dela euskal talde bat ostera ere Tourrean ordezkaturik ikustea, eta, poliki-poliki, horretarako dihardu pausoak ematen.

Euskadi Basque Country-Murias taldeko zuzendaria astelehenean batzartu zen Frantziako Tourreko zuzendari nagusi Christian Prudhommeekin, eta baita Frantziarako harreman

publikoetako arduradun Francis Lafarguerekin ere; hala, Parisen egindako batzarrean, talde euskaldunak Tourrean parte hartzeko dituen aukerak aztertu zituzten.

Helburua: 2018an Tourrean

Batzarrean, Christian Prudhomme begi onez ikusi zuen talde euskaldun bat berriz ere Frantziako Tourrean lehiatzearen aukera, eta euskal zaleek Tourraren historian izan duten

garrantzia azpimarratu zuen. Hala, ezarritako helburua erdiezteko lanetan hastea erabaki dute bi aldeek. Eta helburua garbia da, 2018ko Tourrean egotea.

Euskadiren ordezkari

Proiektua egonkortzeko bidean, Murias taldeak duela aste gutxi jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren babesa, eta 2016an *Euskadi Basque Country* izena eramango dute maillotean; Horrek babesle gehiago erakartzea espero dute.



Jon Odriozola, Christian Prudhomme eta Francis Lafargue. | MURIAS

BERGARAKO CHEF ONENAREN BILA



GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'
EGUAZTENA, ABENDUAK 2 | 22:00

BERGARA CHEF 3. SAIOKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Arantzazu De Santos eta Asun Iglesias
- Pedri Zafra eta Joxe Sanchez

Publikoaren saria: zein da sukaldean bikote onena?

Bidali WhatsApp-a 688 69 00 17 telefonora eta egin zure aukera:

1. aukera: *BergaraChef Arantzazu*
2. aukera: *BergaraChef Pedri*



ANTOLATZAILEAK:



*Bergara
Bizi*

LAGUNTZAILEAK:

- Kresala arraindegia
- Imaz harategia
- Zare fruta denda
- Madura elkarte
- Maritxu Barrena
- Jose Mari Perez



@cenarro
cold forming specialists



INDUSTRIAS FEGAR, S.A.



CAUCHO(S) MUJIKA
COMPUESTOS Y APLICACIONES DE ALTA CALIDAD

Industrias
Azkein

LAZPIUR
SETTING TRENDS



SWISS
SERVICIOS



M-H
MANSO HERMANOS, S.A.



Pol-Pol
fabrics



HERRITELEBISTAGINTZAN


DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena


KILOMETROAK 2016



www.kilometroak.eus

 Kilometroak 2016 Bergara

 @kilometroak

 kilometroakbideoak



Abian dira Bergarako Kilometroak

Datorren urteko Kilometroak jaia berritzaile eta askotarikoa izatea nahi du Aranzadi Ikastolak, eta herritarrei gonbita egin die jaia antolatzeko



GEHIGARRIKO ARGAZKIAK:
JOSEAN ARENAZA, MARKEL CASTELO, ELENA LAKA,
JOSU OLABARRIA, ARANZADI IKASTOLA ETA GOIENA.



 **EROSKI**
ARRASATE


 Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

KILOMETROAK

Demaseko festa izango da!

Zer daukazu gogoan 1991ko eta 2007ko Kilometroez?



ARANTZAZU NARBAIZA | IRAKASLE OHIA

"Emozioz gogoratzen ditut. Ikasturte hasieratik 200 lagun ibili ginen lanean, hilabete batzuk falta zirenean 600 eta egunean bertan 2.000tik gora. Bergarako

herriak elkartasuna eta batasuna erakutsi zuen, jendea ikaragarri eskuzabala izan zen zentzu guztietan, erraztasunak baino ez zizkigun ipini".

Askotariko eta berritzaile

Ikastolen festen ohiko balioei eutsiz, antolaketan berri nahi dute Bergarako 2016ko Kilometroetan

Bergaran ospatuko da 2016ko Kilometroak jaia, urriaren 2an. Baina, Aranzadi Ikastolarendako, ofizialki, aurtengo urriaren 4an hasi dira Kilometroak. Usurbilen, Udarregi Ikastolako eskuetatik jaso zuenean lekukoa. "Lehenagotik ere hasiak ginen lanean, Kilometroen antolaketarako ezinbestekoak diren batzordeak osatzen", dio Ane Barrusok, Aranzadi Ikastolako zuzendariak.

Arropak aukeratu eta diseinatzeko hasteko, irudia eta leloa erabakitzea izan zen lehen egin-kizunetako bat, arropa denda izango zen lokala aurkitu eta hura atontzearekin batera. Demasa aukeratu zen lelo moduan eta Ikastolen Elkartearen egin zuten irudia, kolore askotako D ugariz osatua. "Ikastola osatzen dugun pertsonak asko eta bikainak gara, nor bere ezagutza, pentsamolde, iritzi, adimen, gaitasun, gustu... ezberdinekin, eta askotariko dohain horiek ikastolaren mesedetan ipintzeak egiten du demasa ikastola, aniztasunak dakarrelako sorkuntza, berrikuntza, abangoardia... Hori da Aranzadi Ikastola eta baita Ikastolen Elkartearen demasekoak egiten dituenak".

BETI AURREAN

Herriak eta herritik sortutako proiektua dira ikastolak, eta aniztasuna, sorkuntza, berrikuntza... dira eta izan dira ikastolen marka. Berritzaileak izan ziren sorreran, gaur egun baino egoera zailagoetan, eta izaera horri eusten

diote gaur egun ere. Aranzadik ere bai. Heziketan, esaterako. 1990eko hamarkadan txokoetan oinarritu zen. Orain, ostera, Konfiantzaren Pedagogia da Bergarako ikastolak herriari egin dion azken ekarpen pedagogikoa.

"Kilometroetako irudiak eta leloak ere ideia horri eutsi nahi dio", dio Ekaitz Aranberrik, Kilometroetako koordinatzaileak. "Aniztasuna, berritasuna eta sorkuntza, Kilometroak 2016 demasa izan dadin!". Halakoa izan zen joan zen azaroaren 6an Aranzadi Ikastolako jolastokian egin zen aurkezpen ekitaldia. "Zerbait ezberdina egin nahi genuen, arriskatu, eta uste dut ideia hori trans-



Kilometroak 2016ko irudia: Demasa.

mititu genuela, jendeari heldu zitzaioela, agertoki ezohikoan eta arropak, irudia eta leloa aurkezteko modu ezberdinaren bidez".

DAGOENEO LANEAN

Kilometroak 2016 abian da, hortaz, eta antolatzeko ezinbesteko diren batzordeak osatuta daude: Denda, Biltegia, Muntaiak, Ikus-kizunak, Komunikazioa, Jasangarritasuna, Segurtasuna... Jendea lanean ari da batzordeetan. Egun, 200 bat lagun. Izan ere, Kilometroak jaia ez da egun bateko kontua, urte osokoa baizik. Datorren urteko urriaren 2rako, hala ere, 2.000 bat boluntario beharko dira.



MIREN BERRAONDO | DEKORATZAILEA

"Ikastolan bertan zeuden materialak erabili ditugu denda dekoratzeko"

Miren Berraondo dekoratzaile bergararrak atondu du Kilometroetako denda.

Zelan jaso zenuen Kilometroetako denda atontzeko eta dekoratzeko gonbita?

Uda aurretik Kilometroetako koordinatzaileak esan zidan ea denda apaintzen laguntzeko prest nengo. Arropak zelan ipini, apalak, erakusleioa... ideia orokorra egiten laguntzea, alegia. Lan polita iruditu zitzaidan eta baiezkoa eman nion!

Zaila izan da lana, erronka ederra...?

Giro ona eta lanerako prestutasun handia egon da. **Ze islatu nahi izan duzu?**

Kilometroak ikastolen jaia izanda, bertan ikastola irudikatu nahi izan dut. Adibidez, erakusleioak gela bat irudikatzen du, mahai, arbel eta aulkiekin; umeak jolasteko txokoa. Betiere, goxotasuna

transmititu eta kolore korporatiboak erabiliz.

Ze material erabili duzu horretarako?

Ikastolan bertan zeuden materialak erabili ditut: aulki zaharrak, mahaiak, arbelak, espalderak... Aulki txikiak zutabe eta paretetan zintzilikatu ditugu, apalategi moduan erabiltzeko; kakoen ilarak arropa zintzilikatze... Bertan zeuden materialak erabilia, gastua dezente murriztu da.

Gustura geratu zara egindako lanarekin?

Bai, oso gustura! Batez ere, goxotasuna irudikatu eta espazio alai eta dinamikoa egitea lortu delako. Paperezko lanparak hainbat altueratan, dinamismoa emateko; logotipoak hainbat neurritan, jai giroa emateko...

Kanpotik, ze esan dizute?

Zoriondu egin naute, lan polita egin dudala esanez!



GIARTZU ESTETIKA

Boni Laskurain pasealekua, 4
943 76 35 71

GIARTZU GIMNASIOA

Boni Laskurain pasealekua, 3
943 76 30 05

BERGARA • www.giartzu.com



Osasuntsu eta eder euskararen alde. Gora Kilometroak!

Gaur egun ere, beharrezkoa da Kilometroak antolatzea?



ASIER MAURE | GURASOA

"Bai. Alde ekonomikoaz aparte, aldarrikapen moduan. Ikastolak sortzeko klandestinitatean egindako lan hura gogoratzeko eta omentzeko ere garrantzitsua

da. Milaka pertsona aritu dira urteetan euskararen alde lanean, herri hau geroago eta euskaldunagoa izateko. Hortaz, bai, derrigorrezkoa da eta ospatu egin behar da".



Azaroaren 6an ikastolako jolastokian egin zen ekitaldiaren une bat.

HERRIA ANTOLATZAILE

Herriko elkarteekin, taldeekin eta erakundeekin egin nahi dute Kilometroak jaia Bergaran. Haiek antola dezatela. "Laguntzaileez harago, antolatzaileak nahi ditugu", dio Ane Barrusok. Horretarako, behin Kilometroak abian, herritarrekin elkartuko dira ideiak transmititu eta Kilometroen antolaketan murgil daitezzen gonbita egiteko. Hori izango da Kilometroetako helburu sozial nagusia.

ERAIKINA ORDAINDU

Helburu ekonomikoa, berriz, Aranzadi Ikastolako Seminarioko instalazioak egokitu eta berritzeko egin den obra ordaintzeko eskatu zen maileguari bultzada ematea, diru sarrera ez ohikoen bidez. Irabazi nagusiak Gure Zozketa eta arropa salmentatik datoz. "Diru hori maileguan sartuz gero, Aranzadi Ikastola arnasa hartzeko moduan jarriko litzateke", dio Aitziber Lopez de Aretxagak, Aranzadi Ikastolako lehendakariak.



Aldaketa herritarren parte-hartzetik

Mikel Egibar | Koordinatzailea

Zapalduta dauden herriak ez dira etsipenean murgiltzen eta zorigaitzoaren aurrean badute beti irribarrearen bitartekoa. Esaldi horrek labur zezakeen ikastolen jaia antolatzerakoan, duela 38 urte, Beasainen, hainbat gurasok sentitu zuten bihozkada. Jaia kontzientzia hartzeko baliabide garrantzitsua da eta oihuka esan daitezkeen gauzak, maiz, irriño batez, ludikotasunez esanda, iritzi asko alda daitezke. Ikastolak ludikotasuna erabiltzen dugu gure jaia, gure Kilometroak, antolatzeko. Ondo igarotzeko espazio ludikoa eskaintzeaz gain, guztiok hainbat ekimenetan parte hartzeko dinamika piztu nahi dugu aurtengoan.

Ikastolak herritik sortu ziren, herrian murgilduta bizi dira eta bere hoberena herriari eskaintzen diote. Ikastolek badute konpromiso irmoa jendartearen aurrean: bere proiektu pedagogikoa aztertu, sakondu, landu eta beti aitzindaria izan. Aitzindaria izatea ez da hezkuntza komunitatean planteatzen den lehia; aitzindaria guretzat da ume eta gazteengan, beren gurasoekiko dugun erresponzabilitatea eta erronka. Gure lana ongi, oso ongi, demasa, egin nahi dugu!

Aurten Kilometroak Usurbilen ospatu ondoren, Bergarako Aranzadi Ikastolan hartu dugu lekukoa, eta hilaren 6an Bergarako herriari eskaini genion aurkezpen ekitaldian

ikastolaren lehendakari Aitziber Lopez de Aretxagak ongi adierazi zuen bezala: "Ez dugu lekukoa gure ikastolan gorde nahi, lekukoa Bergarako herriari eskaini nahi diogu". Eta, alkatearen eskuetan utziz, lekukoa, datorren urtean urriaren 2an ospatuko dugun Kilometroak 2016 arte, udaletxean egongo da.

Lekukoa Usurbil herritik jaso eta Bergarako herriari eskaini diogu. Ekintza sinbolikoa da, noski, baina ez dugu sinbolismo hutsean gelditu nahi. Kilometroak bezalako aldarrikapenerako gure ludikoez berrikuntza ere eskatzen dute eta konbentzitututa gaude aldaketa garrantzitsuenak parte-hartzetik etorri behar duela. Konpromiso hau hastapenetik gure lan egiteko eran integratu dugu eta inolako plangintza osatu baino lehen herriko eragile guztiei aukera emango zaie ez plangintza batean parte hartzeko, lehenengo unetik plangintza sortzeko baizik.

Jasangarritasuna, parekidetasuna, aniztasunaren errespetua, demokrazia parte-hartzailea eta zuzena, errespetuzko ludikotasun aske eta sortzailea, kontsumo arduragabearen kontrako iritzia eta jarra... Hauek guztiak ez dira kontzeptu hutsak; ikastolan iraunkorki gure hezkuntza proiektuan lantzen diren konpetentziak dira hauek. Gure nahi sutsuena da gure jaia horren jarraibidea izatea!

"Proiektu pedagogikoa aztertu eta beti aitzindaria izatea da ikastolen konpromisoa"

"Jasangarritasuna, parekidetasuna..., ikastolan iraunkorki lantzen diren konpetentziak dira"



Gure Zozketarekin 60.000 euro irabaz daitezke 5 euroko txartela erosita.



Bergarako Udala

San Martin plaza - Tel.: 943 77 91 00
www.bergara.eus - bergara@bergara.eus

2016an Bergara, euskararen eta ikastolen hiriburu!

Gora Kilometroak!





Adin eta gustu askotarikoak

Kilometroetako arropetan hamaika aukera: kirol jertseak; kamisetak; haizetik babesteko txaketak; lepoko zein burukoak...



DESA CRISTAL
 Autoen kristalak konpondu, aldatu eta tindatu
www.desacristal.com

CRISTALBOX

TAILERRA ETA BULEGOAK BERGARAN: Santalaitz, 6 - 5. Pab. 83 P.K. Tel.: 943 76 36 09 Faxa: 943 76 73 45.
TAILERRA IRURAN: Ibaiondo Bailara 17 Pab. 8 20271 Tel.: 943 69 16 16 Faxa: 943 69 12 47

INPAKTUEN KONPONKETA

Azkarragoa, ekologikoagoa eta ekonomikoagoa.

Ez itxaron kristala guztiz apurtu arte.

Kostu barik zuretzako: aseguru etxeekin zuzenean tramitatzen dugu.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu


Lasaitasuna, hurbiltasuna eta Trotasuna senide maitatu bat agurtzen duten horientzako

Maribi BERGARAN, Amillaga 27an • 617 44 21 55 / 943 76 94 73 • maribi@oroilore.com



IRTEERAK

HERNANI	Azaroak 29, domeka, egun osoz
USURBIL	Azaroak 29, domeka, goizez
EIBAR	Azaroak 30, astelehena, goizez
MENDARO	Abenduak 5, zapatua, goizez
URRETXU	Abenduak 13, domeka, egun osoz
MUTRIKU	Abenduak 19, zapatua, goizez
OIARTZUN	Abenduak 19, zapatua, goizez
TOLOSA	Abenduak 19, zapatua, goizez
LEZO	Abenduak 20, domeka, goizez
AZPEITIA	Abenduak 21, astelehena, goizez
HONDARRIBIA	Abenduak 21, astelehena, goizez
ARRASATE	Abenduak 22, martitzena, goizez
ELGOIBAR	Abenduak 26, zapatua, goizez
ORDIZIA	Abenduak 30, eguaztena, goizez



Informazio gehiago:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Gu ere Kilometroekin bat!

Ibargarai 8, behea 943 76 08 43
20570 **BERGARA**
bergara@bthetravelbrand.com

Kontzesino Kalea 18, behea 943 84 01 23
20500 **ARRASATE**
mondragon@bthetravelbrand.com

Barceló
VIAJES
orain

B the travel brand



**Euskara,
zeuria,
geuria!**

Kilometroetako ze batzordetan hartu behar duzu parte?



MAITANE ARTEAGA | IKASLE OHIA

"Dendako taldean ariko naiz beste lagun batzuekin batera. Hartu dugu konpromisoa herrietara egiten diren irteeretan parte hartzeko, kamisetak, fularrak eta

bestelako arropak saltzeko. Herrietako feria eta jaietan ibiliko gara... Aranzadiko ikasle ohia naiz eta ikastolak beti funtzionatu du elkertasunetik. Lagundu egin behar da".

Ekaitz Aranberri | Koordinatzailea

"Herriarrek egin nahi ditugu Kilometroak"

Kilometroak bergarrek, herriko taldeek-eta antola ditzatela nahi du Aranzadi Ikastolak. Horretaz, asmoez eta orain arte egindakoaz dihardu Kilometroak 2016ko koordinatzaileak

Zelan doaz Kilometroetako kontuak?
Urriaren 6an jaso genuen lekukoa Usurbilen, Udarregi ikastolaren eskutik, eta, lehen aldiz, lekukoa herriari eman diogu. Aranzadik beste bi aldiz antolatu izan du Kilometroak jaia, 1991n eta 2007an, eta bietan lekukoa

ikastolan egon da, baina oraingoan udaletxera eroan dugu. **Zergatik lekukoa udaletxean?**
Aranzadi Ikastolak jauzi bat eman nahi du aurten Kilometroak jaian antolaketan, eta herriarekin egin nahi du. Ikastola herriak sortu zuen duela 44 urte, eta herriarekin egin nahi dugu aurtengo bidea. Jai honek garrantzi

handia dauka Bergararendako ere. Urtean zehar kulturaz, kirolaz, prebentzioaz, jasangarritasunaz... jantziko da herria eta urriaren 2an 100.000 pertsona inguru gerturatuko da bertara; beraz, garrantzitsua deritzogu herriarekin batera jarduteari. **Zer eskatuko diezue herriari eta herriarrei?**

Eskatu ez diegu herriarrei ezer eskatuko, eskaini egingo diegu. Zer? Kilometroak jaian protagonista izatea.

Bergarak ia 15.000 biztanle ditu, adin, izaera, pentsamolde, iritzi, adimen... askotarikoak, eta horrek Kilometroak antolatzeko gaitasun handia ematen dio herriari. Bakoitzak egiten dakiena proiektuaren mesedetan jartzen badu, demaseko kilometroak antolatuko ditugu; beraz, beren izaera hori Kilometroak jaian erakusteko aukera eman nahi diogu herriari.

Zelan gauzatuko duzue hau guztia?
Herriko talde, erakunde, elkarte eta batzordeekin bilduko gara eta Kilometroak eguna eta ordu-ra arteko programa diseinatzeko, sortzen, gauzatzen jarriko gara denon artean, bakoitzak dakien horretatik, jakina.

Bi eratako parte-hartzea aurreikusten dugu: alde batetik, herriko erakunde eta elkarteek egin dezaketena eta gazteek eta familiek egin dezaketena. Azken hau autogestioaren ikuspuntutik ikusten dugu.

Ez da samurra hori irudikatzea. Jar dezakezu adibiderik?

Demagun gaztelekutik prebentzioa lantzeko programa bat garatu nahi dutela urtean zehar, edo gastronomia elkarteek lehiaketa

bat antolatzen dutela egunean bertan, edo mus txapelketa erraldoia, xake elkarteak xake erraldoia antolatu nahi duela... Era horretakoak izan daitezke taldeen ekarpenak.

Baina hau ez berria...

Lehen ere egin izan direla esan diezadakezu, eta horrela da, baina lehen, Kilometroak eskatzen zioten erakundeari hau edo beste egitea, eta orain, berriz, erakundeak berak egingo du berarentzat egokiena dena, zer egin nahi duen erabakitzeko eskumena izango du, antolatzaile izango da, eta ez antolakuntzaren laguntzaile. Bestetik, gazte eta familiekin egingo dena konplexuagoa izango da. Adibidez, gazteen programa gazteek egitea edo umeen eta gurasoen presentzia eta papera zirkuituan urriaren 2an zelakoa nahi duten erabaki eta antolatzea.

2016an ikastolak 45 urte beteko ditu eta Kilometroak jaia antolatzen den 40. aldia izango da Bergarako. Horren inguruan zerbait egingo duzue?

Ekintza berezirik ospatzeko ez dugu antolatu oraindik, baina egongo da zerbait, bai. Garrantzia eman diogu, alde batetik, ikastolaren sorrerari, lehen aipatu bezala, eta horren harira herriak sortutako ikastolaren jaia herri-eroan nahi dugu. Bestalde,



itesa
Gora Kilometroak!
BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

**BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA**

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net



Merezi du Kilometroak jaiaren babesle izatea?



ITZIAR ELGARRESTA | SORALUCE ENPRESAKOAK

"Enpresan garrantzitsuena langileak dira; horregatik, asko zaintzen dugu haien formazioa. Horretan ikastolek zeresan handia daukate, lan itzela egin dute euskarazko

hezkuntzan. Formazioa, euskara kontutan izanik, eta Aranzadi Ikastola gure enpresaren herri berekoa denez, Kilometroak babesten ditugu".



Ekaitz Aranberri –Kilometroak 2016ko koordinatzailea– Aranzadi Ikastolaren aurrean.

"1977an egin ziren lehen Kilometroen espiritua berreskuratu nahi dugu"

1977an egin zen lehen Kilometroak jaiaren espiritua berreskuratu nahiko genuke oraingo honetan. Gogoratzen baduzue, garai haietan jendeak babesle bat aurkitzen zuen, erakunde bat edo partikular bat, eta, parte-hartzaileak egiten zuen kilometro bakoitzeko, babesleak ikastolari diru bat ematen zion.

Jai parte-hartzailea zen. Gaur egun, berriz, parte-hartzea beste era batekoa da, datorrenak parte-hartze pasiboa du: entzun, ikusi edo jan egiten du, eta horri buelta eman nahi diogu. Horregatik, herriarekin batera antolatuko diren ekintzak parte-hartzaileak izatea nahiko genuke, datozenek eginez disfruta dezaten.

Azaroaren 6an irudiaren, leloaren eta arroparen aurkezpena egin zenuten. Zelan joan zen?

Oso pozik gaude egin genuenarekin. Gure helburua aurkezpen berritzaile, desberdin eta polita egitea izan zen, eta, jaso ditugun iritzien arabera, lortu genuen gure helburua. Ideia irudikatzea lortu dugula esango nuke. Ikastolako fatxada erabili genuen agertoki bezala, ikastolaren berrikuntzaren adierazle, eta patioa bete-bete egin zen. Ekitaldi laburra, ikusgarria eta polita izan zen eta herriko hainbat eragilek hartu zuten parte. Aprobetxatu nahi dut ekitaldia posible egin zuten pertsona guztiei eskerrak emateko, ikuskizunean parte hartu zuten guztiei eta atzean, ezkutuko lana egiten egon ziren boluntario guztiei.

Arroparen aurkezpena egin zen egun hartan. Denda irekita dago, denda ibiltaria martxan?

Azaroaren 9an ireki genuen, Bidekurutzetan, lehen Edel zegoen lokalean. Oso-oso polita dago, Miren Berraondo gure diseinatzailerari eta haren aginduetara egon den muntaia taldeari esker. Arropak ere polita behar du izan, arrakasta handia izan du eta. Horrez gain, astebururo egiten ditugu irteerak Gipuzkoako hainbat herritarra: feriak, jaiak...

Zein da dendaren ordutegia?

Astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 20:00etara. Ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara. Denda, erakusleihoa... oso txukun, politak, geratu dira. Orain, fatxada ere atondu nahi dugu, horren gaineko araudiak uzten digun neurrian.

Zein beste ekimen duzue martxan?

Urtean zehar era askotako ekimenak antolatuko dira kulturaren, kirolaren, eta abarren ingurukoak, baina arroparekin batera badago beste ekimen handi bat: Gure Zozketa. 60.000 euro zozketatzen dira eta txartelak 5 euro balio du. Saria handia da eta erantzun ona du zozketa honek. Jende askok Gabonetako loteria ordezkatzeko erabiltzen du. Hauek saltzeko ere irteerak egiten ditugu, arroparekin bezala. Horrez gain, norbaitek erosi nahi badu, dendan bertan eskura dezake.

Zelan jakingo dugu urtean zehar Kilometroetan zer, noiz eta non dagoen?

Hedabideen, kartelen edo sare sozialen bidez; Twitterren nahiz Facebooken, esaterako. Webgunea ere martxan dago: www.kilometroak.eus. Bertan aurkituko dituzue Kilometroekin lotutako albiste guztiak.

LAZPIUR
SETTING TRENDS



FORJAZKO TRESNERIA



MAKINERIA FABRIKAZIOA

Muriondo auzoa z/g 20570 BERGARA
www.lazpiur.com - lazpiur@lazpiur.com
Tel.: 943 76 90 16

ETXE BERRIA
BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA



Bitxitegia

Erlojutegia

Antzinako hormako erlojuen konponketa eta zaharberritzea

Gure bitxitegi tailerra

Edozein bitxi mota itxuraldatzen dugu

Bidekurutzeta 16 · Tel. 943 76 23 94 · 20570 Bergara
relojeriaetxeberria@gmail.com

Hirugarrenez Bergaran

Kilometroak jaia, Bergaran, 1991n eta 2007an antolatu da aurretik; Debagoiengan, guztira, bost herritan

Aranzadi Ikastolak hirugarrenez antolatu ditu Kilometroak Bergaran. 1991n eta 2007an egin dira aurretik Bergaran. 2016koa izango da hirugarrena. Azpeitian (1979, 2000 eta 2011) eta Donostian (1983, 1995 eta 2009) ere antolatu dituzte hiru bider.

Bergaran datorren urtean egingo dena 40. edizioa izango da. 1977an Beasainen egin zen lehen aldiz. Haren ostetik etorri ziren beste lurraldeetako ikastolen aldeko festak. Debagoiengan, Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan-Eskoriatzan egin dira. Arrasaten, 1981ean; Oñatin, 1989n; Bergaran, 1991n eta 2007an; eta Aretxabaleta eta Eskoriatzan, 2005ean. Oñatin, bigarrenez antolatzeke aukera izango dute 2017an. Horrenbestez, bi urtez jarraian ospatuko da Debagoiengan, 2016an eta 2017an, eta bergararrek oñatiarrei pasako diete lekukoa.

IRUDIA, LELOA...

Hasieratik irudia eta leloa izan dira Kilometroaren bereizgarriak, ikur nagusiak. Gerora, baita abestia eta arropak ere. Azkeneko urteetan Kilometroak urte osoko jai bihurtu da, ez bakarrik urriko lehen domeketakoa. Jakina, eguna da garrantzitsuena, batez ere, lurraldera begira, baina urte osoan antolatzen dira ekitaldiak: kirol, kultura edo hezkuntzarekin lotutakoak, batik bat. Eta irudiaren, leloaren, arropen eta helburuen berri emateko momentuak jakingura handia sortzen du, batez ere herri antolatzailearen eta ikastolako komunitateko kideen artean. Hala izan da aurreko urteetan ere, Bergarako Kilometroaren aurkezpenaren harira, azaroaren 6an, Aranzadi Ikastolako jolastokian egin zen ekitaldian.

Igo tipi-tapa euskararen alda-pa (1991) eta *Argi daukagu* (2007) izan dira Bergarako aurreko Kilometroetako leloak. Abestiei dago kienez, lehenengoan, Juan Martin Elexpuruk (hitzak) eta Izaskun eta Xabier Labaienek (musika) egin zuten; 2007koan, Asier Elor-



Kilometroak 2016ko aurkezpen ekitaldiaren une bat aurtengo azaroaren 6an.



2007ko Kilometroak eguneko hasiera-ekitaldia.



1991ko zinta mozketak.



Igo tipi-tapa... 1991ko irudia.



2007ko irudia: *Argi daukagu*.



2016ko irudia: *Demasa*.

tzak (Belceblues) musikatu zuen Bergarako bertso eskolaren letra.

Zirkuitua da Kilometroetako beste bereizgarri bat. Baina azken urteetan garrantzia galtzen joan da erosotasunaren eta segurtasunaren mesedetan. Gaur egun, guneen bueltan antolatzen dituzten ikuskizunek hartu dute inda-

Donostian eta Azpeitian bakarrik egin da hiru bider jaia orain arte

rra eta geroago eta gutxiago dira zirkuitu osoa oinez egiten dutenak.

Kilometroen sorreran, 1977an, helburua zen jendeak ahalik eta kilometro gehien egitea, eta enpresek, dende eta erakundeek babesten zituzten, diruz, egindako kilometro horiek. Ameriketako Estatu Batuetatik ekarri zuen

idea Josu Erguinek, Vietnamgo gerran borrokatu ziren soldaduei laguntza eskaintzeko antolatzen zuten jaia aintzat hartuta.

ZIRKUITU ALDAPATSUA

1991n Bergaran egin zen Kilometroak jaiak zirkuitu maldatsua izan zuen. Herrigunetik San Martzialeraino igotzen zen. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu: goiz euritsua izan zen, arratsalderako ostarteak zabaldu baziren ere. 80.000 lagun batu ziren festara. Horien artean, orduko hainbat aurpegi ezagun: Marino Lejarreta txirrindularia, Karlos Argiñano sukaldaria, Luis Mari Lopez Rekarte futbolaria -Aitor Lopez Rekarteren anaia-... Eli Galdos diputatu nagusiak eta Antonio Campos Ikastolen Federazioko presidentek moztu zuten hasierako zinta Aranzadiko jolastokian. Egitarauan, musikak orduan ez zeukan gaur egun daukan presentzia eta garrantzia. 1991 hartan, eguneko izarra, musikari dagokionez, Egan taldea izan zen.

ELHUYAR ANAIK

2007koan *Argi daukagu* izan zen leloa, Elhuyar anaiek Bergarako Errege Seminarioan -Aranzadi Ikastolaren egoitzan-, 1783an, wolframa aurkitu izanari keinu eginda.

Arrakastatsua izan zen urtea, eta baita eguna ere. Eguraldiak lagundu izan zuen: ateri egon zen eta eguzkia nagusitu zen, baina antolatzaileen artean urduritasuna nabaritu zen aurreko egunetan; izan ere, ostiralean, euri zaparrada handiak izan ziren. Esne Beltza, Anje Duhalde, Anari, Gose, Kauta... askotariko musika emanaldiak izan ziren, beste ekitaldi askoren artean, bost gunetan banatuta. Zirkuitua urbano eta lau samarra izan zen, Agarreko garaiko eta San Martin auzoko tartekak izan ezik.

Agurne Barruso zen alkatea eta Markel Olano ahaldun nagusia, eta biak izan ziren hasiera ekitaldian. Patxi Azkargorta 1936ko gerra aurretik Bergaran ikastolako ume izan zena omen du zuten eguerdiko ekitaldian.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK


ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



'Urpekariak': Fermin Etxegoienen proposamena gazteendako

- ▶ Aita-seme batzuen oporraldiaren kontakizuna argitaratu du oñatiarrak
- ▶ Protagonistak bezala, idazlea ere eremu berrian murgildu da honako honetan

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Saiakera bat, bi eleberrri eta elkarriketa liburu bat argitaratu ostean, gazteentzako *Urpekariak* (Erein) liburua aurkeztu zuen atzo, eguena, Fermin Etxegoienek, Donostiako Udal Liburutegian.

Argitaletxeak bota zion enbidoari erantzunez idatzi duela dio idazle oñatiarrak. "Iaz, *Eutsiko diogu!* elkarriketa liburu argitaratu nuen Ereinekin. Kazetaritza lan bat zen hura, eta, normalean ez moduan, dirua jaso nuen idazten nebilen uanean. Liburu horren bueltako bilera batean geundela, Ereineko Olatzek gazteentzako liburu bat idazteko proposatu zidan. Nik ez nuen, orduan, gazteen erregistro horretan nire burua ikusten, baina esku artean nuen elkarriketa liburu irailerako bukatu nuen eta abendura arte nuen Ereinekoekin *kontratua*. Zorretan sentitzen nintzela-eta, 'hasiko naiz zerbait idazten', esan nion nire buruari, eta horrela idatzi nuen 30 orriko zirriborroa. Argitaletxe lagunei bidali nien eta egoiki ikusi zuten liburuaren tonua eta baita kontakizuna ere, eta aurrera egitea erabaki genuen", kontatu du Etxegoienek.



Fermin Etxegoien, *Urpekariak* liburu eskuetan duela. | EREIN

Nerabegaroko tirabirei buruz

Aita-seme batzuen oporraldiaz dihardu Etxegoienek oraingoan. Gironako L'Estartit herrira joan dira eta handik gertu dauden Meda uharteetara doaz urpekaritza-bataioa egitera. Itsas bidaian, ama-alaba batzuk ezagutuko dituzte, eta bi gazteen arteko begiradak gurutzatuko dira. "Semeak 15 urte inguru ditu, eta, alde horretatik, esan daiteke, neurri batean, *iniziazioaren* inguruan egindako eleberrria dela. Bide horretatik doa izenburua, metafora bat egi-

ten dut urpekari moduan estreinatzearen eta helduen bizimoduan sartzearen artean. Horrez gainera, nerabezaro garaian sortzen diren aitaren eta semearen arteko tirabirak ere jasotzen dira, eta oporretan beraiekin joan ez den amaren papera ere hor dago... Pertsonaje galeria txiki eta anitz bat sortzen da kontakizunean zehar", dio idazleak; eta gaineratu du helburua ez zela autobiografia bat idaztea, inguruan duenetik elikatuta idazteko joera badu ere.



Kontakizuna, egunez egun

Liburuak egitura nahiko normala duela dio: "Egunez egun dago oporraldia kontatuta. Oroitzapenen bitartez iraganeko pasarte batzuk berrekarrita daude eta aurrera begira dituzten proiektuen bitartez etorkizunari keinu batzuk ere badaude; baina, printzipioz, kontakizun kronologikoa da".

Iazko irailean hasi, eta aurrerago udaberrirako erdi bukatuta zuen lana: "Bukaera baten bila nenbilen, ez nuen batere garbi. Azkenean, nire ustez, hartu du bukaera kutsua. Ez da, akaso, guztizko bukaera izango; izan ere, argitaletxeak ez dute baztertzeko, aurrerago, pertsonaia horiek beste istorio batzuetan murgiltzea. Desiatzen nago irakurlearen feedbacka jasotzeko; gerokoak, gero ikusiko ditugu".

Azokaren 50 urteko ibilbidea liburuan jaso du Gerediagak

A. A. | ARRASATE

Jesus Mari Arruabarrena, Joseba Sarrionandia eta Txelu Angoitia dira egileak eta azala, berriz, Jose Luis Zumetak egin du, Azokako aurtengo kartela moldatuta. "Saiakera formatuan idatzita dago, baina irakurterraza da. Hiru *unibertso* batzen dira liburuan: *Mundutik Azokara*, *Azokatik mundura* eta *irudiak*. Irakurleek orain arte ezagutu ez duten Joseba Sarrionandia topatuko dute: mundua ulertereko bere perspektiba pertsonala ematen du, saiakera mamitsu eta ausart baten bidez. Azokaren historia batzeko elkarriketak egin eta leku-kotzak jaso ditu Jesus Mari Arruabarrenak, eta haren bitartez ezagutu ahal izango ditugu Azokaren hastapenak, bilakaera eta bitxikeriak... Txelu Angoitia argazkien bidez, berriz, bestelako Azoka ezagutuko du irakurleak: alde intimista, artistikoa...", azaldu zuten martitzenean Bilboko BBK aretoan egindako aurkezpenan.

Durangoko Azokako egunetan (abenduen 4tik 8ra) eskuratu ahal izango da 255 orrialde dituen liburu elebiduna, 20 eurotan.

Errusia eta Setomaa herrialdeen gaineko afaria Espaloian

Herrixa Dantzan ekimenak dantza saioa egingo du domekan; eta datorren astean, afari tematikoa

A. ARANBURUZABALA | ELGETA

Musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutako gidatutako dantzaldia izango da etzi, domeka, Patxi Monteroren eskutik, Espaloia antzokian, 19:00etan. Ohi moduan, sarrera doan da eta parte hartzea, librea.

Abenduaren 11n, afaria

Bigarren dantza-afari tematikoa antolatu du Herrixa Dantzan ekimenak. Errusia eta Setomaa herrialdeen inguruan da honako hau. Datorren egubakoitzean egingo dute, Espaloia Kafe Antzokian. "Lagun arteko afari pasa eta dantzaldia izango da. Helburua xumea da: Hennie Konings irakaslearengandik eta Errusia eta Estoniaren artean banatuta dagoen Setomaa herrialdeko Klapp musika taldearengandik aurrez jaso ditudan doinu eta dantza ederrak

partekatzea. Konings irakasleak lan eskerga egiten dihardu Errusiako tradizioko musika eta dantzak jaso, gorde eta zabaltzeko. Errusiako kontradantzak eta Horovod deritzon irradaka dantzak ikasi eta horiek dantzatzeko doinuekin maitemindu nintzen. Korruan lotuta egiteko dantza samur, eder eta hunkigarriak dira", azaldu du Patxi Monterok, ekimenaren antolatzaileak.

Ohiko dantza gidatuak ez bezala, dantzan eskarmentua dutenei zuzendutako jarduera da honako hau eta 20 euro dira ordaindu beharrekoak.

Aldez aurretik eman behar da izena eta honako hauek dira bideak: 675 94 46 09 telefonora deituta, herrixadantzan@gmail.com helbidera idatzita edo Herrixa Dantzanek Goiena.eus atarian duen blogean formularioa beteta.

'Sin mirar atrás': Arkada Social taldearen bosgarrena, labetik ateratzeko prest!

Durangoko Azokako Ahotsenean izango dira, abenduaren 5ean, 17:40an

A. A. | ARRASATE

Urrian grabatu zuten Arrasatekoek, Haritz Harreguyekin, Higain estudioetan, *Sin mirar atrás* bilduma. Durangoko Azokan aurkeztuko dute Mauka Musikagintzaren standean.

Kolaborazio bereziak

Hamaika kantu bildu dituzte. "Denetarik dago. Julen omenez *Bost whisky* sortu dugu. Kolaborazioak ere asko daude: Non Servium abeslaria eta gitarra-jolea; Alemaniako Oxymoron taldeko abeslaria ere etorri zen Usurbilera grabatzera... *My fuel* kantua da hori, eta astean igoko dugu abesti horrekin egindako bideoklipa Youtubera", kontatu du Hodei Beitiak, abeslari eta baxu-joleak.

Euskaraz hiru kantu, ingelesez bi eta gainontzekoak gaztelaz abestu dituzte. "Gai askori buruzkoak dira. Soinu aldetik aurrekoaren bidetik doa, baina abestiak makarragoak, indartsuagoak, dira. Gustura gaude lan berriarekin: kolaborazioak, zelan entzuten den...".



Arkada Social taldeko kideak. | HODEI BEITIA



'Hil orduko bizi' biniloa laster

20 urte beteko dituzte, 2017an, eta proiektu berriei heltzeko indarrarekin jarraitzen dute. Datorren urte hasieran izango dute Madrilgo Crom Recordsekin aurreko lanaren biniloa kalean. Hogeigarren urteurrenaren bueltan zerbait berezia egin guran ere badabil laukotea.

Horrez gainera, zuzenekoak ere ari dira lotzen: Durangokoaz gain, Madrilen pare bat dituzte, eta Berlinera ere joango dira lan berriarekin.

Periko Solabarriaren irudia jaso du Eneko Barberenak

Ezker abertzaleko kideari egindako elkarrizketekin osatu du 'Periko gazteekin hizketan' liburua

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Ernaiko kideek eskatu zioten 2013an Perikoren gaineko liburu bat idazteko Barberenari, eta hark, Solabarria hurbiletik ez ezagutu arren, onartu egin zuen erronka. "Halaxe hasi ginen lanean talde bat, ikertzen, irakurtzen eta hura ezagutzen zutenekin egoten. Eta zortzi edo hamar elkarrizketa luze egin genizkion berari", dio Barberenak. Elkarrizketa luze horietan kontu asko jaso zituzten, beste batzuen artean bizipenak eta iritzi politikoa, bai iraganeko, bai egungo kontuen gainekoa. Eta horrek eman du *Periko gazteekin hizketan*.

Asko ikasteko

"Periko aipatzerakoan haren figura politikoren eta konpromiso nekaezinaren gainean egiten da berba sarritan. Baina nik uste dut humanismo handiko pertsona izan zela, beti pobreei eta langileei laguntzeko gertu", dio Barberenak. Horretan eredu izanik, harengandik asko dagoela ikasteko gaur egun ere uste du: "Aurreiritzirik gabe lagundu behar dugula erakusten digu. Errefuxiatuen gaia mahai gainean dagoenean askotan aurreiritziekin jokatzeko tentazioa izaten da, eta seguru nago inongo zalantza barik lagunduko zukeela hark".



Eneko Barberena, liburuaren idazlea. | MIRARI ALTUBE

Hala, biografia baino gehiago da liburua. "Berarekin izandako elkarrizketen emaitza da. Atal biografikoena Iñaki Egañaren sarrera da". Eta Barberenak pena handia du liburua bukatzeaz zela, aurtengo ekainean, hil izana ezker abertzaleko militante esanguratsua: "Askotan galdetzen zigun bere esanek balioren bat ote zuten, ez zuelako pertsonalismoetan jausi gura. Baietz esaten genion, bere istorioak eta bizipenak interesgarriak zirela egungo gazteendako ere".

Aurkezpena, domekan

Barberenaren laugarren liburua da, fikziozkoa ez den lehenengoa: "Aurrekoak genero ezberdinetako fikzioak izan dira eta hau saiakeratik gertu egon daitekeen lehenengoa da. Idazteko harra barruan daukat eta hor jarrai dezan gurako nuke", dio.

Domekan, hilaren 29an, Arrasaten aurkeztuko du liburua. Irati tabernan izango da, 18:30ean, txokolatetako lagunduta. Abenduaren 4an, ostera, Durangoko AAzokan egongo da, Ahotsenean.



Aukeran konpainiako dantzariak taula gainean. | KALI

Aukeran-ek erreperitorioa fusionatuko du Aramaion

IDOIA DAVILA | ARAMAIO

Euskararen Egunaren ospakizunaren baitan, Aukeran konpainiak *Fusioak* emanaldia eskainiko du Aramaion. Bihar, zapatua, izango da dantza ikuskizuna, kultur etxean, 20:30ean.

Tradizionala eta oraingoa

Aukeran dantza konpainia Edu Muruamendiaren sortu zuen 1997an eta geroztik hainbat ikuskizun ekoiztu ditu taldeak. Ekoizpen horietan, dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko uztarketa egiten dute, askotan musika eta dantza tradizionalaren erritmo bizia apurtuz, pausoak mantsotuz.

Publikoak eta kritikak harre-ra ona egin diote konpainiari bira egin izan duen lekuetan. Espainiako hainbat hiritan, Frantzia, Filipinetan, Argentinan eta Uruguain eskaini izan ditu konpainiak ikuskizunak, besteak beste.

Koreografiaren nahasketa

Fusioak ikuskizunak konpainiak orain arte egin dituen koreografia politenak hartzen ditu eta beste hiru gehitzen dizkio erreperitorioari. Emanaldi minimalista da eta "dantzari eman nahi izan zaio protagonismo guztia", Muruamendiaren dioenez.

Aramaion Euskararen Egunaren harira ospakizun bat antolatu da eta horren baitan eskainiko da dantza emanaldia; izan ere, Aukeran konpainiak euskal dantza izaten du koreografia guztietan, "emanaldi guztiek dute lotura euskal kulturarekin".

Sarreraren salmenta

Dantza emanaldirako sarrerak bihar bertan erosi ahal izango dira Aramaio kultur etxean. Umeen sarreraren prezioa 2 eurokoa izango da eta helduena, aldiz, 5ekoa.

Kultura artean korapilatutako istorioak Itziar Labordaren eleberrian

'La herida de los diferentes' argitaratu berri du irakasle bergararrak

M.A. | BERGARA

Lehenengo eleberria argitaratu du Bilbon bizi den Itziar Laborda bergararrak. Kulturen eta arrazen arteko ezberdintasunean oinarritutako istorioa jaso du *La herida de los diferentes* eleberrian.

Baztandik Ipar Amerikara

Irakaslea izan da urte askoan Laborda, nahiz eta azken hirurak erretiratuta egon: "Kanpotik etorritakoei eman nizkien eskolak orduan. Eta horrek zein ezberdina garen gogoeta eragin zidan. Hortik istorioa sortu zen, poliki-poliki aurrera egin zuen, eta gero liburua etorri da", dio. Guz-tira, bi urtetako lana izan da.

Istoriok Baztanen, Nafarroan, du hasiera, agoteen lurraldean eta handik Frantziara joko du kataroengana, baita Ipar Ameri-



Itziar Laborda idazlea. | LL

kara ere, gero. Hala, bost kultura talde ezberdinen arteko gorabeherak izango dira: "Baztanen hasiko da istorioa bi familiarekin eta Ameriketara joan beharko dute horiek gero", dio.

XVIII. mendean hasi eta gaur egunera arteko kontuak jaso ditu, gainera: "Dokumentazio lan handia eskatu dit horrek, eta hara eta hona ibili beharra; Frantziara, esaterako". Gaztelera hautatu du lehenengo eleberria idazteko bergararrak: "Ama hizkuntza dut euskara, baina ikasketak gaztele-raz egin nituen eta Bilbon, gainera, ez da Bergaran beste egiten. Hortaz, ez dut erraztasunik euskaraz idazteko. Hala ere, euskal berba asko sartu ditut", argitu du.

Eguaztenean Bergaran

Bilboko Beta argitaletxearekin kaleratu du liburua eta Elkar arduratuko da banaketarekin. Hala, datorren eguaztenean, abenduaren 2an, Bergarako Elkar liburu-dendan izango da sinatzen 18:00etatik 19:30era. Durangon ere egongo da liburua.

Mursegok zabalduko ditu abenduko Kooltur Ostegunak

M.A. | ARRASATE

Mursegok, Maite Arroitauregi, eibartarra hirugarrenez izango da Kooltur Ostegunetan: "Gutxi-kerrepikatu dute, baina Mursegok pozik dakargu. Gustuko dute entzuleek, berezia delako eta nahaste bitxiak ekartzen dituelako beti; ikusleak harriztuta geratzen dira harekin", jakinarazi du Iker Barandiaran antolatzaileak. Horrek zabalduko du abenduko egitaraua, datorren egunean, hilaren 3an, 22:00etan.

Han taldea eta 'Vinylnd' filma

Abendua motza izango da gaztetxeko ostegun musikariei dagokienez, baina indartsua. Hilaren 10ean, Han talde elorriarrak giroa du gaztetxea. Eskarmentu handiko musikariek, beste batzuen artean Ama Say eta Non Demontre taldeetako kideek, osatu dute taldea da eta atera berri dute *Han* diskoa aurkeztera datoz. "Bon-

berenea estudioetan grabatu dute eta kontzertu gutxi batzuk dabilta eskaintzen; gurean izango da bat", argitu du Barandiaranek.

Eta abendua bukatzeko, hilaren 17an, *Vinylnd* filma emanango dute, Amaia antzokian. Marcos Garcia eta Mikel Insausti donostiarrek zuzendutako filma Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten, eta, hain zuzen, filmean parte hartu duen Last Fair Deal taldea ere etorriko da zuzeneko akustikoa eskaintzera. Zuzendariak ere bertan izango dira.

Pozik orain artekoarekin

Antolatzaileak oso pozik daude Kooltur Ostegunak irailtik hona izan duten ibilbidearekin: "Ikusle kopuru polita izan da egun guztietan eta oso pozik gaude, baita etorritako taldeen kalitatearekin ere", jakinarazi du Barandiaranek.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA Lier Aranguren Arzelus
Abenduaren 2an, 6 urte. Azkenian 6 urte! Mila patxo eta tirakada belarritik! Disfrutatu etxekuen eta lagunuen artian! Eta zorionak!



BERGARA Markel Arana Mendizabal
Abenduaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Markel, etxeko eta lagun danen partetik! Ondo-ondo ospatu danekin. Muxu potolo bat!



BERGARA Markel Azkarate Uriona
Azaroaren 30ean, 6 urte. Zorionak, familia osoaren partetik. Ondo pasatu eguna!



ARRASATE Said Rachidi Fuentes
Azaroaren 29an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat aititeren eta amamaren partetik!



ARRASATE Alaitz Zaitegi Manzanos
Azaroaren 28an, 6 urte. Zorionak, Alaitz! Oso ondo pasatu eguna. Asko maite zaitugu. Familia guztiaren partetik.



ARRASATE Ibai Jimenez Aldama
Azaroaren 28an, 8 urte. Zorionak, mutikote! Ondo pasatu zure egunean. Izugarri maite zaitugu. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Iratiren eta Goizaneren partetik.



OÑATI Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 3 urte. Zorionak, Hodei! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko-asko maite zaitugu! Unaxen, aitaxoren eta amatxoren partetik!



ARETXABALETA Enaitz Abril Gildago
Azaroaren 27an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, izeko Usoaren partetik!



ARETXABALETA Goiatz Estebez Guede
Azaroaren 27an, 18 urte. Zorionak, *preixoa*! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, zure familiaren partetik.



ARRASATE Karen Ruiz Arana
Azaroaren 26an, 17 urte. Zorionak, txikitxu! Espero dugu egun on bat edukitzea maite zaituztenekin batera. Harro gaude zurekin eta horrela jarraitu. Etxekoen partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI Malen Guridi Agirre
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak polit hori! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta muxutxo asko maite zaitugun guztion partetik!



ARETXABALETA Danel Seijo Fernandez
Azaroaren 25ean, 15 urte. Zorionak, Danel! Familia osoaren partetik, oso ondo pasatzea nahi dugu zure egunean. Patxo handi bat eta asko disfrutatu.



ARRASATE Aimar Hernandez Lopez
Azaroaren 25ean, urtebete. Zorionak, Aimartxo! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian! Besarkada handi bat etxekoen partetik.



BERGARA Leire Martin eta Maialen Arregi
Azaroaren 25ean, 6 urte. Zorionak etxeko printzesei eta espero dogu egun polita pasatu izana. Etxekoen partetik.



OÑATI Jon Madina
Azaroaren 25ean, 17 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean.



ARETXABALETA Anne Gomez Gomez
Azaroaren 24an, 11 urte. Zorionak, bihotza! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta besarkada handi bat etxekoen partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE Alex Romero Carballales
Azaroaren 24an, 2 urte. Zorionak, izeba-osaben, lehengusu-lehengusinen eta amamen partetik. Ondo pasatu!



BERGARA Sara Taboada Muruamendiaraz
Azaroaren 23an, 3 urte. Zorionak, printzesa! 3 urte! Patxo handi bat familia danaren partetik eta, bereziki, zure ahizpa Elenerengandik.



ARRASATE Alaitz Rodriguez Gomez
Azaroaren 22an, 9 urte. Zorionak, bihotza! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea eta besarkada handi bat etxekoen partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE Xabat Otxandiano Jausoro
Azaroaren 22an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE Sulima Carabias Ramos
Azaroaren 22an, 31 urte. Zorionak, amatxo! 31 urte; zelako handia! Oso ondo pasatu eguna. Patxo handi-handi bat, Noraren eta lagunuen partetik. AMZ.



ARRASATE Aimar Rebollo Galan
Aaroaren 26, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Mila muxu familiako guztion partetik.



BERGARA Pedro Urrutia Arribillaga
Azaroaren 21ean, 2 urte. Zorionak, maitia! Gozatu zure urtebetetze egunian! Egunerokuan zure alaitasuna eta goxotasuna jasotzen dogunon partetik, muxu handia!



OÑATI Antton Oleaga
Azaroaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Antton! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo pila bat familia danaren eta, bereziki, Beñaten eta Marenen partetik!



OÑATI Ilargi Agirregabiria Agirre
Azaroaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Ilargi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxutxo bat etxeko danon partetik.



ARRASATE Arane Torres Sanchez
Azaroaren 20an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik. Maite zaitugu!

ZORION AGURRAK TELEBISTAN

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

ARAMAIO Oihan Zufiria Azkona
Azaroaren 19an, 11 urte. Zorionak, mutikote! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean! Etxeko danon eta, bereziki, Anjeren eta Deianeren partetik! Muxu handi bat!



ARRASATE Oiana Sanchez
Azaroaren 18an, 30 urte. Ui, ui, ui... 30? Eta zer? Gaztetasuna barrutik doa, beraz, zuk ez daukazu arazorik! Zorionak, potxola! Patxo potolo bat.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DIN DAN DON

**ABESTU
GABON KANTA
ETA IRABAZI
SARI GALANTA**

**Sarrietan
6.000€**
baino gehiago dituzu zain

Oinarri osoak ikusteko:
centrocomercialgorbeia.com

I. Fasea:
azaroaren 20tik
abenduaren 13ra
Finala:
abenduaren 23an

Babeslea:

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Laguntzaileak:



ESKER ONA

**Fernando Lasa Maiztegi**

Begoña Aranaren alarguna



Azaroaren 25ean hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko azaroaren 27an.

ESKER ONA

Joxepi Guillegui Larrañaga

Ramon Guridiren alarguna




2015eko azaroaren 12an hil zen, 76 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko azaroaren 27an.

URTEURRENA

Iñaki Galfarsoro Jausoro

2014ko azaroaren 30ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 29an, 11:30ean, Aretxabaletako parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxeko izenean. Aretxabaletan, 2015eko azaroaren 27an.

URTEURRENA

Pako Arriaran Larrañaga

2014ko azaroaren 25ean hil zen, 71 urte zituela.

Guganako izan zinena, ezin izango dugu inoiz ahaztu. Gure bihotzetan eramango zaitugu beti. Maitasuna, ez da inoiz itzaltzen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 28an, 20:00etan, Oñatiko Bidaurretako elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

**Aitor Landaluze Ruiz de Alegria**

Azaroaren 22an hil zen.

Izar gorri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.

Gero arte, Aitor.

Porrak. Arrasaten, 2015eko azaroaren 27an.

OROIGARRIA

Aitor Landaluze Ruiz de Alegria

'Moska'

(1955-08-17 / 2015-11-22)

Gure bihotzean beti.

Etxekoak. Arrasaten, 2015eko azaroaren 27an.

HILDAKOAK

Frantziska Ugarte Zubialdea. Arrasaten, azaroaren 19an. 95 urte.

Eugenia Etxaniz Alegria. Oñatin, azaroaren 19an. 93 urte.

Rosarito Aiastui Ozaeta. Bergaran, azaroaren 20an. 87 urte.

Fidel Galindo Mongil. Arrasaten, azaroaren 20an. 86 urte.

Benceslao Gil Contrera. Arrasaten, azaroaren 21ean. 84 urte.

Aitor Landaluze Ruiz de Alegria. Donostian, azaroaren 22an.

Mailu Okarantza Uribeetxebarria. Arrasaten, azaroaren 23an. 80 urte.

Zulima Macia de la Peña. Bergaran, azaroaren 23an. 78 urte.

Maria Balderrabano Iglesias. Arrasaten, azaroaren 24an. 94 urte.

Fernando Lasa Maiztegi. Bergaran, azaroaren 25ean. 86 urte.

Pilar Ezpeleta Iartza. Bergaran, azaroaren 25ean. 82 urte.

MEZA

Juan Manuel Garitano Badiola

1964-11-15 / 2015-11-09

Antzuolako Errukizko Amaren parrokan, azaroaren 29an, 11:00etan, izango den eskertza-mezara gonbidatzen zaituztegu.

Etorriko zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2015eko azaroaren 27an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Mijaela eta Agustin**

Mijaela eta Agustin azaroaren 21ean ezkondu ziren. Zorionak, bikote, Gantzagako lagunengatik.

**Milagros eta Felix**

Milagros Aramendi eta Felix Ormaetxea azaroaren 27an ezkondu ziren, duela 50 urte. Zapatuan urrezko ezteiak ospatuko dituzte, familia osoarekin batera. Euren partetik, zorionik beroenak eta muxu handi bat!

**Oihana eta Mikel**

Oihana Olasolo eta Mikel Aramendi zapatuan, 12:00etan, Eskoriatzako udaletxean ezkonduko dira. Ondoren, bazkaria izango dute familiarekin eta afaria lagunekin Bergarako Lasa jatetxean. Eztei-bidaian Argentinara joango dira. Zorionak, lagunengatik, eta ondo pasatu Argentinan!

OÑATI Benito Lertxundi

Musika Egunak ekimenaren azken kontzertua. Aldez aurretiko sarrerak agortuta daude. Leihatilan 80 ipiniko dituzte kontzertua hasi baino lehen, 18 eurotan. Orioko musikariak bere musika ibilbidearen errepaso egingo du: *Baldorba*, *Nere herriko neskatxa maite*, *Loriak udan*, *Oi Ama Euskal herri...*

Bihar, zapatua, Santa Anan, 22:00etan.



WWW.BEDWYRPHOTO.COM



AUKERAN

ARAMAIO Aukeran dantza konpainiaren emanaldia

Edu Muruamendiaraz bergararraren konpainiak orain arte egin dituen lanetako pasarterik esanguratsuenak batuko dituzte Euskararen Egunaren harira. Era berean, dantza berriak estreinatuko dituzte.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 20:30ean.

MUSIKA**OÑATI Arozenatarrak**

Aitorrek (txistua), Urkok (perkusioa) eta Xanetek (gitarra) osatzen dute Oiartzungo familia baten laugarren belaunaldia. Askotariko estiloak eta kantuak landuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 19:30ean.

OÑATI 2zio eta Revolta Permanent taldeak

Rap musikaz gozatzeko aukera. Sarrerak, bost euro.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Zerendepya taldea

Iban Peñakobak eta Txus Gutierrezek osatzen dute taldea. Doan.

Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 23:00etan.

OÑATI Herrixa Kantuan

Kantu kalejira Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren eskutik.

Bihar, zapatua, Foruen plazan, 12:30ean.

BERGARA DJ festa

Amaia Txintxurretarekin eta Asierrekin.

Bihar, zapatua, ikastolako karpan, 17:00etan.

OÑATI Zura taldea

Musika akustikoaren eta bossa novaren bideak jorratu ostean, disko rockeroagoa egin dute:

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

AZAROA 27
ABENDUA 2

Egunkari ezkutua. Aurkezpen emanaldia egingo dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Aitor Olea

San Pedro parrokian dagoen Stoltz-Freres organoaren aldeko emanaldia.

Etzi, domeka, Santa Marinaran, 19:00etan.

OÑATI Juan Valls

Bakarlari oñatiarrak *Life holds red lights on behind* diskoa aurkeztuko du. Doan.

Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

JAIK**OÑATI Uribarri auzoko jaiak**

San Andres jaiak ospatuko dituzte. Egubakoitzean mus txapelketa (22:00); zapatuan, haurrentako merienda (16:00), auzokoen afaria (21:00) eta erromeria; eta domekan, meza (12:00) eta luntxa. Aste bukaeran, Uribarri auzoan.

ERAKUSKETAK**ANTZUOLA Uemaren erakusketa**

Euskararen arnaguneak, nondik gatz eta nora goaz? delako erakusketa ikusgai aste bukaeran. Domekara arte, Orlararen.

ARETXABALETA Demetrio Iriarteren omenezkoa

Txistulariaren jaiotzaren 100. urteurrena bete da, eta askotariko materiala duen erakusketa ipiniko dute: argazkiak, partiturak... Abenduaren 3an zabalduko dute.

Abenduaren 30era arte, Arkupen.

BERGARA Simon Arrieta

Bergarako margolaria oinarri hartuta, erakusketa antologikoa osatu dute.

Abenduaren 20ra arte, Aroztegin.

ARRASATE 'Begitik'

Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko hemeretzi mar-

golariren eta eskultorearen lanak bildu dituzte erakusketa bateratuan. Arte munduan eskarmentu handia duten goi mailako artistak. Abenduaren 20ra arte, Kulturaten.

BERGARA Esther Galartza

Eibarko artistak 44 lan ipini ditu ikusgai, *Udazkena* izenarekin. Azaroaren 30era arte, Nahikarin.

DONOSTIA Ramon Arantzabal

Margolari bergararrak hamazortzi lan ipini ditu: abstraktuak, pintura akrilikoeekin eginda. Mirakontxa kaleko Resaka kafetegian, abenduaren 15era arte.

ARETXABALETA Mikel Zamora

Argazkilari aretxabaletarren *BidaiaTU* delako erakusketa. Azaroaren 30era arte, Arkupen.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak eta burdina hizpide. Harresi aretoan ikusgai.

BERTSOLARITZA**ARAMAIO 'Gazteak plazara' saioa**

Maddalen Arrausi, Xabi Igoa, Iñaki Lertxundi eta Jon Sanchez izango dira bertsolariak. Gai jar-tzailea, Nieves del Alamo.

Gaur, egubakoitza, Sastifian, 19:00etan.

ANTZERKIA**ARRASATE 'La alegría de la huerta' zarzuela**

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren azken bi emanaldiak: gaur, egubakoitza, 20:00etan; eta etzi, domeka, 19:30ean. Enrique Gartziairen eta Antonio Pasoren liburuetan eta Federico Chuecaren musikan oinarritutako lana da. Aipatutako egunetan eta orduetan, Amaia antzokian.

ELGETA 'Aladino' musikala

Umeendako emanaldia. Sarrerak, zazpi euro. Aurrez erosita, bost.

Bihar, zapatua, Espaloian, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Futbolisto baten konfidentziak'

Realeko, Rayo Vallecanoko eta Real Unioneko jokalariz izandako Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa saioa. Sarrerak, lau euro. Bihar, zapatua, Zaldibarren, 22:30ean.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko azaroko zozketetako irabazleak

TELEBISTA
Edorta
Aiastui Atxa
(Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARRA
Mikel Alberdi Larrañaga (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA
Pilar Zubizarreta Abarrategi (Arrasate)
Ricardo Ercilla Altuna (Antzuola)
Iñaki Martínez Busteros (Arrasate)

ANDONI URZELAIAREN 'KARANBOLA TOXIKOAK' LIBURUA
Mikel Sologaitza Blain (Oñati)
Eva Navarro Cid (Arrasate)

'MARINA' OPERA IKUSTEKO SARRERAK
Oihana Agirre Inza (Bergara)

'MR. KEBAB' ANTEZLANERAKO SARRERAK
Iñigo Zaitegi Bikuña (Bergara)

BERTSO TXAPELKETAREN KANPORAKETAREN SARRERAK
M.Rosario Barturen Barroso (Oñati)
Amaia Arana Beitia (Arrasate)

'TRIO BASAURI' IKUSTEKO SARRERAK
Ane Miren Etxebeste Golkoetxea (Bergara)

'TXANOGORRITXO' ANTEZLANERAKO SARRERAK
Iñigo Zaitegi (Bergara)
Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)

'MONOLOKOS' ANTEZLANERAKO SARRERAK
Jesus M. Elkoro Iturriaga (Arrasate)

ZARZUELA IKUSTEKO SARRERAK
Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)
Miren Anduaga (Antzuola)

'PIRRITX ETA PORROTX' IKUSTEKO SARRERAK
Aiora Beristain Madariaga (Bergara)
Santiago Enciso Miramon (Oñati)

'CAPERUCITA FEROZ' ANTEZLANERAKO SARRERAK
Iker Larrea Sorraluze (Antzuola)
Jose Luis Carnicero (Bergara)

'EZ GARA PALESTINAZ ARI' ANTEZLANERAKO SARRERAK
Nagore Urzelai Sanz (Osintxu)

HILARION JATETXEAN BI PERTSONENDAKO BAZKARIA
Juan Miguel Lizarralde Lezeta (Antzuola)
Mikel Lopez de Arkaute Guridi (Arrasate)

MENDIOLA ERRETEGIAN BI PERTSONENDAKO BAZKARIA
Ramon Iturrizastillo Biteri (Aretxabaleta)

BERGARAKO BATZOKIAN BI PERTSONENDAKO BAZKARIA
Mireia Axpe Oianguren (Aretxabaleta)

BASKONIA- HERBALIFE PARTIDURAKO BINA SARRERA
Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
Maider Perez de Pedro (Bergara)
Jose Antonio Gardoki Beitia (Aretxabaleta)

BASKONIA- BARTZELONA PARTIDURAKO BINA SARRERA
Iñaki Martínez Iñurategi (Bergara)
Francisco Zubia Azkoaga (Arrasate)
Amparo Ibarquien Molpeceres (Arrasate)
Iker Sarabia Ugarte (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzte Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araoz Auzoa, Oñati, 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko). **Harreman dendako otarrak.** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak.** Zatoz, GOIENAREN egotzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna, Arrasate, 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

goienakluba



5. ALDIA Kantari



Kantarin ia 1.000 lagun!

Abenduan posta elektronik bitartez jakinaraziko zaie talde bakoitzari zein abesti egokitu zaien zozketan.

goiena

2015-11-27

BUKATZEKO

Jon Salaberri, orain liburu digitalean

KOMUNITATEA GOIENA | JOXE ARANTZABAL
ARRASATE

Liburu bat amaitu dut Jon Salaberri aktibista mondragoetarri buruz, *Jon Salaberri, hiesdunen aldeko ekintzailea*, eta Interneten jarri dut, irakurri nahi duenak doan jaisteko moduan. Horrela amaitutzat jotzen dut, justu hiesaren kontrako nazioarteko egunaren bueltan, *Jon Salaberri proiektua*, urte honen hasieran abiarazi nuena.

Egia esan, kostatu egin zait liburua amaitzea, batez ere Goiena telebistak dokumental bikaina egin zuenetik Jon Salaberriri buruz, haren ostean zerbait diferentea eskaini nahi nuen-eta liburuan.

Bi formatutan

Liburu hau digitala da, paperean ez da argitaratuko, eta Dropbox-en jarri dut, bi formatutan: *epub* eta *mobi*. Lehena estandarra da, eta irakurgailu digital gehienetan irakur daiteke. Bigarrena, ostera, Kindle irakurgailuetan irakurtzekoa da.

Guztira, lehen astean 145 lagunek eskuratu dute ale bat, formatu hauetan: 92 *epub*, 46 *mobi* eta 7 *pdf*, azken horiek nik bidalita.

Zazpi elkarrizketa luze

Liburuak jasotzen du Jon Salaberriren bizitza, iragan martxoan *Sustatu* albistarian eta *Puntu*



Jon Salaberriren gaineko liburu digitalaren aurrean Joxe Arantzabal egilea. | JOXE ARANTZABAL

aldizkarian idatzita baino zabalago.

Horrekin batera, bertsiu digital honek jasotzen ditu zazpi elkarrizketa luze, Salaberri ezagutu zuten lagun hauekin eginak: Jose Manuel Agud Aparicio doktorea, Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia, Txerra Bolinaga musikari eta aktibista, Aitor Iturriaga laguna, Domi Korta lankidea, Idoia Salaberri arreba eta Josu Unanue lagun mina.

Bost argazkik, bestalde, aitzakia eman didate Jon Salaberri ikuspegi pertsonaletik enfoka-

tzeko. Horietako batean azaltzen da behin zelan erantzun nion Jon Salaberriri *Arrasate Press* aldizkarian, eta zelakoa izan zen bion arteko eztabaida hura. Baita Salaberri euskararekiko izan zuen jarrera ere.

Liburuak, bestalde, jasotzen ditu kronologia bat, bibliografia bat eta eranskin bat, lau elementurekin, tartean Yera Sanchez ilustratzaileak Jon Salaberriri egindako ilustrazioa.

Portada, azkenik, Goio Arana adiskideak egin du, eta horretarako *Argia* aldizkariaren argaz-

ki bat erabili du, hori ere CC lizentziapean.

Eduki librea, partekatzeko

Liburu Creative Commons lizentziapean jarri dut (cc-by-sa, Aitor-Partekatatu lizentzia da, eduki librea alegia), jendeak nahi duen eran erabili eta parteka dezan, betiere berorren egiletza aipatuta.

Azkenik, baina ez azkena, liburu hau egiteko Ulysses aplikazioa erabili dut, aukera eman didalako liburua erraz kudeatu eta formatu digitalean esportatzeko, era txukunean.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Ezustean

Arduraz jokatzeko tokatzen zaigu politikoi gobernuan gaude-nean. Arduraz jotzea tokatzen zaigu baita ere oposizioan gaude-nean. Beti marra gorriak gaintitu gabe jardun beharko genuke, herritarrak, ongizatea eta baliabide publikoen kudeaketa helburu nagusitzat hartuz. Gobernu ardurarik ez nuen eta orain, ardurak izanik, beti saiatu izan naiz lerro hauek idazten nire printzipioekiko zintzo jokatuz eta bihotzak esaten zidana islatzen. Zentsurarik gabe aritu naiz urte hauetan Goian... gaur arte. Gure bailaran azken urteotan soka luzea ekarri duen gaiari buruz zutabe honetan asteburu honetan ez idazteko "gomen-dioa" jaso dut "oreka politikoaren" izenean. Ezustean harrapatu nau Goienatik jasotako deiak, ez baita beti oreka politiko hori bermatu soka luzea ekarri duen gai horretan.

Proposatu didatena barruko orrialdetan beste norbaiten aurkako iritziarekin batera "orekatzea" izan da. Besteenganako errespetuz idazten bada, iritzi askatasuna leku guztietan bermatu beharko litzateke eta nik horixe aldarrikatu nahi nuke urteetan idatzi dudana zutabe honetarako.



NISSAN PULSAR BERRIA

12.900 €* TIK HASITA

BEHAR DUZUN TEKNOLOGIA, BEHAR DUZUN UNEAN ZEHAZKI.



ESPAÑIAN EGINDAKOA



3 URTEKO MANTENTZE-LANAK, GARANTIA ETA LAGUNTZA

ARABAUTO

Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Álava - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa 5 l/100 km. CO₂ emisioak: 117 g/km.

*Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSPa, honako hauek bane: FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua, PIVE 8 plana, BEZa eta ZGGZB Espainiako merkaturako (baliteke aplikagama ez izatea zure komunitate autonomoan). 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako benikusetak Bermeen Liburuaren eta Mantentze Zurtagiaren arabariko estandarak dira. Salbetsuta daude Flotak eta enpresak Nissan PULSAR Visia 1.2 DIG-T 115 ZP (85 kW) erakutsia erosten duten banakentzat eta autonomoentzat bali du eskaintzak. Haien izenean dagoen ibilgailu erabilia eraman behar dute eta RCI Banque SA bankuko Espainiako sukurtsalaren Magic Plan 3D erabilita finantzatu behar dute. Gutxiengo iraupenaldia 24 hilabetekoa izango da, gutxiengo samera 1000koa, eta gehienekoa 1040koa. Pack Auto oparia bane; (Auto TRCF 600 € aseguria urtebetez; frankizia-asegurua 2 urtez; eta pneumatikoaren aseguria 2 urtez/30.000 km-rako). Eskaintza hau ez da bateragarria izango beste kanpaina batzuekin eta hilabetearen amaierara edo PIVE 8 plana agortu arte egongo da indarrean (lehenago gertatzen dena). Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun kontzesionariara. Bietaratuak modelo: Nissan Pulsar Tekna bane.